ERRENTERIAKO EUSKARAREN KOKAPEN DIALEKTALA[1]

Josep DEL RÍO RODRÍGUEZ

Eskerronak

Jende askok lagundu dit eta parte hartu du ikerlan hau egiten. Uneoro erakutsitako borondatea, eroamena eta jakiteko grina eskertu nahi dizkiet denei, eta horretarako haien izena aipatuko dut atal honetan.

Lehenik eta behin, Itziar Aduriz Agirreri eman nahi dizkiot eskerrak bihotz-bihotzez. Bera izan da tesi honetako zuzendarietako bat eta lan hori berez nahikoa da eskerrak emateko, noski, baina hori baino askoz gehiago egin du Itziarrek: euskara ikasten hasi nintzenetik, hizkuntza hori barru-barruraino sartzen lagundu zidan, euskarak nire baitan habia egitea eta betiko gelditzea lortu baitu. Horrez gain, azterketa honi esker gehiago baloratzen ditut bai Itziarren adiskidetasuna bai Itziar bera ere.

Beste zuzendariari ere, profesionalki miresmen handia diodan Koldo Zuazori ere, gauza asko eskertu behar dizkiot. Ni ia batere ezagutu ez arren, bere babesa eman zidan eta bere materialak eta denbora eskaini zizkidan ezeren truke. Nire bi zuzendarien aholku eta babesik gabe, ez nuen azterketa hau hain ondo taxutzerik lortuko.

---

1. Josep Del Río Rodríguez jaunak hizkuntzalaritzan doktore-titulua erdiesteko aurkezturiko lana da honakoa. Tesi hau Bartzelonako Unibertsitatean egina da, Hizkuntzalaritza Orokorreko sailaren "Hizkuntzalaritza eta komunikazioa" doktorego-programaren barruan, Itziar Aduriz Agirre eta Koldo Zuazo Zelaietaren zuzendaritzapean.

Katalanetik euskarara itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak zati bat ordainduta egin da, Bartzelonako Unibertsitatearekin daukan hitzarmen baten bitartez. Beste zatia Errenteriako Udaletxeak ordaindu du.

Itziar Aduriz Agirrek errebisatu du euskarako itzulpena.

Ezin aipatu gabe utzi Joan Veny doktorea, beti egon baita ni hartzeko, eta aholku ezin baliotsuagoak eman dizkit, bere irribarre abegitsua sekula galdu gabe. Beste hauek guztiak gehitu nahi ditut, halaber: Ainhoa Fraile, Iñaki Azkarate, Mikel Lersundi, Jose Luis Agirretxe, Idurre Lekuona, Inaxito Albisu adeitsu eta langile porrokatua, Iñaki Elkano, Jose Mari Carrere, euskararekin zeharo konprometituta dauden *Lau Haizetara*ko lagunak (Iker Iraola eta Jose Luis Maritxalar bereziki), bai eta ikerketa hau egiten lagundu didaten berriemaile nekaezinak ere: Mikel Erriondo, Mari Jose Arizmendi, Loreto Salaberria, Garbiñe Erriondo, Edurne Erriondo, Edurne Lekuona, Maialen Viaña, Maialen Dorador, Maitane Lirazasoro, Agustin Maritxalar, Maite Urretabizkaia, Nekane Urretabizkaia, Mañoli Bautista, Maria Luisa Zabala, Borja Arbelaitz, Erdoitza Ayestarán, Xixilio Maritxalar, Haizea Maritxalar, Jon Gaztelumendi, Martin Gaztelumendi, Amets Badiola eta Ibon Toledo. Ezin aipatu gabe utzi Enric Vidal, hark egin baititu ikerlan hau apaintzen duten mapa txukunak.

Azkenik, etxekoengandik jasotako erabateko babesa eskertu nahiko nuke, Olympia emaztearena bereziki: tesiarekin jarraitzeko adoretu nauelako uneoro eta elkarrekin nahi genukeena beste denbora egoteari amore ematen jakin duelako.

Izenen bat ahazteko arriskuz, ikerketa hau egiten lagundu badidate ere, nire buru kaskarraren ondorioz, aipatu gabe utzi ditudan guztiei eman nahi dizkiet eskerrak ataltxo hau amaitzeko. *Gaizki esanak barkatu eta ongi esanak kontuan hartu*.

Aurkibidea

A ZATIA: SARRERA, EUSKARAREN HISTORIA ETA EUSKALKIAK

Sarrera

1. Kapitulua: Euskararen historia eta euskalkien bereizketa
1.1. Euskararen historia
1.2. Euskalkien bereizketa

2. Kapitulua: Euskararen sailkapenak historian zehar

3. Kapitulua: Mendebaldeko taldea vs. ekialdeko taldea
3.1. Isoglosa-multzo handiak
3.2. Mendebaldeko eta ekialdeko taldeen alderaketa
3.2.1. Fonologia
3.2.2. Morfologia
3.2.3. Morfosintaxia
3.2.4. Lexikoa
3.3. Tarteko eremuak

B ZATIA: ERDIALDEKO EUSKARA. TARTEKO HIZKERAK ETA UKIPEN-HIZKERAK

4. Kapitulua: Erdialdeko euskara
4.1. Erdialdeko hizkeren ezaugarri orokorrak: hedadura geografikoa eta sailkapena
4.1.1. Fonologia

4.1.2. Morfologia
4.1.3. Sintaxia
4.1.4. Lexikoa
4.2. Erdialdeko euskarako tarteko hizkerak: Irunaldeko kasua
4.2.1. Tarteko hizkeren ezaugarri orokorrak. Hedadura geografikoa eta sailkapena

5. Kapitulua: Ukipenaren eragina tarteko hizkeren mugako zonetan
5.1. Sortaldeko erdialdeko azpi-euskalkiaren mugakide diren hizkerak. Ezaugarri orokorrak. Hedadura geografikoa eta sailkapena
5.1.1. Azpi-euskalki hau nafar hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak
5.1.2. Azpi-euskalki hau erdialdeko euskarako hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak
5.1.3. Ezaugarri lokalak

C ZATIA: ERRENTERIAKO KASUA. METODOLOGIA ETA DESKRIBAPENA

6. Kapitulua: Ukipenaren eragina tarteko hizkeren mugako zonetan: Errenteriako kasua
6.1. Metodologia
6.1.1. Dialektologia klasikoa eta soziolinguistika
6.1.2. Elkarrizketa
6.1.3. Berriemaileen adin-tarteak eta aldaketa linguistikoa
6.2. Errenteriako udalerriaren ezaugarri orokorrak: historia laburra eta hedadura geografikoa
6.3. Errenteriako hizkeraren ezaugarri orokorrak
6.3.1. Azpi-euskalki hau nafar hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:
6.3.2. Azpi-euskalki hau erdialdeko euskarako hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:
6.3.3. Ezaugarri lokalak

D ZATIA: ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

7. Kapitulua: Ondorioak
7.1. Fonologia
7.2. Morfosintaxia
7.3. Lexikoa

8. Kapitulua: Etorkizunerako proposamenak

Gehigarria

Bibliografia

A ZATIA: SARRERA, EUSKARAREN HISTORIA ETA EUSKALKIAK

Sarrera

Erdialdeko azpi-euskalkiko Gipuzkoa aldeko barietate batzuk aztertzea izan da *Errenteriako euskararen kokapen dialektala* izeneko tesi honen helburua, eta Errenteriako hiriguneko belaunaldi arteko hizkera deskribatzen saiatu naiz, bereziki. Barietate horiek aukeratzea ez da kasualitatea izan, noski: erdialdeko eta sortaldeko azpi-euskalkiak bereizten dituzten isoglosak finkatu nahian aukeratu ditut. Gure azterketa honetan sortaldeko euskalkiekin mugakide diren erdialdeko azpi-euskalkiko barietateak aztertu ditugu bakarrik, hau da, Astigarragako, Pasaiako, Lezoko eta, bereziki eta sakonago, Errenteriako hizkerak. Era berean, Dialektologiari metodologia berria eskaini nahi izan diogu ikerlan honen bidez, jakintza-alor klasiko

horren mugak argi eta garbi gainditu eta hizkuntz bariazioaren gaineko ikuspegi holistikoagoa ematen laguntzen duten printzipio soziolinguistikoak ere aintzat hartzeko asmoz. Azken hamar urteotan Euskal Herriko herri askotako hizkerari buruzko monografiko ugari argitaratu da, euskal dialektologiak garai oparoa bizi duen seinale. Euskarak oraindik duen euskalki-aberastasuna jo liteke horren arrazoi gisa, bai eta zenbait ikerlarik euskalkien etorkizunagatik duten kezka ere. Izan ere, XIX. eta XX. mendeetan hizkera horiei buruz egindako deskribapenak eguneratu beharrari erantzun nahian aukeratu dugu tesi honetako aztergaia, hain zuzen. Errenteriako euskara nafarreraren barruan sailkatzen zen lehen ikerketa haietan, eta hortxe sartzen dute gaur egungo zenbait ikerlarik oraindik ere, Nafarroako zenbait hizkerarekin ezaugarri bereizle batzuk partekatzen dituela eta. XXI. mendera iritsita, ordea, Koldo Zuazok eta beste ikerlari batzuek auzitan jarri dute sailkapen hori, eta Errenteriako hizkera erdialdeko gipuzkera dela esan dute. Eztabaida hori ikusita, argi zegoen ikerketa bat egin beharra zegoela Errenteriako euskarari buruz ditugun datuak eguneratu, eta hizkera hori nafarrerarekin lotzen zituen ezaugarriak aldatu egin diren eta orain erdialdeko euskaran kokatzen duten ezaugarriak ote dituen aztertzeko. Beste edozein kasutan baino gehiago, belaunaldien arteko ikuspegia behar dugu hemen, erdialdeko euskararanzko usteko aldaketa hori zertan den ikusi ahal izateko. Gure lehenbiziko helburua Errenteriako euskara zein dialektotakoa den argitzea izan bada ere, Errenteria inguruko hizkerek duten joera dialektala ere azaltzen saiatu gara gure tesian, hizkera horiek mendebaldeko ezaugarriei ekialdeko eragin apalarekin eusten saiatzen diren edo, aitzitik, sortaldeko azpi-dialektoekin bat egiteko joera duten ikustearren. Bi helburu horiei erantzuteko, ondo samar ezagutu behar dira, noski, bai erdialdeko euskalkiaren ezaugarri orokor eta komunak, bai euskalki horren sortaldeko azpi-euskalkiaren ezaugarri bereziak. Hori guztia dela eta, oso egitura zehatza eman diogu gure ikerketari: lau kapitulu-multzotan banatu dugu tesia, eta guztiek ere –inbutu baten antzera jokatuz– Errenteriako hizkerari buruzko ikuspegi argiagoa ematen laguntzen dute. Hasteko, A zatian, ezaugarri orokorrak eta aurrekariak aurkezten dira eta alderdi hauek azaltzen dira bertan, hiru kapitulutan banatuta: euskararen historia laburra, euskalkien sailkapen historikoak eta euskara sailkatzen deneko bi euskalki-bloke handien arteko alderaketa. B zatian, bigarrenik, erdialdeko euskara aztertzen da modu orokorrean, tarteko euskarak aipatzen dira eta sortaldeko azpi-euskalkiaren (Irunaldekoa) berri ematen da. Laugarren kapitulu hori funtsezkoa zaigu gure helburuetarako behar ditugun datu adierazgarriak azaleratzen hasteko. Bigarren zatia bosgarren kapituluarekin osatzen da, eta gure tesiaren muinean murgiltzen gara kapitulu horrekin. Sortaldeko erdialdeko euskararekin mugakide diren erdialdeko hizkeren ezaugarriak azaltzen eta alderatzen dira bertan. Eskuragarri dagoen bibliografiari esker, orain arteko bildutako datuekin isoglosa-mapa bat marrazten hasiko gara, eta hasieran azaldutako bigarren galderari erantzungo diogu, horrela. Hizkera hauen deskribapenari jarraiki, hizkeron ezaugarriak berriro finkatu eta izan duten eboluzioa argituko dugu. C zatian, hirugarrenik, Errenteriako euskara aztertzen da bete-betean. Dagoeneko ezagutzen ditugu erdialdeko euskararen ezaugarri orokorrak eta erdialdeko eta sortaldeko azpi-euskalkien ezaugarri bereizleak, baina Errenteriako hizkeraren koka-

pen genetikoa argitzen duten erantzunak falta zaizkigu oraindik. Hirugarren multzo honetan hizkuntz ukipenaren teoria hartzen da abiapuntutzat, hizkera horiek deskribatu eta sailkatzeko. Kapitulu bakarra du multzo honek, bi azpi-kapitulutan banatuta: lehenbizikoan, datuak biltzeko erabilitako esparru teorikoa eta metodologia aurkezten dira; bigarrenean, Errenteriako hizkeraren belaunaldi arteko deskribapena egiten da. Puntu honetara iritsi arte ez dugu ezer esan metodologiari buruz, aurreko bi zatiak bibliografian oinarrituta egonik, berez, hirugarren multzo honetatik aurrera agertzen direlako ikerketa honetako berezko datuak.

Azkenik, tesiaren azken zatian, datuak aztertu eta alderatu egiten dira, Errenteriako euskara sailkatzeko genituen helburuei erantzuteko asmoz. Bidegurutze bat aurkezten zaigu hemen, eta hortik abiatuta Errenteriako hizkerari buruzko eztabaidari erantzuten saiatu gara, bildutako datuak oinarritzat hartuta, noski. Azken zati honek dialektologia birfundatzeko beharraz geniona berresten du eta gure ikerlana osatu eta zabal dezaketen azterketa-proposamenak eskaintzen ditu.

1. mapa: Euskal Herria



2. mapa: Donostia inguruko herriak

1. Euskararen historia eta euskalkien bereizketa

1.1. Euskararen historia

Hizkuntza indoeuroparren aurrekoa da euskara, hau da, indoeuropar herriak (zeltak, erromatarrak, godoak, etab.) iritsi aurretik hitz egiten zen Iberiar penintsulan gaur egun hartzen duena baino lur-eremu handiago batean.

Lan honetan ez dugu euskararen jatorriari buruz hitz egingo, ez delako hori gure aztergaia eta gaur egun ez delako oraindik inolako erlazio genetikorik frogatu euskararentzat. Hala, erantzun erabatekorik ematen duen azterketarik ez dagoenez gero, euskarak ez du hizkuntz familia ezagunik eta, hortaz, inguratzen eta zeharkatzen duen itsaso erromanikoan genetikoki bakartutako hizkuntzatzat hartzen da.

Nolanahi ere, Neolitoaz geroztik (eta lehenago ere, beharbada) gure garaira arte Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeetan etenik gabe mintzatu izan den hizkuntza da euskara.

Iraganean gaurkoa baino lurralde zabalagoan erabiltzen zen euskara. Erabilera-eremuaren mugak zehaztea zaila bada ere, Garonatik Ebroraino eta mendebaldeko Pirinioetatik Kataluniako ipar-mendebaldeko eskualdeetaraino mintzatzen omen zen (Mitxelena 1987:17 eta 53). Lur-eremu hori txikiagotuz joan zen indoeuropar herriak iritsi ahala, eta euskararen erabilera ere murriztuz joan zen, horren ondorioz. Gaur eguneko hedadurara iritsi arte lur-hedadura galtzen joatea da, hain zuzen ere, euskararen historiaren ezaugarri nagusietako bat (Mitxelena 1987:12-14).

Kristo aurreko lehen milurtekora arte euskarak ez zuen erlaziorik izan zeltarekin. Lehenago izango zuen erlaziorik iberierarekin, hegoaldean. Izan ere, zenbait teoriak erlazionatu egiten dituzte bi hizkuntzak, baina ezinezkoa dirudi bien arteko erlazio genetikoa frogatzea. Iberiera alde batera utzita, beraz, badirudi lexikora mugatu zela zeltak euskara arkaikoan izandako eragina:

zelt. *arkt-o-s* eus. *hartz*

Geroago latina iritsi zen, erromatar armadek Galia eta Hispania mendean hartzearekin batera. Núñez Astrainek (2003:20) dioenez, "*latinak euskaran izandako eragina Krasok K.a. 56. urtean egindako kanpainarekin hasi omen zen Pirinioen iparraldean, eta mende bat lehenago, gutxi gorabehera, Pirinioen hegoaldean*."

Orduz geroztik, hasiera batean latinarekin batera bizi izan zen euskara, eta geroago inguruko herrialdeetan sortutako dialekto erromanikoekin. Aurrena latinaren eragina eta geroago hizkuntza erromanikoena jaso du euskarak etenik gabe, bi mila urtean zehar, eta horrek berebiziko eragina izan du hizkuntzaren maila guztietan, hizkuntza bera taxutzeraino. *-tu* aditz-atzizkia (morfologia-mailan) eta *eta* emendiozko juntagailua (sintaxi-mailan), esaterako, latineko partizipio burututik eta *et* juntagailutik datoz, hurrenez hurren. Latinetik hartutako ezin konta ahala maileguek (euskal fonetikara eta euskal fonemen eboluziora egokituak) ederki erakusten digute latinak zenbaterainoko eragina (erabatekoa eta erabakigarria) izan duen euskaran. Hona hemen diogunaren zenbait adibide (Mitxelena 1977): *tipula* (<CIPVLA), *balea* (<BALLENA), *putzu* (PODIV), *habia* (<CAVEA), *maiz* (<MAGIS).

Erromatar inperioaren gainbeherarekin batera (K.a. III. mende erdialdean, Núñez Astrainen (2003) arabera) nolabaiteko autonomia eskuratu zuten euskaraz mintzo ziren lurraldeek. Lurraldeon arteko lotura sendotzea ekarri zuen horrek. Godoak etortzean iritsi zen goren mailara kohesio hori, antzinako euskaldunak haien aurka bat egitea eragin baitzuten haien etorrerak. Inbaditzaile godoen aurkako bat-egite horren eredu dira 778an Karlomagnoren armadaren atzeguardiari Orreagan egindako erasoa eta euskaldunek godoekin zuten harreman liskartia. Errege batzuek eta

besteek hiriak fundatu zituzten, baskoiak kontrolpean edukitzeko (Victoriako, gaur egungo Gasteiz; Hiriberri, etab.).

Erdi Aroan, X. mendearen bigarren erdian, euskaraz idatzitako lehen hitzak agertu ziren, Donemiliaga Kukulako monasterioan aurkitutako dokumentu batean. *Donemiliagako glosak* deritzon dokumentuan agertu ziren interpretazio iluneko hitz hauek: *izioqui dugu* eta *guec ajutu ez dugu*[2]. Latinez idatzitako testu bat argitzeko euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako ohartxo batzuetan ageri ziren hitzok.

Hortik aurrera testu laburrak, glosario elebidunak (Mitxelena 1990:49), etab. agertuko ziren. Gainera, Nafarroako erresumako hizkuntza ofizialak latina, Okzitaniako gaskoia eta nafarrera zirela jakinik, bi datu horiei jarraiki, pentsatzekoa da erromanikoa eta euskara elkarren ondoan bizi izan zirela garai batean. Izan ere, gaskoia eta gaztelania euskal lurraldeen ertzetan sortu ziren eta euskal hizkuntz eremuko zona horien erromanizazioaren emaitza izan ziren, berez. Hizkuntza erromanikoek, barnealdeko euskal lurraldeetakoak barne, ofizialtasuna eskuratu zuten eta euskara, berriz, zokoratuta gelditu zen behe-mailako erabileretarako.

1521ean, Gaztelako soldaduek Nafarroako erresumaren hegoaldea inbaditu zuten, eta Katalina Foixekoak Pirinioen iparraldeko lurraldeetan babestu behar izan zuen, horren ondorioz. Haren semea nafar lurraldeak birkonkistatzen saiatu bazen ere, Nafarroa Gaztelako erresumaren mende gelditu zen. Joana Albretekoak (Katalina Foixen biloba) protestantetzat jo zuen bere burua jendaurrean Pauen eta *Itun Berria* euskaratzeko eskatu zuen. Joanes Leizarragak egin zuen itzulpena. Lapurteraz egin zuen, baina beste euskalkietako elementuak ere erabili zituen, irakurle gehiagorengana iristearren.

Ordutik aurrera ugarituz joan ziren euskaraz idatzitako lanak, euskal literatura klasikoaren gailurtzat jo daitekeen lana iritsi arte: Pedro Axularren *Gero*. XVII. mendean elizari lotutako idazleak agertzen hasi ziren. Irakurle asko zituzten idazleok: irakurle jantziak eta irakurtzen ohituak zeudenak. Idazle haiek erlijio-gaiei buruz idazten zuten, bai herri xehea bai burgesia herriaren hizkuntzan heziak izan behar zuteneko ikuspegiari jarraiki. Eta horixe izan zen idazteko oinarritzat hartu zuten eredua: Donibane Lohizuneko eta Sarako lapurteratik hartutako hizkuntza moderno eta burgestua[3].

XVIII. mendera iritsi eta borboiak tronuratzean, euskarak atzerakada handia izan zuen gaztelaniaren mesedetan. Euskal kultura suspertzeko saiakerak egin ziren, baina ez zuten eraginik izan esparru politiko nahiz instituzionalean, borboiak hizkuntz aniztasun ororen aurka zeudela eta. Aurrerago, XIX. eta XX. mendeetan, Euskal Herriaren industrializazioa gertatu zen, Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki, eta euskaraz ez zekien etorkin ugari iritsi ziren orduan Extremaduratik, Andaluziatik, Gaztelatik eta Galiziatik.

---

2. Glosa hauei eta haien interpretazioari buruz gehiago jakiteko, ik. Mitxelena 1990:42.
3. Azalpen sakonago baterako, ikus Mitxelena 2001.

XIX. mende hasieran bertako nahiz kanpoko ikerlarien euskararekiko interesa suspertu egin zen berriro. 1918an Eusko Ikaskuntzen Lehen Biltzarra egin zen eta Euskaltzaindia sortu zen urte berean. Dena den, Franco jeneralaren diktadurak zapuztu egin zituen ordura arte lortutako aurrerapenak eta irekitako prozesua, gaztelania ez zen beste edozein hizkuntzatan egindako adierazpen guztiak errotik debekatu baitzituen. Diktadurako azken urteetan, Euskal Herriko kultur eta zientzia-mundua suspertzen hasi zen berriro. Euskal ikasketei berriz ere heldu zitzaien orduan (Euskaltzaindia euskara batua lantzen hasi zen 1968an) eta ikastolak sortzen hasi ziren.

1.2. Euskalkien bereizketa

Hitzaurrean azaldu dugunez, hizkuntzak ez dira homogeneoak. Antzinatik, komunitate etnikoek –hitzaren adiera soziolinguistikoan ulertu behar da adjektibo hori– merkataritzako hartu-emanak izan dituzte, migrazioak egon dira, etab. (ik. Boix 1998). Nahiz eta noiz edo noiz komunitateren bat gainerako gizakiengandik isolatuta gelditu, komunitateen arteko hartu-emanak dira nagusi gizakien historian. Izan ere, komunitate etniko bat bere lurraldean milaka eta milaka urtean bizi izan arren, hizkuntzan komunitate horrek izandako hartu-emanen arrastoa gelditzen da beti.

Hori esanda, euskal komunitate etnikoa gertuagotik aztertuz gero, beraiek ere talde barruko beren erlazioak dauzkaten talde-unitate txikiagoak aurkituko genituzke.

Diogunari jarraiki, euskalkiak mendeetako eboluzioaren emaitza direla esan beharra dago, nahiz eta ikerlariak ez datozen bat euskalkiak bereizten noiz hasi ziren zehazteko garaian. Batzuen iritziz (Mitxelena 1987:51), euskalkien bereizketa Erdi Aroan hasi zen, orduko testuetan desberdintasun nabarmenak agertzen baitira dagoeneko eta, bereizketa hori lehenago (egungo egoera baino are lehenagoko garai batean) gertatu izan balitz, gaur egun erabiltzen diren euskalkiek, desberdintasunak gorabehera, ez lukete oraingo parekotasunik izango eta ez litzateke egungo hizkuntz batasun ukaezinik egongo. Gaur egungo euskalkien hizkuntz egituran funtsezko eta oinarrizko ezaugarri komunak aurkitzen ditugu eta, hortaz, euskalkien bereizketak ezin izan zuen Erdi Aroaren aurretik gertatu.

Bestalde, beste ikerlari batzuen arabera, hizkuntza bera bezain aspaldikoa da euskalkien bereizketa eta, hori dela eta, antzinako tribuen mugak gaur egungo euskalkien mugekin bat datoz bete-betean[4]. Lekukotza klasikoek ere horixe

4. J. Allieres (hemen aipatua: Pagola 1991:83): "… *la différenciation dialectale serait extrémement ancienne, et les "peuples" dont parlent les historiens de l'Antiquité, a savoir les Caristii, les Varduli et les Vascones, se seraient trouvés des origines distincts par la langue. Il y aurait donc là un fait etnolinguistique essentiel, qui rappelle d'assez près la diférenciation également ethnólinguistique que l'on observe chez les grecs de l'Antiquité, où Achéens, Doriens et Ioniens se distinguaient autant par le "dialecte" que par d'autres traits culturels*".

berresten omen dute, eta tribu bakoitzaren (barduliarrak, karistiarrak, baskoiak eta autrigoiak) ohitura fonetiko eta sintaktikoekin bat datozen euskalkien berri ematen digute.

Arrazoibide guztiak aintzat hartuta, denek dute beren arrazoi-puntua. Euskalkien bereizketa erromatarren aurreko garaian hasiko zen beharbada, baina, Núñez Astrainek dioenez (2000:27), bereizketa hori ezkutuan geldituko zen "*V. eta VI. mendeetako hizkuntz batasunaren*" ondorioz. "*Elizbarrutiek beraiek ere batasun hori onartu zuten*", gainera.

Bateko nahiz besteko, eta guri dagokigun gaitik haratago joz, Lurreko hizkuntz aniztasunari begiratuz gero, faktore geografiko, historiko-politiko eta soziolinguistikoek eragindako bereizketak gertatzen dira beti. Faktore horiek dialektoen sorreran zenbaterainoko eragina duten ulertzearren, faktore bakoitza azaldu eta gure kasura ekarriko dugu.

a) *Faktore geografikoak:* hizkuntza bat mintzatzen den lurraldearen berezitasun geografikoak modu batera nahiz bestera eragiten du dialektoen batasunean eta bereizketan. Mendi, uharte, baso trinko eta zingiretara nekezago iristen dira hizkuntz berrikuntzak, oro har, eta, ondorioz, eremuotako hizkerek berezitasun arkaikoei, gainerako dialektoetan gainditutako egitura eta formei, eusten diete, normalean. Aipatutako ezaugarri geografikoek ekarri ohi duten isolamenduaren ondorioz, zaila izaten da eremu horien eta hizkuntza bera darabilten gainerako eremuen arteko komunikazioa.

   Lautadetan, eremu irekietan eta txalupan ibiltzeko moduko ibaietan, aldiz, arruntagoa izaten da eremu desberdinetako hiztunen arteko hartu-emana. Hizkuntz berrikuntzek besteenganaino iristeko modua aurkitzen dute halakoetan eta hedatu egiten dira, ondorioz.

b) *Faktore historiko-politikoak:* inguruabar historiko-politikoak ere aintzat hartu behar dira, noski. Hiri, eskualde, erregio edo erresuma baten edo besteren eraginpean egoteak hizkera batetik gertuago edo urrutiago egotea dakar, esate baterako. Gipuzkoako Oiartzun herrian nafar ezaugarriak dituen erdialdeko euskara hitz egiten da, gaur egungo Gipuzkoako ipar-ekialdeko zerrenda hori guztia garai batean Nafarroa zelako (Nafarroaren itsasorako irteera, hain zuzen ere).

   Elizaren eragina ere aipagarria da, elizbarrutiek antzinako mugak errespetatzen zituztelako normalean. Erabilitako hitzen arabera finkatzen ziren muga horiek askotan. Era berean, elizgizonek mende askotan izandako izen onaren ondorioz, haiek erabilitako hizkuntz ereduak eragin handia zuen hizkera taxutzeko garaian (Zuazo, 2003:64).

   Migrazioak, lur-banaketak eta birpopulatzeak ere aintzakotzat hartu behar ditugu, hizkuntzari lotutako eragin berriak zekarten aldetik.

Anexio politikoak ere ezin alde batera utzi. Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi Frantziaren mende gelditu zirenez geroztik isoglosa batek bitan banatzen du Euskal Herria. Hegoaldeak (Bizkaiak, Gipuzkoak, Arabak eta Nafarroak) gaztelaniaren eragina jaso du, eta Iparraldeak, berriz, frantsesarena eta gaskoiarena. Mugaren alde batean *patata* hitza erabiltzen da, adibidez, eta mugaren bestaldean *lursagarra*, frantseseko *pomme de terre* hitzaren kalkoa. Euskal Herriko lurraldeen banaketa administratiboak eta euskara herrialde guztietan ofiziala ez izateak hizkuntza areago bereiztea eta euskalkiak elkarrengandik areago aldentzea ekarri du.

c) *Faktore soziolinguistikoak:* talde-ikuspegien, gizarte-mailaren eta bestelako ezaugarrien arabera, hitz egiteko moduan eragina duten faktoreak aipatuko ditugu hemen. Euskal Herrian *baserrikumeak* eta *kalekumeak* bereizten dira, edo bereizten ziren, hobe esanda. Industrializazioaren ondorioz hiztunen artean sortutako jatorri-desberdintasunez gain, bi kontzeptu horiek hizkuntz mailako ondorioak izan dituzte. *Baserrikumeak* euskaraz eskolatu gabeak ziren eta etxean ikasitako euskara erabiltzen zuten, belaunaldiz belaunaldi irakatsitako hizkuntza zen beraiena, beraz. Hala, beren hizkuntzan alfabetatu gabeak izaten ziren askotan, eta dira oraindik. Haien ondoan *kalekumeak* edo *euskaldun berriak* (euskara eskolan ikasi dutenak) dauzkagu. Hiriari lotutako euskaldun-multzo hauek oso berriak dira oraindik, gaur egungoaren aurreko belaunaldiko pertsona gehien-gehienak baserritarrak ziren eta. Dena den, *kalekumeek* ere euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu izan dute zenbait herritan eta, hala, kaleko euskaldun ugari aurkitzen ditugu Errenterian, Beasainen, Legazpin, Arrasaten, Elgoibarren, Bergaran…

Esparru soziolinguistikoan beste bereizketa bat hartu behar da aintzakotzat: *euskaldun berrien* eta *euskaldun zaharren* artekoa, hain zuzen ere.

Euskal Herria bi eremu handitan –Iparraldea eta Hegoaldea– banatzen duen bereizketa politiko-soziala nabarmendu behar dugu. Frantziako administraziopeko lurraldeek osatzen dute Iparraldea, eta Espainiaren mende dauden herrialdeek Hegoaldea.

d) *Herri-kultura tradizionalaren biziraupena:* Herriak herriarentzat egiten duena da kultura tradizionala, eta, horregatik, kultura tradizionalean dialektoak eta tokian tokiko hizkerak erabiltzen dira normalean. Hala, tokian tokiko kontsumoa (literatura, argitalpenak, etab.) lagungarria izan daiteke dialektoei eusteko eta estandarretik kanpo gelditzen diren hizkerak berrindartzeko.

2. Euskararen sailkapenak historian zehar

Batbederak daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere mençatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den[5].

Leizarragak *Itun Berriaz* egin zuen itzulpeneko hitzaurrean erdi-ezkutuan agertzen den esaldi horrek euskarak duen hizkera-ugaritasuna islatzen da. Hiztunek beraiek azpimarratzen dute euskara euskalki askotan banatuta dagoela. Halere, hiztunak hizkuntz banaketa horren jakitun izan arren, euskara batua sortu arte ez da besteko babesik egon goi-mailako erabileretarako euskalkien gainetik zegoen hizkuntza estandarra sortzeko.

Akitaniar hilarrietan agertutako erromatarren garaiko pertsona- eta jainko-izenen zenbait idazkun eta Erdi Aroko hitz eta esaldi gutxi batzuk kenduta, XV. mendera arte itxoin behar izan zen euskaraz idatzitako testuak aurkitu arte, eta lehen testu horien artean, Etxeparek 1545ean idatzitako *Lingua primitiae vasconum* nabarmentzen da (Mitxelena 1990:66-139). Oraingoz ez da lehenagoko testu esanguratsurik aurkitu eta, hortaz, euskara inguru honetan Neolitoaz geroztik hitz egiten omen dela kontuan hartuta, mende luzeetan zehar euskarak ez du euskal kulturaren adierazpide izango zen bide idatzirik egin.

Horrek ez du esan nahi, noski, XVI. mendera arte euskarazko testu esanguratsurik aurkitzen ez badugu ere, ordura arte euskarazko literaturarik egon ez denik. Ahozko testu herrikoiek eta belaunaldien arteko transmisioak ez dute inoiz etenik izan eta, hortaz, euskarak herri-literatura goitik behera busti duela esan dezakegu, Euskal Herria guztiz elebiduna bihurtu den arte, behinik behin.

Dena den, mende luzeetan tradizio idatzirik ez eduki izanak eragina izan du, noski, euskalkien bereizketan, eta euskalki batean edo bestean oinarritutako literatur eredu desberdinak sortu dira, euskara estandarraren gabezia gainditu nahian. A. Campiónek (1884) bere gramatikan aipatu zuenez, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera izan dira herrialde bakoitzean garatutako estandar literarioak.

Xehetasunok alde batera utzita, interesgarria da jakitea euskalkien bereizketa orain arte nola aztertu izan den, euskalkiak nola sailkatu diren, sailkapenok indarrean jarraitzen duten eta gaur egun egoera zertan den.

1862 urte inguruan, Bonapartek (enperadorearen lehengusua) euskalkien lehen sailkapena zirriborratu zuen Bruno Echeniqueri bidalitako gutun batean. Euskara euskalkien ikuspegitik aztertuta zeukan Larramendik, eta haren lanak hartu zituen oinarritzat Bonapartek[6]. Eta hurrengo gutunetan buruan zerabiltzan ideiak zehazten joan zen. Euskalki batzuk literaturan erabili ez zirela ikusita, itzulpen batzuk

5. Leizarraga 1571.
6. Larramendik egindako lanari buruzko xehetasun gehiagorako, ik. Pagola 1991:99-106.

bidaltzeko eskatu zion Echeniqueri. Aurrerago, 1862ko otsailean, hauxe idatzi zion (Pagola 1991:132):

> *"Je suis de l'opinion que la langue basque possède sept dialectes, dans le sens que les lingüistes modernes donnent au mot dialecte. Je n'ai adopté cette opinion qu'aprés des études très approfondies sur le sujet* (...)*".*

Beste pasarte batean, zazpi euskalki horiek aipatzen ditu:

> *"Je compte: le biscayen du centre (dial. pour ainsi dire inculte); le biscayen littéraire des livres; le guipuscoan littéraire; le haut-navarrais (dialecte inculte); le labourdin littéraire; le bais-navarrais (dial. inculte); le souletin littéraire."*

Aurrerago, bost sailkapen eskaini zituen, irizpide jakin batzuei jarraiki, euskalkien ezaugarri guztiak muga isoglosiko batzuen barruan sartzeko. Sailkapenak egiteko ahalegin hauen berri Bonapartek bere kolaboratzaileei bidalitako gutunei esker eta hizkuntz barietate zehatzak deskribatzen zituzten argitalpen gutxi batzuei esker jaso dugu. Bi adibide, biak ere bibliografian aipatuak: *Études sur le trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal* eta *Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun etc par le Prince Louis-Lucien Bonaparte.*

Dena den, *Carte des sept provinces basques monstrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés par le Prince Louis-Loucien Bonaparte* lana 1863 arte ez zen argitaratu. Mapa horretan euskalkien banaketa argi eta garbi agertzen zaigu grafikoki, Bonaparteren laugarren sailkapena oinarritzat hartuta. Bertan, zortzi euskalki bereizi zituen eta hiru euskalki-multzotan banatu zituen: bizkaiera (lehen multzoa), gipuzkera, iparraldeko goi-nafarrera, lapurtera, hegoaldeko goi-nafarrera (bigarren multzoa) eta zuberera, ekialdeko behe-nafarrera eta mendebaldeko behe-nafarrera (hirugarren multzoa). Hona hemen maparen irudi bat:



3. mapa

Bestalde, euskalki bakoitzak benetan zuen bizitasun-mailaren berri ere ematen zuen mapak: hiztun askoko euskalkiak kolore biziagoaz agertzen ziren, eta hiztun gutxikoak, berriz, kolore apalagoaz.

Erabilitako irizpide metodologiko batzuk eta ateratako zenbait ondorio badaezpadakoak izan arren, Bonaparteren sailkapenak gaur egunera arte iraun du aldaketa gutxi-gutxirekin. Alde horretatik, aipagarria da Mitxelenak egindako analisia (Pagola 1993:163):

> *"Ez da aurrerapen handirik egin multzoen barruan azpimultzoak bereizteko irizpideak hobetzeari dagokionez; eta, nahiz eta esparru hori ez izan ongien landuetako bat, denek onartzen dute Bonapartek finkatutako euskalkien sailkapena, aldaketatxo gutxi-gutxi batzuk gorabehera, Gillierón eta besteren aurretik; ez, ordea, dialektologia erromaniko nahiz germanikoan erabilitako irizpide berberak erabiliz".*

Arturo Campiónen (1854-1937) ekarpena ere aintzakotzat hartu behar dugu hemen. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* lana argitaratu zuen Campiónek, eta euskal dialektologia aztertu zuen kapituluetako batean. Bonaparteren jarraitzaile eta kolaboratzaile zen aldetik, hark emandako sailkapen bera erabili zuen Campiónek ere, baina honek literatur tradizioa izan duten lau euskalkiak bakarrik deskribatzen ditu bere gramatikan: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera.

Aipagarria da Campiónen lana eta lan hori prestatzeko bildutako datu ugari eskaintzen ditu, gainera. Bonapartek egin zuen moduan, euskal balada bat hartu eta lau euskalki literarioetara itzuli zuen.

Arturo Campiónez gain (aipamen berezia merezi du, hark egindako lanaren garrantzi handiagatik), jarraitzaile gehiago izan zituen Bonaparteren sailkapenak: Van Eys, Vinson[7], Lacombe, etab.

Lacomberen lanari helduko diogu pixka batean. Bonapartek proposatutako euskalkiak bi multzotan sailkatu zituen hiru multzotan beharrean. Bi multzo nagusi banatzen ditu Lacombek: mendebaldeko euskara, eta erdialdeko eta ekialdeko euskara. Bizkaiera eta bizkaiera ez diren euskalkiak banatu zituen, beraz. Bizkaierak gainerako euskalkiekin zeukan erlazioari buruzko ika-mika piztu zuen sailkapen horrek. Zenbait autoreren iritziz –Uhlennbeck tartean– bizkaiera ez da euskalkia berez, alde handiegia baitago euskalki horren eta gainerakoen artean, eta, hala, haien ustez, bizkaiera beste hizkuntza bat da, ezinbestean. Mitxelenak hauxe esan zuen eztabaida horri buruz: "euskalkia da eta kito; (…). Gainera, bere berezitasuna ertzeko euskalkia izateari zor dio, gehienbat (…)" (1987:42-43).

Ika-mika hori alde batera utzita, eta euskal dialektologiari egindako ekarpenekin eta euskalkien sailkapen desberdinekin jarraituz, Resurrección Mª de Azkue aipatu behar dugu nahita ez, Euskal Herrian barrena jaso zuen ahozko eta idatzizko material eskergagatik.

Diccionario vasco-español-francés (1905) hiztegiaren hitzaurrean, Bonapartek proposatutako sailkapen bera erabili zuen Azkuek, baina aldaketatxo batzuk eginda: beste euskalki bat gehiago aipatzen du (erronkariera); goi-nafarrerako bi euskalkiak (iparraldekoa eta hegoaldekoa) bakar batean biltzen ditu (goi-nafarrera); eta gauza bera egiten du behe-nafarrerako biekin (mendebaldekoa eta ekialdekoa) ere, behe-nafarreran sartuz biak, euskalki horren azpi-euskalkitzat hartuz. Laburbilduz, zazpi euskalki biltzen ditu Azkuek proposatutako sailkapenak: bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, erronkariera, lapurtera, behe-nafarrera eta zuberera.

Mitxelenak ere –XX. mendeko euskalari garrantzitsuena– bere lekutxoa du euskal dialektologian, bere lan oparoan ataltxo bat eskaini baitzion euskalkien eta

7. Ikerlari bakoitzari buruzko xehetasun gehiagorako, ikus Pagola 1991.

euskal hizkeren azterketari. Euskalki hauek bereizten ditu Mitxelenak: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera, hegoaldeko goi-nafarrera, erronkariera eta zuberera. Bat dator, beraz, Azkuerekin, hark bezala erronkariera euskalki bereizitzat jo eta behe-nafarrera batzen baitu berak ere.

Aipatutako zortzi euskalkiak bi bloke handitan banatzen ditu Mitxelenak. Mendebaldeko multzoa aipatzen du, batetik, eta hortxe sartzen ditu bizkaiera eta gipuzkera. Gainerako euskalkiak, berriz, ekialdeko multzoan jasotzen ditu.

Euskal dialektologian egin den azken sailkapena XX. mendeko azken hamarkadakoa da eta, seguruenik, bera izan da egin denik eta sailkapenik berritzaileenetakoa. Koldo Zuazo Euskal Herriko Unibertsitateko Dialektologia eta Soziolinguistika irakasleak proposatu zuen aipatzen ari garen sailkapen hori, eta guk ere sailkapen horixe hartu dugu oinarritzat ikerlan honetan. Zuazoren arabera, bost euskalki dauzka euskarak: mendebaldeko euskara, erdialdekoa, nafarrera, nafar-lapurtera eta zuberera. Ekialdeko nafarrera ez du aipatzen, galdua dagoelako gaur egun.

Euskalki askori izena aldatu die Zuazok, haien erabilera-eremua zehazkiago zedarritzeko. Hala, aurreko tradizio osoan *bizkaiera* deitu izan denari *mendebaldeko euskara* deritzo, euskalki hori Bizkaitik haratago, Deba bailaran eta Araba ipar-ekialdean ere erabiltzen baitzen, eta ia Araba osora hedatzen zen iraganean. Irizpide berari jarraiki, *erdialdeko euskara* deritzo lehen *gipuzkera* zeritzonari, Nafarroaraino hedatzen baita euskalki hori.

Ekialdeko euskalkien sailkapenari dagokionez, gaur egunera arte euskalkiak bereizteko onartu izan diren mugak aldatzen dituzten irizpide berriak proposatzen ditu Zuazok. *Goi-nafarrera*ren ordez *nafarrera* darabil, eta hortxe sartzen ditu beste euskalki batzuetan sailkatu izan diren zenbait eremu (Baztan eta Aezkoa bailarak, adibidez). Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoa iparraldeko hizkerak nafar-lapurteran sartzen ditu. Espainiaren mendeko Nafarroaren ekialdean ekialdeko nafarrera kokatzen du, baina erronkariera eta zaraitzuera ez ditu aipatzen, 1980ko hamarkada amaieran galdu zirela eta. Iparraldean, *zuberera* terminoa erabiltzen jarraitzen du Zuberoako euskalkia izendatzeko.

Euskalkien sailkapena berregituratzeaz gain, tarteko hizkerak aztertzea izan da Zuazoren ekarpenik handiena. Hala, goian aipatutako bost euskalkiez gain, hamabi azpi-euskalki eta tarteko zortzi hizkera bereizten ditu Zuazok. Hauek dira hizkera horiek: Aezkoako hizkera, Burundakoa, Lapurdiko kostaldekoa, Gipuzkoa ekialdeko nafarreranzko tarteko hizkerak, Baztangoa, Amikuzekoa, Deba bailara iparraldekoa eta Basaburukoa[8].

8. Ik. 5. mapa, 29. or.

3. Mendebaldeko taldea vs. ekialdeko taldea

3.1. Isoglosa-multzo handiak

Isoglosek bi bloke handitan banatzen dituzte euskararen lurraldeak, askotan. Erdiguneko blokea ertzetako hizkeretatik bereizten da batzuetan, eta erdialdeko euskarak, nafarrerak eta nafar-lapurterak mendebaldeko euskarak eta ekialdeko euskalkietan agertzen ez diren ezaugarri komunak dauzkate.

Adibidez, erdiguneko eremu horretan, berezko *-a* duen hitz bati artikulua gehitzean (*-a+a*) *-a* agertzen zaigu: *luma+a> luma*. Mendebaldeko euskaran, berriz, *lumea, lumia, lumie* erabiltzen dute; zubereran eta erronkarieran, *lumá*; eta zaraitzueran, azkenik, *lumara*.

Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkien artekoa dugu beste bereizketa nagusia. Iparraldeko euskalkiek frantsesaren eragin sakon eta indartsua jasan dute, XX. mendean zehar bereziki; eta Hegoaldekoek, gaztelaniarena. Adstratuaren eragina alde batera utzita, bi bloke horiek bereizten dituzten barneko beste ezaugarri batzuk aurkitzen ditugu. *Ba-* morfemaren erabilera aipatuko dugu adibide gisa (Zuazo 2003:207). Iparraldeko euskalkietan (nafar-lapurteran eta zubereran) *ba-* aditz-aurrizkia erabiltzeak ez du ñabardurarik gehitzen, eta perpausak neutroa izaten jarraitzen du. Hala, *arbol aunitz badire* esaldian *ba-* horrek ez du morfema indartzaile gisa jokatzen.

Hirugarren multzoan mendebaldeko euskalkiak eta erdialdeko euskalkiak aurkitzen dira aurrez aurre, eta bereizketa horrexeri helduko diogu guk hemen.

3.2. Mendebaldeko eta ekialdeko taldeen alderaketa

Mendebaldeko euskara eta ekialdeko euskara sartzen ditugu mendebaldeko taldean, hainbat ezaugarri fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexiko berdin dituztelako. Atal honetan euskalkiak mendebaldeko eta ekialdeko taldeetan sailkatzeko erabilitako ezaugarriak aipatuko ditugu, beraz.

3.2.1. Fonologia

Mendebaldean, azentuaren bidez bereizten diren hitz-bikote ugari aurkitzen ditugu. Multzo honetan, azentua fonologikoa dela ere esaten dute zenbait autorek. Mitxelenak, adibidez, hori azaltzen duen zerrendatxo bat (1990) osatu zuen. Dena den, guk hemen adibide bakarra emango dugu, azaltzen ari garena argitzeko: *básua* "edalontzia" eta *basúa* "oihana" azentuagatik bereizten dira.

Azentuaz gain, *-i* eta *-u* fonemetan amaitzen diren hitzei artikulua eranstean, diptongoa sortzea galarazten duen kontsonante bat gehitzen zaie, ñabardurak ñabardura. Adib.:



4. mapa

herri+a > erdialdeko euskara, *erriya*; mend. *erridxe*[9]

buru+a > erdialdeko euskara, *buruba*

Ekialdeko blokean, aldiz, *ez* dirudi azentua fonologikoa denik, nahiz eta zenbait autorek zalantzak izan horren inguruan (Zuazo 2000:95). Gainera, goranzko diptongoak (*itsáswa)* arrunt samarrak dira bloke horretan. Era berean, gehikuntza *ere ez* da ohikoa izaten: *esnéa*, *besóa* (Zuazo 2000:86), etab.

Halere, ekialdeko taldearen barruan beste era bateko bokal-asimilazioak gertatzen dira hizkera batzuetan. Nafar-lapurteran *-u* bokalaz amaitzen diren izenak, adibidez, erronkarieran eta zubereran bokal horren tinbrea aldatu eta [wj] ahoskatzen dira lehen estadio batean edo [i], bestela. Nafarroa sartaldeko hizkeretan, hortaz, *buru+a* [‘burja] ahoskatzen da eta Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin, berriz, [‘burja] (ik. Zuazo 2003:196).

3.2.2. Morfologia

Oso antzekoak dira mendebaldeko taldeko eta ekialdeko taldeko izenen morfologia. Dena den, ezaugarri-multzo bat nabarmendu behar dugu hemen.

9. Adibidea hemendik aterea: Zuazo 2000:19.

a) *Norbait* izenorde mugagabea *baten bat* esaten da mendebaldeko hizkera batzuetan. Ekialdean, *bakarren bat* erabiltzen da Nafarroa mendebaldean, eta ekialdean, berriz, *norbait* orokorra bakarrik.

b) Adjektibo predikatiboak forma mugagabean agertzen dira beti, edo partitiboan, baina inoiz ez absolutuan, ekialdean bezala. Adib.:

Mendebaldeko blokean, *onetarako gorde zaitut bizirik*[10] [11]
Ekialdeko blokean, *iustu-iustue bizi dire*[12].

c) Bi taldeak bereizten dituen beste ezaugarri bat: *utzi*, *eman*, *ahalegindu/saiatu*, *hasi*, *lagundu* aditzekin doazen aditz-izenek hartu beharreko erregimena. Mendebaldeko blokean aditz-izenak NON kasuan joan behar dute aditz horiekin:

... ge(r)o ola txalupa kamionen e(r)amaten asi zianen[13]

Ekialdeko taldean, aldiz, aditz horiek adlatiboa eskatzen dute normalean (ik. Ibarra, in Zuazo 2000:169). Adib.:

...ea zergatik Iainkoak hiri hura desegitera eta bilhakatzera utzi zuen[14].

d) *-ón* atzizki erromanikoa berdin-berdin garatzen da mendebaldeko talde osoan, eta *-oi* bihurtzen da: *meloi*; ekialdeko taldean, aldiz, ez dago batasunik. Nafarreran, *-on* aurkitzen dugu: *melon*, nafar-lapurteran, *-oin: meloin*, eta zubereran, *ú: melú*[15].

e) *-(c)ión* atzizki erromanikoak, aldiz, ez du forma bakarra mendebaldean (erd. *-(z)io*; mend. *-(z)iño*). Bestalde, Iparralde osoak eta Nafarroa iparraldeko zenbait eremuk bat egiten dute *-(z)ione* forman.

f) *-tza/tze* atzizki nominalizatzaileak ere (Mitxelena 1990:111 eta 500) bi bloke bereizten direla erakusten digu. *-tza* mendebaldeko taldeko hizkeretan erabiltzen da: *bizitza, heriotza*, etab.

---

10. Euskalki bakoitzeko gaur egungo behar beste testu aurkitzeko zailtasuna ikusita, XIX. mendeko batzuk erabili ditugu XX. mendekoekin batera, hemen azaldu nahi ditugun ezaugarri dialektalak han agertzen baitira dagoeneko eta, gainera, gaur egunera arte iraun dute.
11. *Irteera* (9, 16), J. A. Uriartek itzulia, in Bonaparte.
12. Adibidea hemendik aterea: Zuazo 2003:182.
13. Iturain 1995:205.
14. *Guero* (2, 129).
15. Xehetasun gehiagorako, ik. Mitxelena 1990:147-149.

Adib.:

… nik Anduko bizitza bastante eukitzet gogon[16].

Ekialdean, aldiz, *-tze* atzizkia darabilte: *bizitze, heriotze*, etab.

Adib.:

… utzi duen bizitze presturat[17].

h) Mendebaldeko taldeko *-dade* atzizkia eta ekialdeko *-tate* atzizkia. Adib.:

Mend. taldean: mendebaldeko euskaran, *Sartu nendun ardaoaren gelan, aztertu eban nigan karidadea*[18].

Eki. taldea: nafar-lapurteran, *Libertatezko oihu bat aditzen da*[19].

Izen-morfologia alde batera utzi eta aditz-morfologiari helduko diogu orain. Atal honetan, ezaugarri hauek hartu behar ditugu kontuan:

a) **edun* aditzak *-o-* erroa hartzen du mendebaldeko euskaran eta *-e-* erroa erdialdeko euskaran. Ez dago forma komunik, beraz. Adib.:

Erdialdeko euskara, *razonatu (e)re (eg)in be(ha)r det*[20].

Mendebaldeko euskara, *etxetik urtekeran ankie okertu'ot*[21].

Ekialdeko taldean, berriz, *-u-* erroa erabiltzen da beti. Adib.:

Nafarreran, *ene familien eztut zautu*[22].

b) Aditz trinkoen lehenaldiko formetan *-e-* erabiltzen da mendebaldekoan: *zegoen, zebilen, zekien* (Zuazo 2000:183-184); ekialdekoan, *zagoen, zabilen, zakien* (Sagarzazu 2005:75).

c) Geroaldiko atzizkia *-go* da mendebaldean: *joango*. Ekialdean, *-en: joanen*.

16. Iturain 1995:194.
17. *Guero* (2, 71).
18. *Salomonen kanten kantea* (2. eta 4. kap.), in Bonaparte.
19. *Atheka-gaitzeko oihartzunak* (1. kap.), in Bonaparte.
20. Iturain 1995:200.
21. Zuazo 2003:76.
22. Zuazo 2000:167.

Adib.: Mend. taldea: erdialdeko euskaran, *Oyartzuna ordun eamango nazu*?[23]

Eki. taldea: nafarreran, *baino bai argitua izain da*[24].

d) Ahaleraren forma perifrastikoa *ahal/ezin* + partizipioa erabiliz eratzen da mendebaldean: *ezin naiz joan*. Ekialdean, aldiz, *ahal/ez ahal* + aditz-izena *-ten* erabiltzen da: *ez naiz joaten ahal*.

3.2.3. Morfosintaxia

a) Ezezko aditz nagusi baten mende dauden mendeko perpaus konpletiboetako aditzek partitiboko *-enik* atzizkia hartzen dute mendebaldeko taldea:

Mendebaldeko taldea, *ez dot pentsatzen egoten direnik*.

Berrikuntza hori ez da ekialdeko hizkeretan agertzen, ordea, baiezko perpausetako atzizki berbera erabiltzen baitute han: *-ela*.

b) Mendeko denborazko perpausak *-(e)la* eta *-(e)nean* atzizkiekin eratzen dira mendebaldeko taldean, eta *-(e)larik* atzizkiarekin, ekialdekoan. Adib.:

Mend. taldea: erdialdeko euskaran, *Etxeforua botatzentzutenian e ola korrika lanea, alegri geyo zeon*[25].

Eki. taldea: nafarrera, *Ola zikintzen dela(r)ik tipulek ere altxur ttar bateki kentzen dut*[26].

c) Mendeko kausazko perpausek *-(e)lako*, *-ko*, *-teko* hartzen dute mendebaldeko blokean, eta ekialdekoan, berriz, *-(e)lakotz*, *-kotz*, *-tekotz*. Adib.:

Mend. taldea: erdialdeko euskara, *ordua bukatzeko bos miñutu faltaia*[27].

Eki. taldea: nafarrera, *amak eror aldi bat ederra artu zuelakoz*[28].

---

23. Fraile 1996:194.
24. *Goyenecheren sermoiak*, in Bonaparte.
25. Olartegi 1997:55.
26. Zuazo 2000:168.
27. Iturain 1995:201.
28. Udako Euskal Unibertsitatea 1983:252.

d) Mendebaldeko taldean, balio indartzailea du *egin* aditzak. Bi perpaus hauek ez dute esanahi bera: *ardik kendu in giñun* (Iturain 1995:199) eta *ardik kendu giñun.*

3.2.4. Lexikoa

Gorago aipatu dugunez, batasun handia du euskarak. Lexikoa izango da esparrurik heterogeneoena, seguruenik, baina, halere, ukaezina da lexiko ugaria partekatzen dutela euskalki guztiek. Lexikoa ez denez ez gure ikerketaren aztergai nagusia ez kapitulu honena, Zuazok osatutako zerrenda (2003, 161-164) aztertzea gomendatzen dugu.

Lexikoa ere bi euskalki-bloketan banatuko dugu. Azalpena arintzearren, Bonapartek osatutako zerrenda (1877 in Zuazo 2003:187) ekarri dugu hona, Mitxelenarengan (1997) aurkitutako izenekin osatuta:

Mend. taldea / Eki. taldea
Agindu / manatu
Alkandora / atorra
Arkakuso (*mend.* ardi) / kukuso
Arotz / zurgin
Asko / asko, anitz
Aurre eta atze / aitzin eta gibel, aurre eta atze
Barre (*erd.* parre) / irri
Barru / barne
Baso / oihan
Bertan / berean
Bi / bi eta biga
Eiza / ihiza
Esan / erran
Errementari / arotz
Eskerrak! / beharrik!
Eskuare / arrastelu
Ezer / deus
Gogoratu / oroitu
Ipui(n) / istorio
Kale / karrika
Kirikino (*erd.* trikua) / sagarroi
Koipe / urin
Ondo eta hobeto / ongi (*Naf., Lap., Zub.* untsa) eta hobeki
Ostu (*erd.* lapurtu) / ebatsi
Saguzar / gauenara

3.3. Tarteko eremuak

Dakigunez, dialektoak ez dira homogeneoak. Dialektoen arteko muga ez da zurruna izaten eta dialekto batetik besterako aldaketa sotil samarra izaten da. Dialektoen ezaugarriak aztertzeko isoglosa-multzoak hartu behar dira oinarritzat. Batzuetan isoglosa horiek bat datoz bete-betean eta muga argi samarra marrazten dute; beste batzuetan, ordea, ez datoz bat, eta halakoetan zailagoa izaten da aztergai dugun hizkera dialekto batekoa edo bestekoa den zehaztea.

Tarteko eremuetan bi aldaera dialektalen edo gehiagoren tartean dauden hizkerak aurkitzen ditugu, hain zuzen ere. Hala, mendebaldeko aditz-morfologia eta, aldi berean, erdialdeko ezaugarri asko dituen hizkera aurki dezakegu, Elgoibarko euskararen kasuan, esaterako.

Hauek dira Zuazok (2003) aipatzen dituen tarteko hizkerak:

a) Elgoibarkoa, Mendarokoa eta Mutrikukoa. Administratiboki Gipuzkoan daude herri horiek, baina erdialdeko euskarara jotzen duten mendebaldeko hizkeratan mintzo dira bertan. 5. mapan (29. or.), 1. eremua.

b) Hondarribia, Irun eta Oiartzun, Gipuzkoan, eta Arano, Leitza, Lekunberri, etab., Nafarroan. Berez, erdialdeko hizkerak dira, baina erdialdeko euskaratik nafarrerarako joera markatzen dute. 3. zenbakia, 5. mapan (29. or.).

c) Burunda, Aezkoa eta Baztan bailarak euskalki desberdinetaranzko tarteko eremuak dira. Burundak (2. zk. mapan) nafarreratik mendebaldeko euskararanzko tarteko hizkera du eta, hala, hiru euskalkien ezaugarriak ditu. Aezkoak, berriz, nafarreratik nafar-lapurteraranzko eta ekialdeko nafarreranzko trantsizioa markatzen du (beheko mapako 7. zk.). Azkenik, Baztangoa nafar-lapurterarantz jotzen duen tarteko nafar hizkera da (5. mapako 5. zk. (29. or.).

d) Nafar-lapurteraren barruan, tarteko bi hizkera daude: kostaldekoa (5. mapako 4. zk.) eta Amikuzekoa. Lehenak nafar-lapurteraren, nafarreraren eta erdialdeko euskararen ezaugarriak ditu; bigarrena, berriz, zubereraranzko tarteko nafar-lapurtera da (6. zk.).

B ZATIA: ERDIALDEKO EUSKARA, TARTEKO HIZKERAK ETA UKIPEN-HIZKERAK

4. Erdialdeko euskara

Tradizionalki *gipuzkera* nahiz *giputz* izenez ezagutu izan diren hizkerak sailkatzen dira erdialdeko euskararen barruan (Zuazo 2003:115-144). Beterri eta Tolosaldea dira dialekto horren gune nagusiak, haien hiriburuekin batera. Hiriburu



5. mapa

horiek eragin nabarmena izan dute inguruko herri eta herrixketan. Bi eskualde horietan hainbat biztanle-gune sortu ziren: Andoain, Hernani, Errenteria, Pasaia, Lezo, etab. Hala, Beterri-Tolosaldeko euskara hedatuz joan zen, eta hizkera hori zerabilten bi hiriburuak entzute ona hartzen joan ziren Euskal Herri osoan, hainbat arrazoi tarteko.

Erdialdeko euskara euskalki estandar gisa proposatu zuen Azkuek, hainbat arrazoirengatik, eta gogoeta hauek egin zituen horri buruz[29]:

> *"Euskalki honen garrantzia* [erdialdekoaz ari da] *ez zaio zor ez bere hiztegi oparoari, ez bere garbitasun handiagoari, ez euskalki*

29. Hemen aipatua: Pagola 1991:178.

> *horretan antzinako dokumentu ugari egoteari, beste zerbaiti baizik: euskalki hori erabiliz bazter desberdinetako euskaldunok hobeto ulertzen diogula elkarri, beste edozein euskalki erabilita baino. Gainera,* Prontuario de la lengua vascaren *hitzaurrean esan nuenez, geografiari nahiz hizkuntzari dagokionez erdi-erdian dagoen euskalki da hori. Literarioki ia erabat batuta egonik, errazagoa da ikasteko, eta hori ere bere alde du".*

Azkueren proposamena ez zuten onartu eta, hortaz, *gipuzkera osatua* zeritzona, hau da, erdialdeko euskara beste euskalkien ekarpenekin aberastuta, ez zen aintzakotzat hartu. Nolanahi ere, azkenean (handik gutxira) eratu zen euskara batua erdialdeko euskalkian oinarritu zen gehienbat, aditzei dagokienez bereziki, eta eredu hori ez da askorik aldentzen Azkuek proposatu zuenetik. Erdialdeko euskararen hiztunak gainerakoek errazen ulertzen zituztenak izanik, euskalki horixe hartu zen euskara batuaren oinarritzat (Zuazo 2003:115).

4.1. Erdialdeko hizkeren ezaugarri orokorrak: hedadura geografikoa eta sailkapena

> "*Oso ezaugarri berezi gutxi dituen euskalkia da erdialdekoa. Azken batean, tarteko eredua da bete-betean. Mendebaleko euskara, nafarrera eta nafar-lapurtera ditu aldamenean, eta erlazioa dauka hiru eredu horiekin*"[30].

Hainbat lurraldetan erabiltzen da erdialdeko euskara. Batetik, administratiboki Gipuzkoaren barruan dauden eskualde guztietan dago hedatuta, Deba bailaran izan ezik, mendebaldeko euskara baita hangoa. Gipuzkoatik kanpo, Nafarroara hedatzen da sartaldetik, eta Aranoko, Aresoko, Araizko eta Larraungo hizkerak, adibidez, oso gertu daude gipuzkeratik.

Euskal Herriko gainerako lurraldeetan ez bezala, Gipuzkoan ez da gertatu hiri batek edo bik hizkuntz eredu gisa jokatzea, alderantziz baizik. Herri handi ugari daude, eta haien inguruan eskualdeak sortu dira. Eragin-gune horietako bakoitzak eskualde osora hedatu den euskara eredua esportatu du. Eredu horietako garrantzitsuenak aipatzen ditu Zuazok (2003:136-137): Irun-Hondarribia, Lezo-Errenteria-Pasaia, Donostia, Hernani-Andoain, Tolosa, Beasain-Ordizia, Urretxu-Zumarraga-Legazpi, Azkoitia-Azpeitia, Arrasate, Bergara-Eibar-Elgoibar.

Hori kontuan izanik, erraz ulertzen da Gipuzkoako hizkera-ugaritasuna "*…eta euskalkiaren eremu guztian betetzen diren hain ezaugarri gutxi izatea*"[31].

---

30. Zuazo 2003:141-142.
31. Zuazo 2003:137.

Zuazok erdialdeko hizkerak sailkatzean, hiru azpi-euskalki bereizten ditu (Zuazo 2003:137-138). Tolosaldeko eta Beterriko hizkerek erdiguneko azpi-euskalkia osatzen dute; nafarreraranzko tarteko hizkerek (Basaburua, Larraun, Imotz, Hondarribia, Irun eta Oiartzun), berriz, sortaldekoa; Goierriko eta Urolaldeko euskarek, azkenik, sartaldeko euskalkia osatzen dute.



6. mapa

4.1.1. Fonologia

I. Inbentario fonologikoa

> "Euskararen barietate gehienek gaztelaniaren antzeko bokal-sistema soila dute, bost fonema eta hiru irekiera-mailarekin: */i,e,a,o,u/. Zubererak eta haren gertuko hizkerek aurreko fonema ezpainkari bat daukate, gainera: /ü/. Euskararen eta gaztelaniaren bokalen arteko antzekotasuna ez da sistemara mugatzen soilik, fonemak gauzatzeko moduan ere bat datoz eta"* (Mitxelena 1977:47).

Esaldi horiekin hasten da bokalismoari dagozkion xehetasun orokorrei buruzko kapitulua, Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* liburuan. Baieztapen horrekin, azal-azaletik jorratuko dugu gai hau eta gaztelaniatik bereizten diren fonemak aipatuko ditugu bakarrik. Euskara osorako eredutik bereizten diren erdialdeko fonemak gauzatzeko modua xeheago azalduko dugu, halere.

Erdialdeko euskararen berezitasunetako bat da latineko *p-/b-* fonemak *p-* fonemarekin ordezkatzea, kasu gehien-gehienetan. Gainerako euskalkietan *b-* fonema nagusitzen da. Euskara arruntean *pacem* maileguak, adibidez, bi modutara eboluzionatu du: *bake*, oro har, eta *pake*, gipuzkerako zenbait hizkeratan (Mitxelena 1990:242-243). *f-* fonemarekin hasitako maileguekin ere joera bera aurkitzen dugu, euskarak ez baitu /f/ fonema berezkoa eta, zenbait hitzetan (*afaria, ifarra, Nafarroa* eta *nafarra*) agertzen bada ere, hura saihesteko joera da nagusi. Hala, erdialdeko euskaran *aparia, iparra, Naparroa, naparra*, etab. entzuten dira. Zenbait kasutan, *p-* aurkitzen dugu euskarazko *b-* fonematik sortua. Adibidez: *barre*, euskara arruntean, eta *parre*, erdialdeko euskaran.

Erdialdeko euskara gainerako hizkeretatik gehien bereizten dituena /χ/[32] fonema da, seguruenik. Hasierako */j/ fonema komunak eboluzionatzean hainbat forma autoktono eman ditu. Mendebaldeko euskaran gehien hedatutako eboluzioa aurkitzen dugu: [j], *juan,* [dʒ]-ren ondoan zenbait lekunetan (*ana*[dʒ]*e*); erdialdekoan: [χ], [χ]*akin*; nafarreran eta nafar-lapurteran arkaismo-joera handieneko forma gorde dute: [j], *juan*; ekialdeko nafarreran: [ʃ], [ʃ]*oan*; eta zubereran: [dʒ], [dʒ]*un*. Dirudienez, gaztelaniako soinu hori erdialdeko euskarak bakarrik mailegatu du[33].

Bestalde, /h/ fonema ez da erdialdeko sistema fonologikoan ageri, nahiz eta, *joan* aditzaren hirugarren pertsonan, hasperen horren arrastoak egon oraindik. Hasperen horrek /χ/ fonemarekin bat egin izan du askotan, eta berrikuntza hori azkar batean hedatzen ari da gaur egun. Hala, erdialdeko *dihoa* [di'χua]/[di'χoa] ahoskatzen da.

Gainerako bokal- eta kontsonante-fonemak gainerako euskalkietan daudenen berdinak dira.

II. Prozesu fonologikoak

Erdialdeko prozesu fonologikoak hizkuntz eredu osoan agertzen dira. Adibide batzuk aipatuko ditugu jarraian. Bokal-itxiturak: e>i: *beldur*etik *bildur;* o>u: *non*dik *nun*; bokal-irekidurak: e>a: *ederki*tik *e(d)arki*, *eguerdi*tik *eguardi*; hiato eta diptongo sinplifikatuak: *da*(*g*)*o*> *do, nauzu*> *nazu*, etab.

---

32. Berez, Gipuzkoa mendebaldeko hizkeretan eta Bizkai eta Gipuzkoa arteko eremuetan ere erabiltzen da /χ/ fonema.

33. Echenique 1997:93-94. Dena den, [χ] erdialdeko euskaratik haratago erabiltzen da, Echeniquek dioen bezala, Gipuzkoako mendebaldeko hizkeretan eta Ondarroako, Markinako eta Gernikako euskaretan ere agertzen baita.

Prozesu fonologikoez ari garela, hasierako eta amaierako bokaletan eragina dutenak nabarmenduko ditugu orain. Hala, /r/-rekin hasten diren hitz askotan bokal protetikoak erabiltzen dira. Euskaran nekez aurkituko dugu kontsonante horrekin hasten den hitzik, eta maileguek bokal protetikoa hartu behar izaten dute hitz-hasieran, euskararen egitura fonologikora egokitzeko: *errenta*, *arrosa*, *arratoia*, etab.

Bigarren kasuan, amaierako bokaletan eragina duten prozesuen kasuan, izenei artikulua gehitzen zaienean gertatzen dena aztertu beharra dago. Banan bana aztertuko dugu kasu bakoitza:

a) -*a*n bukatzen diren hitzak: halakoetan, gehienetan *a+a>a* egiten bada *ere*, *ez* dugu forma bakarra aurkitzen, eta [ia], [ea], [a:] formak *ere* erabiltzen dira. Adib.:

alaba+ –a>
alaba
alabia
alabaa
alabea



7. mapa

b) -*e*n bukatzen diren hitzak: *ez* dago bilakaera komunik, hiru hauek baizik: [ia], [ea], [ie]. Halere, bi eremu handi bereizten dira:

aste+ –a>

astia
astea
astie



8. mapa

c) *-on* bukatzen diren hitzak: alofonoen banaketa 2. puntuan aipatu dugunaren berdin-berdina da. Hala, iparraldeko eremuan O+A [ua] bihurtzen da; hegoaldean, [oa]; eta ekialdean, eremu txiki batean [ue] erabiltzen dute.

asto+ –a>

astua
astoa
astue

d) *-un* bukatzen diren hitzak: soinu-multzo horrek bat egiten duenean, hiru bilakaera hauek aurkitzen ditugu: [ua], [uba] eta [ue].

altu+ –a>

altua
altuba
altue



9. mapa

e) *-in* bukatzen diren hitzak: bost soluzio aurkitzen ditugu hemen: [ica], [ija], [iʃa], [ie] eta [idʒa].

herri+ –a>

herridda [ica]
herrija [ija]
herrixa [iʃa]
herrie [ie]
herridxa [idʒa]



10. mapa

Azaldu berri dugunari jarraiki, esan beharra dago erroaren eta artikuluaren artean diptongoa sortzea galarazten duen soinu-bereizketa ez dela kasuotan bakarrik gertatzen, /i/ eta /u/ fonemak beste bokal batzuen aurrean egokitzen direnean ere, horixe bera gertatzen baita. Hala, *bihotza* izena *bi*[*j*]*otza* ahoskatzen da; *Orio*, *Ori*[*j*]*o; bihar, bi*[*j*]*ar*, etab.

Aurretik agertzen den /i-u/ bokal baten eraginez /a/ ixtea dugu beste ezaugarri aipagarri bat, nahiz eta erdialdeko euskara osoan ez agertu. Mendebaldeko euskalkian eta nafarreraren zati handi batean ere agertzen da itxitura hori. Hala, *ikasi* hitza, adibidez, *ikesi* ahoskatzen da zenbait hizkeratan, eta *dirua*, *dirue*. Esan dugunez, itxiera hori ez da hizkera guztietan azaltzen eta zenbait kasutan ez da sistematikoa, gainera[34]. Izan ere, iparraldeko zerrendako herri gehienetan (Zarautz, Aia, Hernani, Asteasu, Astigarraga, Donostia, Oiartzun, Irun, etab.) itxiturak ez du eraginik.

Bukatzeko, amaierako bokaletan eragina duten prozesu fonologikoez ari garela, analogia aipatuko dugu. Berezko *-a*rekin amaitzen diren hitz askok galdu egiten dute *-a* hori mugagabean, kontsonantean amaitzen diren hitzekiko analogiagatik (*bihotz* da forma mugagabea, *-a* erantsita, berriz, *bihotza* da forma mugatua). Eredu horri jarraiki, *gauz* aurkitzen dugu *gauza*ren ordez, amaierako *-a* hori artikulua delakoan, hitzaren berezko osagaia dela konturatu gabe.

34. Camino, I. "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko", in Zuazo 2000:66.

III. Bustidura

Herskari hobikariekin, sudurkari hobikariekin eta albokari hobikariekin egiten da bustidura. Fonema horiek guztiak sabaikaritu edo busti egiten dira /i/ bokala ondoan dutenean. Hala, *ginen* aditz laguntzaile iragangaitz burutua sudurkari busti batekin ahoskatzen da [ʼgiɲen]; *ilea*, berriz, [iʼʎea]/[iʼʎia] ahoskatzen da; eta herskariei dagokienez, *ditut* (*ukan* aditzeko lehen pertsona, 3. pertsona pluraleko objektu zuzenarekin), [diʼcut]/[cut].

Txistukariak ere –igurzkariak nahiz afrikariak– busti egiten dira. /i/-ren ondoan txistukariek bustidura egiten dute. Dena den, fonetika sintaktikoarekin batera, bustidura afektiboak, ironikoak eta gutxiespenekoak dauzkagu (Zubiri 2000:301). Igurzkarien kasuan, *xintxuak* [ʃiɲ'tʃuak] *zintzoak*en ordez, *nexka* ['neʃka] *neska*ren ordez eta *xamarrak* [ʃa'marrak] *samarrak*en ordez aurkitzen ditugu, adibidez, eta afrikatuen kasuan, *antxa* ['aɲtʃa] *antza*ren ordez, *e(ra)kutxi* ['ekutʃi] *erakutsi*ren ordez, etab.

IV. Bokal-erortzea ahultzearen ondorioz

Nafarreraren azentua erromanikoaren oso antzekoa da eta, hortaz, silaba tonikoa da bortitza. Erdialdeko euskaran, berriz, normalean ez da ahultzearen ondoriozko sinkoparik[35] agertzen.

Halere, soinu batzuk erori egiten dira bokal artean daudenean, adibidez: dardarkari bakunak: *dira* ['dia]; herskari belar ahostunak: *egin* [e'in]/[in]/[i/]; eta herskari hobikariak: *uste det* [us'te:t].

Amaierako /n/ ere soinu ez-egonkorra da erdialdeko euskaran, hitz-amaieran galdu egiten baita zenbait hitzetan. Amaieran *-ain* duten zenbait hitzekin gertatzen da hori, esate baterako: *arrain*> *arrai*, *zain*> *zai*, *dohain*> *dohai, orain*> *orai*, etab. Amaierako sudurkari horrek aditzean duen jokamoldea aipatuko dugu aurrerago.

V. Kontsonanteen alofonoak

Fonetika sintaktikoko fenomenoen barruan, aipagarria da igurzkari apikari-hobikari ahoskabearen (euskal grafian, <z>) atzetik agertu ohi diren kontsonanteen jokamoldea azaltzea. Izan ere, fenomeno sintaktiko horiek kontsonante-alofonoak sortzen dituzte askotan, inguruko soinuen eraginez.Funtsean, herskariak ahoskabetu egiten dira[36], eta hori euskalki guztietan gertatzen da. Igurzkaria herskari baten

35. Nafarreraren azentuari dagokionez, Mitxelenaren artikulu hau irakurtzea komeni da: "Acentuación alto-navarra", in *Fontes Linguae Vasconum,* 1976, VIII, (147-162. or.), eta geroago in Mitxelena 1987:245-260.

36. Bestalde, eta hemen herskarien aldaketa alofonikoak bakarrik aztertuko ditugun arren, aipatzekoa da igurzkari apikari-hobikari hauek galdu egiten direla, jarraian sudurkaria duten kasuetan. Hala, *ez naiz enaiz* bihurtzen da eta *ez nuen, enuen*.

ondoan egokitzen denean, herskaria ahoskabetu egiten da, haren ozentasuna edozein dela ere. Adib.:

Ez ge(r)a --> ezke(r)a.

Ez bada --> ezpa(d)a.

Erdialdeko zenbait hizkeratan, bai eta mendebaldeko eta nafarrerako zenbait hizkeratan ere, herskari hobikari ahostunak jasaten duen errotazismoa da herskarien alofonoen beste adibide bat (Mitxelena 1990:227-228). Erdialdeko euskarako adibideak: *a(g)uro* (<*agudo*) eta *amodio* (<*amorio*).

Azkenik, /n/ sudurkariaren eraginez agertzen diren alofonoak aipatu behar ditugu. /n/ kontsonanteak beste kontsonante baten aurrean eragindako sonorizazioa daukagu, batetik. Adib.: *entzun+ko> entzungo*; *joan (e)ta > jun da*, etab. Bestetik, /n/ fonemak (baita /l/ eta /r/ fonemek ere) herskaritik igurzkarira eragiten duen aldaketa daukagu. Hala, erd. [χ]*un zan* sintagma, adibidez, [χ]*un tzan* ahoskatzen da. Era berean, *etorri ahal ze(r)a*ren ahoskera *etorri* [*a:l*] *tze(r)a* da eta *behar zu(e)n*ena *behar tzu(e)n*. Artikulazio-modua igurzkaritik afrikatura igarotzen da, beraz.

4.1.2. Morfologia

Euskara hizkuntza eranskaria da. Izenaren nahiz aditzaren morfologian, ezaugarri morfosintaktikoak adierazten dituzten morfema batzuk agertzen dira, erroari erantsita.

Euskararen berezitasunetako bat da hori eta, hortaz, euskalki guztietan agertzen da. Euskalkien arteko desberdintasunak hizkera bakoitzean aukeratutako morfemetan, morfemen aldaeretan eta morfema bakoitzak izandako bilakaeran agertzen dira. Geroago azalduko dugu hori xeheago. Puntu horretan, beste askotan bezalaxe, nabarmena da euskararen barne-batasuna eta hizkeren oparotasun handia, aldi berean.

I. Izen-jokoa. Izen-sintagmaren egitura

Funtzio sintaktikoak adierazteko, substantiboari, adjektiboari eta determinatzaileari eransten zaizkion postposizio batzuk daude euskaran. Beste hizkuntza batzuetan ez bezala, izenaren morfologia sintagmatikoa du euskarak eta, hortaz, eskuin-eskuinean dagoen elementuari eransten zaio *postposizioa*.

Izen sintagmaren egitura berdina da euskalki guztietan:

IS + ADJ + I+ ADJ+ MUG

Euskarako izen sintagmaren egitura orokorraren aurkezpentxo orokor hau egin eta gero, erdialdeko euskarak alor honetan dituen berezitasunak azalduko ditugu jarraian.

a) Izena

Euskarako izen arruntek bi forma dituzte: 1) mugatua (singularra eta plurala) eta 2) mugagabea.

Gorago aipatu ditugun fenomeno fonetikoak alde batera utzita, izenaren deklinazioak ez du aldaera handirik.

b) Mugatzaileak

• **Artikulua:** Euskarako artikulu mugatua *-a* morfemaren bidez adierazten da singularrean, eta *-ak* morfemaren bidez pluralean, gorago dagoeneko esan dugun bezala. Erdialdeko euskaran, artikulua ez da aldatzen, *semik* eta *gurasuk*[37] (-e+aKonts> iaKonts> iKonts -o+aKonts> uaKonts> uKonts) moduko murrizketez eta /i-u/ren eraginez /-a/ /-e/-n ixtea ez bada.

Bat/batzuk artikulu mugagabeak ere antzera jokatzen du. Hemen ere /-a/ /-e/-n ixten da, /i-u/ren eraginez: *erdaldun bet* daukagu, beraz, *erdaldun bat*en ordez. Halere, mugatzaile hori herskari ahostun batekin hasten denez eta, fonetika sintaktikoari jarraiki, herskaria bokal artean gelditu eta erortzen denez, aglutinazioa gerta daiteke. Adib.: *pixkat* esaten da, *pixka bat*en ordez.

• **Erakuslea:** Erakusleak izenaren eskuinean agertzen dira euskalki guztietan, mendebaldeko euskaran izan ezik, eta izen-sintagma ixten dute, artikuluak edo beste kasu gramatikalen batek (postposizioek adibidez) ixten dutenean izan ezik. Dena den, erabilera enfatikoa nahi izanez gero, izenaren aurretik jar daiteke.

Mugatzaile erakusleek beren deklinabide berezia dute. Deklinabide hori izenaren berdina da, kasu gutxi batzuetan izan ezik. Ez ditugu kasu guzti-guztiak zehaztuko; izan ere, itxiturak, kontsonante-ahultzeak, sinkopak, izenaren deklinabide-marken aldaera morfologikoa kontuan izanik, erakusleak ez dakar inolako berrikuntzarik.

Dena den, erakusleak azpimarratzeko erabiltzen den *-xe* morfema aipatu behar dugu hemen:

...etxe ho(r)ixe ikusi gen(d)u(e)n.

37. Camino, I. *Abiaburu bat Donostiako euskara aztertzeko*, 1997; in Zuazo 2000:66.

• **Zenbatzaileak:** Euskalki guztietan izenaren aurretik jartzen dira zenbatzaileak (*bi etxe, hiru etxe*, etab.), *bat* izan ezik, hori izenaren atzean jartzen baita, *etxe (b) at*. Erdialdeko euskaran (mendebaldeko blokeko euskalkien barruan dagoen aldetik) mendebaldeko *hiru* eta *lau* zenbatzaileak erabiltzen dira. Forma horiek ekialdeko *hirur* eta *laur* forma zaharren kaltetan hedatu dira, eta azken horiek dagoeneko ez dira inon erabiltzen. Dena den, *bost* zenbatzailearen kasuan bi formei eusten zaie: *bost/bor(t)z* (ekialdeko blokekokoa).

Zenbatzaile ordinalei dagokienez, denak jartzen dira izenaren aurretik eta *-(g) arren* atzizkiarekin osatzen dira: *bi*(*g*)*arren*, *hiru*(*g*)*arren*, etab.

Zenbatzaile banatzaileen kasuan ere aldeak aurkitzen ditugu bi blokeen artean: *-na/-ra* mendebaldean eta ekialdean, hurrenez hurren. Adib.: *seina, zortzina*, ..., eta *seira, zortzira*, etab.

• **Kuantitatiboak:** Erdialdeko euskarako mugatzaile kuantitatibo garrantzitsuenak hauek dira: *guzti/guzi, oso, pilo bat*, genitiboa + *bat, asko, xamar, bastante, nahiko, gutxi, hainbat*, etab. Mugatzaile horiekin batera izen-osagarri gisa jokatzen duten eta zenbatzeko erabiltzen diren hainbat egitura dauzkagu. Halakoak ez dira mugatzaileak berez, baina hemen jaso ditugu, halere, kuantifikatzaileak eta modifikatzaileak diren aldetik. Sintagmari adierazkortasuna ematen diote guztiek ere: *kriston ekaitza*, *ikâgarrizko umoria, sekulako usaya, oi izuarri penaarriya* (Fraile 1996:88-89), etab.

• **Galdetzaileak eta harridurazkoak:** *Zer*, *zenbat*, *zein/zeinen,* etab. Mugatzaile horiek substantiboaren aurrean jartzen dira eta galde-perpausak nahiz harridura-perpausak osatzeko erabiltzen dira, *zein/zeinen* izan ezik.

c) Pertsona-izenordainak

Pertsona-izenordainak berdinak dira euskalki osoan, hizkera bakoitzeko aldaketa fonetikoak gorabehera. Hauek dira, beraz, izenordainak: *ni*, *i*, *u*(*r*)*a, be(r)a*; *gu*, *zu*, *zuek*, *ayek/a*(*i*)*k*.

Hi eta *zu* izenordainek bigarren pertsona singularra adierazten dute. Halere, hizkera batzuetan (erdialdeko euskaran, esaterako), *hi* muga zorrotz batzuen barruan erabiltzen da bakarrik. Hierarkia-harremanek finkatzen dituzte muga horiek, nagusiki. Aurrerago azalduko dugu alderdi hori sakonago, aditzari buruzko atalean. Igorleak hartzailearekiko gertutasuna markatu nahi izan lezake, hainbat arrazoirengatik, eta hitanozko forma erabiliko luke orduan. Erregistro horri *hitano* deritzo eta aditz-jokoa aldarazten du, joko alokutiboa erabili behar baita hitanoarekin. *Zu*k, aitzitik, distantzia markatzen du solaskidearekin eta forma neutro markatu gabetzat hartzen da[38].

38. Euskarak dituen trataera desberdinei buruzko azalpen zabalago eta xeheago baterako, ikus Alberdi 1996.

d) Beste izenordain batzuk

Gainerako izenordainak aipatuko ditugu hemen, hau da, pertsona-izenordainak *ez* diren guztiak. Ez dugu haien deklinabiderik azalduko, erroa aldatzen duten kasu gutxi batzuk izan ezik. Gainerakoek substantiboaren deklinabide-marka berdinak erabiltzen dituzte.

e) Izenordain eta adberbio galdetzaileak

Erdialdeko euskaran aurkitzen ditugu izenordain galdetzaileak gainerako euskalkietakoen berdinak dira, oro har: *ze*(*r*), *nola*, *noiz*, *non/non* eta *nor/zein*.

Galdetzaile horiek guztiak berdin-berdin erabiltzen dira euskara osoan. Salbuespenik egotekotan, *nor/zein*en erabileran aurkituko genuke. Pertsonei buruz galdetzeko *nor* izenordaina erabiltzen da euskalki guztietan, baina erdialdeko euskaran *zein*en erabilera espezializatu egiten da, osatzen duen egituraren arabera. Hala, substantibo baten aurrean, determinatzaile gisa jokatzen du *zein*ek; aldiz, izenordain gisa agertzen denean, *nor*en lekua hartzen du. Adib.: *Zein dau or?* (Etxabe 2003:63).

f) Mugagabeak

Izenordain mugagabeak hainbat modutara eratzen dira. Batetik, *baten bat*en tankerako formak dauzkagu; bestetik, "galdetzailea + *-bait*" erabiliz osatutakoak: *norbait*, *nunbait*, *noizpait*, *nola*(*b*)*ait*, etab.

Mugagabeak eratzeko beste bide bat "*i-* + izenordain galdetzailea" elkartzea da: *inor*, *inoiz*, *inola*, etab. Izenordain horiek mugagabeak dira baiezko, baldintzazko eta galderazko perpausetan, eta ezezko perpausetan, berriz, ezezko esanahia hartzen dute.

Izenordainak eratzeko bide desberdinak aztertu eta gero, badirudi "*edo-* + izenordain galdetzailea" egiturak (*edonor*, etab.) ez duela hemen mendebaldeko euskalkiko hizkeretan adina indarrik, *edozein*en eta *edozer*en kasuan izan ezik, horiek hemen ere asko erabiltzen baitira.

g) Kuantifikatzaileak eta adberbio modifikatzaileak

Erdialdeko euskaran gehien erabiltzen diren kuantifikatzaileak hauek dira:

a) Izenaren aurretik: *nahiko*, *kriston*, *izu*(*g*)*arri*, *e*(*d*)*arki*, eta *bat* ez beste zenbatzaile guztiak.

b) Izenaren ondoren: *asko*, *xamar*, *bastante*, *guzti/guzi*, *den/dan*, *osoa/osua*, etab.

h) Kasu gramatikalak

Hiru kasu gramatikal daude: absolutiboa, ergatiboa eta datiboa. Euskarak berezitasun bat du kasu gramatikaletan: aurrerago ikusiko dugunez, kasu gramatikalek komunztadura dute aditzarekin, marka batzuen bidez. Eta berezitasun horrek postposizioek izan dezaketenaz bestelako izaera ematen die kasuoi.

• **Absolutiboa** (**NOR**; erd. *nor/zein*): Mugagabean ez du inolako amaierarik hartzen, baina mugatuz gero *-a* artikulua hartu behar du singularrean, eta *-ak* artikulua pluralean. *Hitz* hitza hartuz gero, adibidez, *itza/itzak* edo *itze/itzek* izango genuke, eremuaren arabera; *asto* hitzaren kasuan, berriz, *astoa/astoak*, *astua/astuak* edo *astue/astuek*. Dena den, gorago aipatu ditugun joera fonetikoei jarraiki (hiatoak eta diptongoak soiltzea, adibidez), *-a*n amaitzen den erroa duten izenen kasuan, artikulua eranstean sortzen den bokal-taldea murriztu egiten da. Hala, *asto* adibidearekin jarraituz, zenbait hizkeratan *astu/astuk* esaten dute. Argi eta garbi ikusten da berrikuntza horretarainoko prozesua, bokal-murrizketa kontuan hartuz gero: *astoa*> *astua*> *astu*.

• **Ergatiboa** (**NORK;** erd. *nok/zeiñek*): Ergatiboa da euskara inguruko hizkuntzetatik bereizten duen ezaugarrietako bat. Hizkuntza ergatiboa da euskara, maila morfologikoan besterik ez bada ere, eta Europa osoan euskarak berak eta Kaukasoko hizkuntzek besterik ez dute ezaugarri hau.

-k da ergatiboko morfema mugagabea eta *-ak/-ek* morfema mugatu singular eta plurala, hurrenez hurren. Ergatibotasunari ederki eutsi zaio erdialdeko euskaran, nahiz eta zenbait hizkeratan, faktore fonetikoen ondorioz betiere, absolutu plurala eta ergatibo plurala ez diren bereizten. Hala, Orioko hizkerako izenen deklinazioa[39] hartuz gero, bi kasuetako pluralak bereizten ez direla ikusten dugu:

	Mugagabea	**Mugatua**	
		Singularra	**Plurala**
Absolutiboa	Mendi	mendiya	mendik
Ergatiboa	Mendik	mendiyak	mendik

• **Datiboa (NORI;** erd. *nori/zeiñi***):** Datiboaren marka *-(e)ri* da mugagabean, baina dardarkari bakuna erori egiten da zenbait testuingurutan[40], eta, halakoetan, *-(er)i* da kasu-marka. Datibo mugatuan, berriz, *-a(r)i* eta *-ai/ei* markak ditugu singular eta pluralean, hurrenez hurren.

39. Iturain 1995:51; ezaugarri bera aurkitzen dugu Pasaiako hizkeran, esaterako: Agirretxe 2000:78.

40. Aldaketak dakartzaten faktore fonetikoak beti berdinak izaten direnez, sor daitezkeen formak bakarrik jaso ditugu hemen, eror daitekeen guztia parentesi artean sartuta.

i) Postposizio sinpleak

-**Edutezko genitiboa (NOREN;** erd. *noren/zeiñen*)**:** *-(re)n* morfema erabiltzen da mugagabean, eta *-a(re)n* eta *-(e)n* morfemak, genitibo mugatu singular eta pluralean, hurrenez hurren.

• **Leku-denborazko genitiboa (NONGO):** Kasu-marka mugagabea *-(e)tako* da; mugatu singularra, *-(e)ko,* eta mugatu plurala, *-(e)tako*.

• **Soziatiboa (NOREKIN**; erd. *no(re)kin/zeiñekin*)**:** *-(re)ki(ɲ)* da forma mugagabea; *-a(re)ki(ɲ)*, forma mugatu singularra, eta *-(re)ki(ɲ)*, mugatu plurala.

• **Destinatiboa (NORENTZAT;** erd. *norentzat/zeiñentzat*)**:** *-(re)ntzat* da mugagabearen marka; *-antzat*, mugatu singularrarena, eta *-(e)ntzat*, pluralarena. Forma horren beste forma paralelo bat sortu da, analogiaren bidez: *-(re)ntzako*; *-antzako* eta *-(e)ntzako*. Destinatiboak hor hartzen duen amaierako morfema *(-ko)* sintagma baten morfemak banatzean egindako interpretazio oker bati zor zaio. Adib.:

[*Zuretzat*] [*liburua*] *dago*, "liburu bat dago zuretzat".

[*Zuretzako liburua*] *dago*, "zuretzat den liburua dago".

Gure adibidea hartuta, kasu honen marka *-retzat* beharrean *-retzako* dela interpretatuz sortu da analogia, hiztuna ez delako konturatzen *-ko* morfemaren funtzioa *liburu hau* eta *zuretzat* zatiak sintagma berean lotzea dela.

• **Instrumentala (ZEREZ):** Instrumentalak *-(e)z* morfema hartzen du mugagabean, *-az* mugatu singularrean eta *-ez/-etaz* mugatu pluralean. Dena den, gero eta joera handiagoa dago soziatiboa erabiltzeko instrumentalaren ordez. Adib.:

Aitona makilarekin hobeto dabil.

*Aitona makilaz hobeto dabil*en ordez.

• **Inesiboa (NON**; erd. *non/nun*)**:** *-(e)tan* da lokatiboko marka mugagabea, eta *-(ea)n* eta *-(e)tan* marka mugatu singular eta plurala.

• **Adlatiboa (NORA**; erd. *nora*)**:** *-(e)ta(ra)* da morfema mugagabea, eta *-(er)a* eta *-(e)ta(ra)* morfema mugatu singular eta plurala.

• **Adlatibo destinatiboa (NORAINO**; erd. *noraño*)**:** Kasu honek marka hauek hartzen ditu: *-ta(ra)ɲo,* mugagabean; *-(era)ɲo*, mugatu singularrean, eta *-(e) ta(ra)ɲo,* mugatu pluralean.

• **Ablatiboa (NONDIK**; erd. *nundik(an)/nundi*)**:** *-(e)tatik(an)/-(e)tati* da kasu-marka mugagabea; *-(e)tik(an)/-(e)tati*, marka mugatu singularra, eta *-(e)tatik(an)/-(e) tati*, mugatu plurala. Beste forma batzuk ere badaude. Zaldibian, adibidez, Goierri ia osoan bezalaxe, *-tio* amaiera erabiltzen dute: *menditio* (Etxabe 2003:62).

• **Motibatiboa (ZERGATIK**; erd. *zergatik*(*an*)*/zergaitik*(*an*)**):** Kasu-marka motibatiboa adlatiboaren berdina da: *-(ega)tatik(an)/ -(ega)tati*, mugagabean; *-(ega)tik(an)/-(ega)tati*, mugatu singularrean, eta *-(ega)tatik(an)/-(ega)tati*, mugatu pluralean.

• **Hurbiltze-adlatiboa (NORANTZ**; erd. noruntz**):** Marka mugatuak *-(er) untz* eta *-(e)ta(r)untz* dira singularrean eta pluralean, hurrenez hurren, eta marka mugagabea, berriz, *(e)ta(r)untz*. Erakusleetan, postposizioa *-rutz*era murrizten da: *honutz*, *horrutz* eta *harutz*.

j) Postposizio konplexuak

Bi elementuz osatuta daude postposizio konplexuak. Posposizio sinple bat dute, batetik, hau da, goian aipatutako edozein, eta posposizio bat erantsita duen elementu bat, bestetik.

Postposizio konplexuek postposizio sinpleen erregimen zehatz bat eskatzen dute kasu bakoitzean. Kasu horren arabera sailkatuko ditugu, beraz, postposizio konplexuak:

• edutezko genitiboa (NOREN) dutenak:

a) Espazioaren barneko kokapena adierazten dute: *arte, aurre, azpi, alde*, etab. Adib.: Errenteria, … *Gizarten aurrera jun da*[41]…

b) Jarrerak eta iritziak adierazten dituzte: *alde, kontra, aurka*, etab. Adib.: Tolosa, … *oen kontra zan*[42]…

Lehen postposizioa bertan egon gabe osa daitezke hauek, izenak kasu-markarik ez duela.

• datiboarekin (NORI):

a) Hizketagaia aipatzeko erabiltzen dira: *buruz, esker*.

Oiartzun, … *ez baizan politikari buruz itz erditxo bat ere esaten*[43]…

II. Aditza

Euskalkiak banatzeko egindako sailkapen guztietan aditza –aditz laguntzailea zehazkiago– hartu izan da irizpide nagusitzat. Aditza da, seguruenik, euskal hizke-

41. C-07-VII-13,I-III:1. Ik. 6.1.2., 89. or.
42. Artola 1995:60.
43. Salaberria 1997:39.

rak gehien bereizten dituen elementua, nahiz eta formen arteko tartea txiki-txikia izan eta gauza erraza izan forma komunak berreraikitzea. Eboluzio fonetikoak ia forma bana utzi digu euskalki bakoitzean, baina, halere, ukaezina da denen artean dagoen batasuna. Dioguna frogatzearren, aditz laguntzaile iragankorraren mapa eskaintzen dugu jarraian, lehen pertsona singularreko ergatiboarekin, hirugarren pertsonako absolutiboarekin eta bigarren pertsona singularreko datiboarekin[44].



11. mapa

44. Euskal gramatiken tradizioari jarraiki, absolutibo-datibo-ergatibo paradigma duten aditzak N-N-N paradigmako aditz gisa aipatuko ditugu.

Arretaz aztertuta, erraza da kronologia bat finkatzea. *Darotzut* formatik *dautzute*ra iristen gara lehenik eta behin, bokal arteko /r/ maiz erortzen dela kontuan izanik; eta *dautzut* (*dautsut/deutsut*) daukagu geroago, afrikari-multzoaren berregokitzearekin (mendebaldean) eta bokalaren itxierarekin /u/ belarraren eraginagatik. Hortik ateratako formatik –eta *-au-* diptongoa ekialdeko nafarreran eta zubereran *-ai-* egiten dela kontuan izanik–, erraz ikusten dugu *dautzute*tik *daizute*rainoko bilakaera. Azkenik, beste sinplifikazio bat egiten da erdialdean, eta *daizute*tik *dizut* forma eboluzionatura iristen gara.

Ikusi dugunez, *darozute*n eta *dizute*n arteko distantzia ez da hain handia, bi formak ere egitura komun beretik datoz eta. Beste askotan gertatzen den bezala, behaketak eta dialektoen arteko alderaketak itxuraz oso desberdinak diren hizkuntz formak azaltzen lagundu dezakete.

a) Forma pertsonalak

Aditz-markaren batean pertsona-morfemaren bat duten aditz-forma guztiak hartzen dira forma pertsonaltzat.

Inguruko hizkuntza erromanikoek ez bezala, subjektua, objektu zuzena eta zeharkako objektua osatzen dituzten sintagmak adierazteko marka batzuk dauzka euskal aditz jokatuak. Marka horiek hizkuntza erromatikoetako osagai klitikoen parekoak dira eta, hizkuntza erromanikoetan bezalaxe, aditz lexikoak behar dituen argumentuen arabera, bat ala beste agertzen da. Azkenik, marka horiek euskararen hedadura osoan erabiltzen dira eta, desberdintasun fonologiko txikiren bat gorabehera, bat datoz euskalki guztietan.

b) Aditz laguntzaile iragangaitza

Aditz laguntzaile iragangaitza (aldi berean aditz kopulatiboa) *izan* edo *izandu* da. Nor paradigmakoa (absolutiboa) da eta erdialdeko euskaran forma hauek hartzen ditu, orainaldian eta lehenaldian:

NOR		
	Orainaldia	***Lehenaldia***
1. sing.	*Naiz/nais* *Naz/nas*	*Ni(n)tzan*
2. sing. *hika*	*Aiz/aix*[45] *Yaiz/yais*[46]	*Itzan/itxan* *?*
3. sing.	*Da*	*Zan*
1. pl.	*Ge(r)a*	*Giñan*
2. sing. *zuka*[47]	*Ze(r)a*	*Ziñan*
2. pl.	*Ze(r)ate* *Ze(r)azte*	*Ziñaten* *Ziñazten*
3. pl.	*Di(r)a* *Di(r)e*	*Zi(r)an*

Ikusten denez, erdialdeko euskaran, aditz iragangaitzak *izan* aditzeko *-a-* erroari eusten dio lehenaldian eta mendeko esaldiak eratzeko atzizkiak dauzkaten orainaldiko formetan; horrekin batera, orainaldian metastasi bidezko *a-e> e-a* berrikuntza egiten da (Kapanaga 2005, inprimategian). Aurrerago ikusiko dugunez, nafarreraranzko tarteko hizkera batzuetan, *-a-* erroa darabilten forma horien ondoan, lehenaldian *-e-* erroa hartzen duten formak agertzen zaizkigu: *nintzen, zinen, zen*, etab. Halakoak galtzen ari dira, halere.

Aditz laguntzaile iragangaitzaren beste paradigma Nor-Nori *(absolutiboa-datiboa*) delakoa da, eta perpausaren subjektu gisa agertzen den absolutibo batez eta datibo batez osatuta dago. Laguntzaile hori eskema honi jarraiki eratzen da[48]:

45. Azkue 2000.
46. Zuazo 2003:125.
47. Harrigarria eman dezake *zu* (2. perts. sing.) pluraleko formen artean sartzea, baina jatorrian pluraleko 2. pertsona adierazten zuen eta begirunezko balioa zuen. Hainbat arrazoi direla eta, 2. pertsona singularra bihurtu zen *zu* hori, pluraleko markak izan arren, eta hori gertatzean *zuek* formak hartu zuen haren lekua. Hala, 2. pertsona singularrari dagokion paradigmak bi forma biltzen ditu: *hi*ri dagozkionak, informalitaterako, eta *zu*ri dagozkionak, erabilera formaletarako. Xehetasun gehiagorako, ikus Alberdi 1996.
48. Erdialdeko aditz-forma batena da adibidea.

Adib.:	*gatzaizkite*	*ga(t)*	*-zai-*	*zki-*	*te*	"haiek guri"
		abs.-marka+	- *zai* +	(*zki*) +	datibo-marka	
				abs. pl.		

Gorago esan dugunez, markak berdinak dira euskalki guztietan, eta oso berrikuntza gutxi agertzen da. Erdialdeko euskaran, adibidez, euskara osoan agertzen den 2. pertsona pluraleko datiboko *-zue* marka erabiltzen da, baina *-zute* forma ere agertzen zaigu, aditz iragankorreko 2. pertsona pluraleko kasu-markari jarraiki osatua: *dezute*.

c) Aditz trinko iragangaitzak

Aditz perifrastikoekin ondoan (aditz laguntzaileak eta aditz-izenak edo partizipioak osatuak) aditz trinkoak dauzkagu euskaran. Denboran errepikatzen ez diren eta ohitura bihurtzen ez diren unean uneko ekintzak adierazteko erabiltzen dira aditz trinkoak.

Erdialdeko euskaran gehien erabiltzen diren aditz trinko iragangaitzak hauek dira: *izan/izandu* (azaldu dugu aurreko atalean), *egon/egondu, ibili, etorri* eta *joan*. Azken horrek aldaera ugari ditu, hizkera bakoitzeko arau fonetikoen eraginez: [χun], [χu'an], [χo'an], etab.

Erdialdeko euskaran aditz hauen jokoak ez du berezitasun handirik, oro har, eta aditza jokatuz sortutako formek hizkera bakoitzeko arau fonetikoak betetzen dituzte. *Dago*, *egon/egondu* aditzeko 3. pertsona singularreko forma, adibidez, *dao, dau* eta *do* ahoskatzen da.

Dena den, *joan* aditzaren eta *egon/egondu* aditzaren orainaldiko zenbait forma jokatu nabarmendu behar ditugu hemen. Erdialdeko euskaran 3. pertsona singularrerako eta pluralerako forma analogikoak sortu dira. *Doa* eta *doaz* dira forma komunak, baina aztergai dugun euskalkian *di*[χ]*oa/dihoa* eta *di*[χ]*oaz/dihoaz* formak aurkitzen ditugu. Aditzaren lehenaldiko eredua (zihoan/*zi*[χ]*oan* eta *zihoazen/zi*[χ]*oazen)* orainaldiko formei aplikatzearen ondorioz sortu dira forma horiek. Halere, analogia hori singularreko 1. eta 3. pertsonetan bakarrik agertzen da gaur egun. Hauxe da analogia horren atzean omen dagoen eskema:

Orainaldia, *doa* → *dihoa/di*[χ]*oa*

Lehenaldia, *zihoan*.

Egon/egondu aditzari dagokionez, lehenago azaldu ditugun joera fonetikoei jarraiki egondako bilakaera desberdinak alde batera utzita, *na(g)o, ha(g)o/ya(g)o, zaude, da(g)o; gaude, zaudete, daude* motako aditz-jokoa aurkitzen dugu. Pluralak *-de* atzizkia hartzen du hor. Forma horien ondoan, beste forma batzuek *-z* morfema

hartzen dute plurala indartzeko[49]. Hala, honako forma hauek ohikoak dira eta zabaldu samar daude: *zaudez, zauzte* eta *zozte*, euskara batuko *zaude*ren ordez. *-z* morfema darabilten forma horiek Donostia ekialdean erabiltzen dira gehienbat, hau da, Pasai Donibanen, Errenterian, Lezon, Oiartzunen, Irunen, etab., eta *izan* aditzera ere hedatu dira. Hala, forma hauek aurkitzen ditugu: *ze(r)azte, seaste, siñasten*, etab.

Mendebaldeko blokeko aditz trinkoen beste ezaugarri bat lehenaldiko erroan erabiltzen den bokala da, */e/* agertzen baita aditz-erroetan, behin eta berriro: *se(g) o(e)n*, *zebilen*, ... (Agirretxe 2000:211). Kontuan hartu beharrekoa da xehetasun hori, aurrerago ikusiko dugunez, nafar hizkerek eta nafarreraranzko trantsiziozko erdialdeko zenbait hizkerak ere /a/ bokala baitarabilte: *zagoen*, *zabilen*, ... (Zuazo 1997:399).

d) Aditz laguntzaile iragankorra

Aditz-morfologia azaltzen hasi garenean aipatu dugunez, dialektoak sailkatzeko garaian aditz-laguntzaileak hartzen dira kontuan beti, aditz iragankorren aditz laguntzaileak bereziki. Herri-mailan, jendeak jeneralean badaki aditz laguntzaile hori Bizkaian *dot* esaten dutela, Gipuzkoan *det* eta Nafarroan eta Iparraldean *dut*. Euskalkien banaketa hori egokituz gero, ikuspegi hori zuzena da.

Aditz iragangaitzen kasuan bezala, laguntzaile iragankorretan ere bi paradigma bereizten dira. Euskal gramatikan NOR-NORK (absolutibo-ergatiboa) deritzona, batetik, eta NOR-NORI-NORK (absolutibo-datibo-ergatiboa) deritzona, bestetik. Lehenak *eduki* aditzaren funtzioa eta laguntzaile iragankorraren funtzioa betetzen ditu aldi berean, *izan* aditz iragangaitzak bezalaxe.

Laguntzaile honek bi forma ditu, objektu zuzena singularra ala plurala den arabera. Hala, objektu zuzena plurala bada, *-it-* morfema hartzen du laguntzaileak. Jarraian agertzen den taulan 3. pertsonako objekturako aditz-jokoa jaso dugu bakarrik. Gero azalduko dugu aditz-joko horren egitura, objektuaren marka edozein dela ere eredua uler dadin. Hona hemen, beraz, erdialdeko euskaran NOR-NORK aditz laguntzailearen orainaldiko eta lehenaldiko aditz-jokoa:

49. Camino, I. "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko", in Zuazo 2000:76.

NOR-NORK		
	Orainaldia	***Lehenaldia***
1. sing.	*Det*	*Nu(e)n*
2. sing. ***hika***	*Dek/den*[50]	*Uken/unen,* *Yuken/yunen*[51]
3. sing.	*Du*	*Zu(e)n*
1. pl.	*De(g)u*	*Genu(e)n* *Gendu(e)n* *Giñu(e)n*[52]
2. sing. ***zuka***	*Dezu*	*Zenu(e)n* *Ziñu(e)n*
2. pl.	*Dezue* *Dezute*	*Zenuen* *Zenuten* *ziñuten*
3. pl.	*Dute* *Due*	*Zuten* *Zuen*

Azaldu dugunez, hainbat markaz eratuta dago laguntzailearen egitura. Orain hizpide dugun paradigman, adibidez, hauxe aurkitzen dugu singularrean: objektuaren pertsona-aurrizkia (*nau-, za-, d-, ga-*); pluralgilea (*-it-*) atzetik, objektua plurala den kasuetan; *-u-* aditz-erroa, eta ergatiboko pertsona-markak (*-t, -k/n, -zu*, -∅, *-gu, -zue* edo *-zute, -te* edo *-e*). Adib.: *det, dezu, degu*, etab.

Beste paradigmak (NOR-NORI-NORK), egitura hau du orainaldian: objektuaren aurrizkia (*d-*), objektuaren pluralgilea (*-zki-*), *-i-* erroa, zeharkako objektua (*-da-* edo *-t-*, *-a/ña-* edo *-k/n-*, *-zu-*, *-o-*; *-gu-, -zue-* edo *-zute-*, *-e-*) eta ergatiboaren marka (*-t, -k/-n, -zu,* -∅; *-gu, -zue* edo *-zute, -te* o *-e*). Adib.: *dizkiot* (d- i- zki- o- t).

Horixe da laguntzaile iragankorren erabilera tradizionala eta, subjektuarekin, objektu zuzenarekin eta zehar-objektuarekin duten komunztadurari esker, ez dira nahasten, marka horiek bateratzeko joera egon arren[53]. Gauza arrunta izaten da NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK paradigmak nahastea: Adib.:

esan nau[54] *esan dit*en ordez.

NOR-NORK NOR-NORI-NORK

50. Hikako formetan gizonezko solaskideak (*-k*) eta emakumezkoak (*-n*) bereizten dira.
51. Agirretxe 2000:110.
52. Fraile 1996:111.
53. Ik. Ezeizabarrena 2003.
54. Camino, I.; in Zuazo 2000:74.

Laguntzailearen zenbait formatan hasierako *d-* bereziki ahultzearen ondorioz, aditz perifrastikoak laburtu egiten dira askotan. Adib.:

Orio, *oain ikusteitut*[55]

Euskara arruntean, *orain ikusten ditut*.

e) Aditz trinko iragankorrak

Aditz iragangaitzen ondoan aditz trinko iragankorrak dauzkagu euskaran. 4.1.2. puntuan aditz iragangaitzei buruz esan dugun moduan, aditz trinkoak unean uneko ekintza zehatzak adierazteko erabiltzen dira.

Erdialdeko euskaran, hauek dira gehien erabiltzen diren aditz trinkoak: [χ]*akin*, *ekarri*, *erabili, e(r)aman*, *eduki* eta *esan*. Aditz horiek laguntzaile iragankorrak darabiltzan morfema berberak erabiltzen ditu eta, hortaz, erdialdeko euskaran ez du inolako berezitasunik. Dena den, gorago esan dugunez, erdialdeko euskarak eta mendebaldekoak bat egiten dute bloke berean, aditz trinkoen lehenaldiko zenbait formatan. Bloke horren barruan, arruntak dira *zekiyen, nekarren* eta tankerako formak. Lehenaldiko forma horiek, orainaldian, erroan /a/ bokala duten arren (*daki, dakart*), lehenaldiko formetan, mendebaldeko blokearen barruan, /e/ bokala hartzen dute: *zekiyen*, *nekarren*.

f) Forma ez-pertsonalak

Euskaraz hiru eratara osa daitezke aditz ez-pertsonalak: aditz-izenarekin, partizipio burutuarekin eta aditz-erroarekin. Halere, guk hemen lehenbiziko biak aztertuko ditugu bakarrik. Aldaera fonologiko gutxi batzuk gorabehera, hemen ere ez dago desberdintasun handirik euskararen barruan, eta horrek hizkuntzaren barnebatasuna erakusten digu, berriro ere.

g) Aditz-izena

Hizkuntza zeltikoetako aditz-izenaren[56] eta hizkuntza erromanikoetako infinitiboaren pareko aditz-forma dugu hau. Aditzaren izen-funtzioak biltzen ditu eta, aldi berean, aditz gisa jokatu eta markak har ditzake. Aditz-izena osatzeko aditz-erroa eta *-te* edo *-tze* atzizkia erabiltzen dira. Ingurune fonologikoaren, hau da, aditz-erroaren amaieraren arabera erabiltzen da atzizki bat edo beste.

55. Iturain 1995:192.
56. MacAulay 1992:421.

Zenbait aditzaren forma trinkoak alde batera utzita, euskal aditza perifrastikoa da nagusiki eta aditz laguntzailea eta aditz-izena (inesiboan, *-ten* edo *-tzen*) behar ditu orainaldia osatzeko. *Egin* aditza, adibidez, honela eratzen da orainaldian:

egi-	*te*	*-n*	*d-*	*u*	*- t*
erroa	*A-izena*	*ines.*	*obj. 3.s.*	*erroa*	*erg. 1.s.*

Dena den, hori ez da beti hala. Erroari beharrean, aditzak atzizkia partizipio burutuari erantsiz osatzen baitira askotan. Hala, *poztu* aditzaren kasuan, *pozten* beharrean *poztutzen* erabiltzen da maiz.

Nolanahi ere, aditz-izenaren atzizkia aldatzeko joera dago erdialdeko euskaran. *-ten/tzen* forma horren ondoan, */-n/* erortzea eta laguntzailea laburtzea dakarren forma berritua aurkitzen dugu. Laguntzaile hori lehenaldian egonez gero, hasierako /d/ herskaria galdua izango du, gainera. Azalpen horiei jarraiki, *eukitzet*, *etortzegiñan* eta *jakingoezun*[57] aditz-formak aurkitzen ditugu *edukitzen det*, *etortzen giñan* eta *jakingo dezun* formen ordez.

h) Partizipio burutua

Hauek dira partizipio burutua osatzeko erabiltzen diren atzizkiak: *i, -n* eta *-tu*. Hiztegiko sarreretan, aditzak forma horretan agertzen dira, hain zuzen. Partizipio burutuak bi funtzio dauzka: aditz-perifrasietan aditz-denbora batzuk adierazten ditu, batetik, eta adjektibo eta nominalizatzaile gisa jokatzen du, bestetik. Lehen funtzioa alde batera utziko dugu, aurrerago ikusiko baitugu aditz-denborei buruzko atalean. Partizipio burutuak betetzen duen adjektibo-funtzioari helduko diogu orain.

Partizipioak nola jokatzen duen eta zein atzizki hartzen dituen aztertzen hasi aurretik, berezitasun bat aipatuko dugu: *-tu* atzizkiarekin osatutako partizipioen forma analogoak osatzeko joera dute zenbait aditzek. *Izan* aditzaren partizipio-marka *–n* da berez, baina *izandu* forma analogikoa ere erabiltzen da, aditzari hiztunak partizipio-atzizkitzat identifikatzen duen marka erantsi behar zaiola interpretatzen delako. *-i* eta *-n* atzizkiek inbentario itxia osatzen dute eta dagoeneko ez dira erabiltzen aditz berriak sortzeko. Horregatik gertatzen da, beraz, aipatu berri dugun analogia. Esan bezala, *-tu* da gaur egun aditz berriak sortzeko erabiltzen den atzizki bakarra eta, hortaz, ulertzekoa da aditzen partizipioa *-tu* atzizkiarekin eratzen dela pentsatzea hiztunek.

Partizipio burutuak hainbat funtzio bete ditzake perpaus barruan. Adjektibo-funtzioa bete dezake, adibidez, adjektiboak izen-sintagman duen lekuan jarri eta sintagmari dagozkion kasu-markak jasota. Adib.:

Astigarraga, …*oso famili <u>unittua</u> giñan*…

57. Adibideak hemen jasotako testuetatik atera ditugu: Iturain 1995:194-195.

Adibidean ikusi dugunez, partizipio burutuak adjektiboarena egiten du, haren lekuan jarrita. Joera hori euskalki guztietan erabiltzen da oraindik.

Aditz-izenak adjektibo gisa joka dezakeela ikusita, pentsatzekoa da predikatibo gisa ere agertuko dela. Kasu horretan, sintagma mugagabean jokatzen duen atzizkia jasotzen du partizipioak: *-ta* nahiz *-rik*. Adib.:

Zaldibia, *...zakukiñ jantzita ibiltzen tzienak...*

Erdialdeko euskaran, mugagabea da gehien erabiltzen den forma; nafar hizkeretan, aldiz, forma mugatua erabiltzen da funtzio hori adierazteko (Zuazo 2003:182).

Azkenik, eta partizipioarekin amaitzeko, beste kasu bati helduko diogu. Aipatu berri ditugun *-ta* eta *-rik* atzizkiek *-ko* adnominala hartu eta funtzio erlatiboa bete dezakete. Hala, gorago aipatu dugun perpausera itzuli eta azaldu berri dugun eraketa aplikatuz, egitura hau izango genuke:

zakukiñ jantzitako jendea ibiltzen tzien.

Egitura horren bidez eratutako erlatiboak lehen aldiko aditz batekin osatutako esaldi adjektiboen parekoak dira.

i) Aditz-denbora, aditz-aspektua eta aditz-modua

Puntu honetan gehiegi ez luzatzeko, aditz-denboraren egitura, aspektua zehazteko modua eta erdialdeko euskaran erabiltzen diren aditz-moduak aipatuko ditugu bakarrik. Forma bakoitza nola eratzen den azalduko dugu, beraz, baina gainerako euskalkien berdinak diren formei buruz xehetasunik eman gabe.

Hiru aditz-aspektuetako bakoitza banan-banan aztertuko dugunez, hemen ez gara gehiago luzatuko. Laguntzaileen aditz-jokoan normalean erro desberdinak dituen subjuntibo-modu bat badela aipatuko dugu, halere. Hala, subjuntiboaren erroak **edin* eta **ezan* dira iragangaitzean eta iragankorrean, hurrenez hurren, eta indikatiboan, berriz, *izan* eta **edun*.

j) Indikatiboko orainaldia

Ikus aditz laguntzaileak eta aditz-izena.

k) Lehenaldi burutugabea

Hizkuntza neolatindarretan, ekintza amaitu gabe duten lehenaldiko aditzak izendatzeko erabiltzen da *lehenaldi burutugabea* terminoa. Gorago esan dugunez, eus-

karak perifrasiak erabiltzen ditu gehienetan, lehenaldiko laguntzaileari aditz-izena inesiboan gehituta. Adib.:

Astigarraga, *…erriko kanpaia jotzen tzun gizonak…*

l) Lehenaldi burutua

Lehenaldi burutuaren forma lehenaldi burutugabearen berdina da, baina aspektua aldatuta. Kasu honetan, dagoeneko bukatuta dagoen lehenaldi batez ari gara, amaitutzat ematen den ekintza bat dugu, beraz. Adizki hau partizipioari lehenaldiko laguntzailea gehituta osatzen da. Adib.:

Hondarribia, *…han eondu nitzen* (…).

m) Geroaldia

Erdialdeko euskaran mendebaldeko multzoan bezalako geroaldia erabiltzen da. Laguntzailea orainaldian eta partizipioari *-ko/go* morfema erantsita osatzen da forma hau. Adib.:

Errenteria, *…ba ori isango da*[58]*…*

n) Baldintza orainaldia

Baldintza orainaldia orainaldiko aditz bati aurretik *baldin ba-* nahiz *ba-* bakarrik erantsita osatzen da. Adib.:

Errenteria, *…etortze baldin badia*[59]*…*

o) Baldintza hipotetikoa

Bi modutara egin daiteke baldintza hipotetikoa. Lehenbizikoan, partizipioari geroaldiko atzizkia eta lehenaldiko laguntzailea gehitzen zaizkio. Adib.:

Oiartzun, *-Non itzanen i ordun, iun artan?*
-Ni beti bezela lanin eongo niñunen.

Baldintza hipotetikoaren bigarren egituran, *-ke* atzizkia erabiltzen da laguntzailean. Adib.:

58. C-07-VII-13, III:1. Ik. 6.1.2., 89. or.
59. B-07-VII-12, III. Ik. 6.1.2., 89. or.

Oiartzun, … *nola esango nuke*?…

Eta lehenaldian:

Partizipioa +*ba*- + laguntzailea lehenaldian, baina lehenaldiko -*en* atzizkirik gabe.

Etorri banintz

Geroaldian, aldiz, beste forma hau erabiltzen da:

Partizipioa-*ko* +*ba*- + laguntzailea lehenaldian, lehenaldiko -*en* atzizkirik gabe.

Etorriko banintz

Geroaldiko egitura horrez gain, beste hau ere erabiltzen da:

Aditz-izena + *ba*- + laguntzailea lehenaldian, lehenaldiko -*en* atzizkirik gabe.

Etortzen banintz

Dena den, azken forma hori ekialdeko hizkeretan erabiltzen da gehienbat, eta erdialdeko euskaran ez da batere arrunta.

Baldintzazko perpauseko aditz nagusiak -*ke* atzizkia behar du lehenaldiko laguntzailearekin batera. Biek ere, aditz nagusia osatzen dute -*ko*n amaitutako partizipioarekin batera. Adib.:

Etorriko banintz, diru gutxiago emango zenidake.

p) Agintera

Erdialdeko euskaran bi modu erabiltzen dira agintera osatzeko. Batetik, forma jokatuak erabiltzen dira. *Be*(*d*)*i*, *zai*(*t*)*tez*, *zai*(*t*)*tezte*, *bitez,* Nor paradigman, eta *nazu*, *nazu*(*t*)*e*; (*e*)*zazu*, (*e*)*zazu*(*t*)*e*; *gaitzazu*, *gaitzazu*(*t*)*e*; *itzazu*, *itzazu*(*t*)*e*[60], Nor-Nork paradigman. Nor-Nori-Nork paradigman, eskema honi jarraiki eratzen dira aditzak:

i	*-xk(i)*	Nori	Nork
Erroa	obj. zuz. pl.	datibo-marka	ergat.-marka
emaixkiazu			

Erabiltzen diren markak gorago aipatu ditugun berdinak dira.

60. Erdialdeko euskalkiaren barne-aldaera ugariak kontuan hartuta, Orioko hizkeraz ari denean Iturainek (1995) aipatutako agintera jaso dugu hemen.

III. Adberbioa

Adberbio asko daude euskaran, baina guztiak sistematizatzearren, bi talde nagusitan sailkatuko ditugu: adberbio soilak eta adberbio eratorriak. Lehen taldean erro bakar batez osatutako adberbioak dauzkagu. Erdialdeko euskaran erabiltzen direnak aipatuko ditugu hemen, aldaera fonologikoak azaldu gabe: *agudo, aspaldi, atzo, bart, behin, beti, bihar, etzi, gaur, gero, iaz, lehen, maiz, orain, sekula,* etab.

Bigarren taldean eratorpenaren bidez osatutako adberbioak daude, hau da, erroari eratorpen-atzizkia gehituta osatutakoak. Kasu batzuetan eratorpenerako aukerak asko eta asko daudenez, erdialdeko euskaran gehien erabiltzen diren atzizkien zerrenda aurkeztuko dugu hemen, adibide gutxi batzuez lagunduta.

-**ki/gi**: Gaur egun gehien erabiltzen denetako atzizki bat da hau. Ez du inbentario itxia; aitzitik, nahi beste adberbio sor ditzake adjektiboetatik abiatuta: *ozenki*, *ongi*, *gaizki*, *zehazki*, *ederki*, *bereziki*, *poliki*, etab.

-**to/do**: Bigarren atzizki honek modua adierazten du, -*ki/gi*-k bezalaxe. Adibidez: *ondo* eta *hobeto.*

Gainerako atzizkiekin jarraitu aurretik, esan beharra dago erdialdeko euskaran aipatu berri ditugun bi atzizkiak goiko bi kasu horietan baino ez direla agertzen lehian. Bonaparteren arabera[61], *ondo/ongi* eta *hobeto/hobeki* bikoteen artean euskalki-multzo bakoitzean aukeratzen den terminoaren arabera banatzen dira bi atzikzi horiek. Ekialdeko taldean -*to/do* erabiltzen da gehienbat, eta ekialdekoan, berriz, -*ki/gi*. Hala, mendebaldeko taldean *ondo*[62] eta *hobeto* esan dute, eta ekialdean, aldiz, *ongi*[63] eta *hobeki*.

-**ka**: Atzizki honek errepikapena adierazten du. Hona hemen zenbait adibide: *ehunka*, *bueltaka*, *bakarka*, *erdizka*, *atzeraka*, *galdezka*, *miauka*, etab.

-**ro**: Denboraren errepikapena adierazteko erabiltzen da atzizki hau erdialdeko euskaran: *egunero*, *ostiralero*, *urtero*, etab.

-**ik**: Adjektiboak adberbio bihurtzen ditu: *alferrik, biluzik, pozik, zintzilik, bizirik, soilik, zutik, bakarrik, gaixorik, isilik, zabalik.*

-**la**: Adberbio indartu batzuekin baino ez da erabiltzen. Hauek dira arruntenak: *ho*(*ne*)*la, horrela*, *hala, bestela, nola, bezela.*

Aipatutakoez gain, berez adberbioak ez izan arren, hau da, beste kategoria batekoak izan arren, kasu-markak gehitzean adberbio gisa jokatzen duten beste kasu batzuk daude. Adibidez: *segituan*, *berriz*, etab.

---

61. Hemen aipatua: Zuazo 2003:187.
62. Erdialdeko euskaran, *ongi* ere erabiltzen da.
63. Iparraldean, *untsa*.

IV. Eratorpena

Eratopenari buruzko atal honetan erdialdeko euskarako atzizki arruntenak aipatuko ditugu bakarrik, eratorpena egitean sortzen den kategoriaren arabera sailkatuta. Atzizki batzuk gorabehera, eratorpena oso homogeneoa da eta euskalkiek berezitasun gutxitxo dute alor honetan.

a) Izen-atzizkiak

Hauek dira erdialdeko euskaran erabiltzen diren izen-atzizkiak:

-**aldi**: Denbora adierazten du eta oso maiz erabiltzen da. Adib.:

Errenteria, *... ta egiten dute ekitaldia*[64].

- (**l**)**ari**: Ogibideak eta zaletasunak adierazten ditu. Adib.:

Orio, *...ne aita estropala(r)ya zan...*[65]

-**dun**: Jabetza adierazten du, eta ezaugarriren bat, objekturen bat edo duten pertsonak, animaliak eta gauzak izendatzeko erabiltzen da. Adib.:

Oiartzun, *... gizon bigote(d)un oi...*[66]

- (**k**)**era**: Gauzak egiteko modua ematen du aditzera. Adib.:

Errenteria, *Bota galdera!*[67]

-**garri**: Zerbaiterako joera, ekintzaren baten pizgarri izatea edo kopuru handihandia adierazteko erabiltzen da eta aditz-oinari gehitzen zaio. "A+merezi duena" esanahia ere hartzen du. Adib.:

Pasai Don., *...isugarriya eoten san orduan*[68].

-**gile**: Jarduera jakin batzuk egiten dituen pertsona. Adib.:

...errotan lau langille dabiltz[69].

---

64. C-07-VII-13, I-III:3. Ik. 6.1.2., 89. or.
65. Iturain 1995:187.
66. Fraile 1996:96.
67. C-07-VII-16, II-III:2. Ik. 6.1.2., 89. or.
68. Agirretxe 2000:247.
69. Euskaracorpusa, Latxaga 0055.

-**gintza**: Zerbait egitea, ogibidea adierazten ditu. Adib.:

Laurak bertsogintzan aritu ziren[70].

-**kada**: Kopurua adierazteko erabiltzen da. Adib.:

Oiartzun, …*Joxe Maik karri zittun atzo iru lau boltsaka ogi*…[71]

-**keri(a)**: Mespretxua adierazten duten izen abstraktoak eratzeko erabiltzen da. Adib.:

… *ezta jaramonik egiterik ere merezi ez duan ximplekeri bat*[72].

-**keta**: Atzizki honek bi esanahi dauzka. Batetik, jarduera bat adierazten du; bestetik, gauza multzo bat. Adib.:

Azkoitia,…*Amak bittarte ortan errefortzaketan einber izate zun*[73].

-**kuntza**: Izen abstraktuak adierazteko erabiltzen da. Adib.:

Oiartzun, …*izkuntzak denetik ttu*…[74]

-**pe**: Zerbaiten azpiko aldea adierazten duen atzizki honek. Eguraldiari erreferentzia egiten dio, halaber. Adib.:

Azkoitia,…*gure etxepin zar gutxi bizi gaittun*…[75]

- **(t)ar**: Jentilizioak osatzeko erabiltzen da. Adib.:

Pasai San Pedro,…*oriyotarrak* (…) *orrekin nola ogei segundu sun bentaja ba*…[76]

-**tasun**: Izen abstraktuak eratzen dituen atzizkia. Askotxo erabiltzen da. Adib.:

Errenteria, … *desberdintasun aundia dao*…[77]

---

70. Euskaracorpusa, Akesolo 0141.
71. Fraile 1996:98.
72. Euskaracorpusa, Lekuona 0029.
73. Del Castillo 2001:51.
74. Fraile 1996:178.
75. Del Castillo 2001:54.
76. Agirretxe 2000:224.
77. C-07-VII-10, III:3. Ik. 6.1.2., 89. or.

-**te:** Eguraldiari buruzko izenekin erabiltzen da. Adib.: *eurite, elurte, haizete*, etab.

-**tegi**: Leku-izenak eratzeko erabiltzen da. Adib.:

Errenteria, *…euskaltegian geldituak giñan…*[78]

-**tza**: Izen abstraktuak eratzeko erabiltzen da mendebaldeko atzizki hau. Adib.:

Naigabez betetako bizitza auxen da…![79]

-**zai**(**n**): Ogibidea adierazten du. Adib.:

Zarautz inguruan izan zan artzai xelebre bat[80].

-**zale**: Zaletasunak eta ogibideak adierazten ditu. Adib.:

Orio, *…kamiozaliak, ostiala baldimba deskargatu ta itxea jun nai du…*[81]

b) Adjektibo-atzizkiak

-**garri**: Ikus izen-atzizkiak.

-**kor**: Joera adierazten du atzizki honek. Adib.:

Praile bizkorra, kementsua eta Arantzazu-zale purrukatua[82].

-**tsu**: Ugaritasun-ñabardura gehitzen du morfema honek. Adib.:

Oiartzun, *…euzkitsua, euzkiya baldim bada…*[83]

-**txo**: Txikigarriak eratzeko erabiltzen da. Adib.:

Errenteria, … eta amatxok esan zion plazara jun ber tzula…[84]

78. B-07-VII-13, I:2. Ik. 6.1.2., 89. or.
79. Euskaracorpusa, Onaindia 0155.
80. Euskaracorpusa, A. Zavala 0031.
81. Iturain 1995:201.
82. Euskaracorpusa, D. Garmendia 0046.
83. Fraile 1996:100.
84. A-07-VII-11, I:4. Ik. 6.1.2., 89 or.

c) Aditz-atzizkiak

Aditzari eta haien egiturari buruz esandako guztia kontuan izanik, gorago aipatu duguna gogoratu besterik ez dugu egingo hemen. Aditz berriak sortzeko erabiltzen diren atzizkiak aipatuko ditugu labur-labur, gauza batzuk errepikatzeko arriskua izan arren.

Gorago azaldu gugunez, *-i, -n* eta *-tu* dira aditz-partizipioa eratzeko erabiltzen diren atzizkiak. Hiru horietatik, azkenekoa da oraindik funtzionala den bakarra eta aditz berriak eratzeko erabiltzen den bakarra. Azkenik, *-tu* atzizki hori beste bi bukaerei erantsita forma analogikoak sortzen zituen garai batean: *egondu*, *izandu*, etab.

d) Adberbio-atzizkiak

Ikus 4.1.2.

e) Aurrizkiak

Euskarazko aurrizkien zerrenda atzizkiena baino askoz ere laburragoa da, inondik ere. Aurrizkiak egon badaude eta erabili erabiltzen dira, baina sintaxiari lotuta gehienbat (*bait-*, adibidez). Batzu-batzuk aipatuko ditugu hemen.

Aurre-: cfr. latinezko *pre-* (izenekin eta aditzekin): *aurreikusi.*

Ba-: baiezko aurrizkia (aditzekin): *badatoz.*

Bait-: kausazko aurrizkia (aditzekin): *etorri baita (er)e.*

Ber-: cfr. latinezko *re-* (izenekin eta aditzekin): *Berre(g)in.*

Des-: cfr. latinezko *des-* (aditzekin): *dese(g)in.*

Ez-: cfr. latinezko *in-, des-* (adjektiboekin eta aditzekin): *ezeza(g)un.*

V. Hitz-elkarketa

Euskaraz asko erabiltzen da hitz-elkarketa izenak eta osatzeko. Hitz-elkarketako osagaietako bat lexikalizatu eta atzizki ere bihurtzen da askotan. Horixe gertatu da gorago, atzizkien artean, aipatu ditugun zenbait osagairen kasuan. Eta multzo horretakoak dira *-zai(n)*, *-gile*, *-zale*, etab. Osagai horietako bakoitzaren esanahia argi samar agertzen zaigu. *-zai(n)* atzizkiak "zaintzen edo gordetzen duena" esan nahi du eta, hitz horretatik abiatuta, *artzai*(*n*), *ertzai*(*n*) eta *erizai*(*n*) izenak sortu dira, esate baterako. Hiru hitz horiek *zai(n)* lexema dute eta zaintzen dutena adierazten duen beste lexema bat: ardiak (*artzain*), herria (*ertzain*) eta eriak (*erizain*).

Lexema horiek nola banatzen diren ulertzeko, euskara zein hizkuntza motatakoa den hartu behar dugu aintzakotzat, noski. IO + I motatakoa da euskara, hau da,

izen-osagarria izenaren ezkerrean agertzen da. Hortaz, eta aurreko adibidearekin jarraituz, egitura hau erabili da *artzain* izena osatzeko:

ardi(en) zain- a > ard(i)zain> artzain
IO I

Ez gara atal honetan gehiago luzatuko, dialektologiari dagokionez, eridaldeko euskaran eta gainerako dialektoetan bide bera erabiltzen baita hitzak elkartzeko. Gertatzen diren prozesu fonologikoak ere euskara osoan agertzen dira, ez bakarrik erdialdeko euskaran[85].

4.1.3. Sintaxia

Euskararen sintaxia oso homogeneoa da eta hizkuntzaren berezko ezaugarriak euskalki eta aldaera guztietan agertzen dira. Ezaugarri komunak azaletik azaldu, eta erdialdeko euskararen berezitasunei erreparatuko diegu arreta handiagoz.

I. Osagaien hurrenkera

Euskaran, perpausen osagaiek askatasun handia dute perpausan kokatzeko, baina, halere, berez SOA motako hizkuntza da euskara eta, hortaz, horixe da osagaien hurrenkera ez-markatua. Horrek ez du esan nahi hurrenkera neutro hori komunikazio-asmoen arabera aldatu eta osagai batzuk fokalizatu ezin direnik. Euskarak hainbat bitarteko ditu perpauseko osagaiak nabarmentzeko.

Ere partikula dugu, batetik, euskalki guztietan agertzen dena. Izen-sintagmen eta adberbio-sintagmen atzetik agertzen da normalean. Adib.:

Pasai San Pedro,…*Geo beste rrepublikan berris e asaldu san*[86].

Aditzak fokalizatzeko ere erabiltzen da. Adib.:

Pasai Donibane,…*guk esta isautu re*…[87]

Fokusa nabarmentzeko beste bitarteko bat *egin* aditza erabiltzea da. Aditzarekin bakarrik erabiltzen da, aditz horrek dituen forma fonetiko guztietan. Aurreko atalean azaldu dugunez, *egin*en erabilera mendebaldeko berrikuntza da berez eta, hortaz, mendebaldeko eta erdialdeko euskaran erabiltzen da gehienbat. Adib.:

---

85. Hitz elkartuen egitura fonologikoari buruzko azterketa sakonago baterako, ikus Mitxelena 1997 (343. orrialdetik aurrera).
86. Agirretxe 2000:237.
87. Agirretxe 2000:226.

Pasai San Pedro,…*korrientiak eamaten ite sun*…[88]

Hondarribia, …*geldittu in da Irun*…[89]

Batzuetan bi fokalizatzaileak aurkitzen ditugu perpaus berean. Adib.:

Pasai Donibane, …*oyek ere aldatu in dia denak*…[90]

Azalpen hauek kontuan hartuta eta egitura sintagmatikorantz gerturatuz, kontuan eduki behar da "edukitzailea-edukia" motako egitura duela euskarak. Lehenago ere aipatu dugu izen-sintagmen egitura eta, hortaz, hara jo behar dugu hemen ere. Maila dialektologikoan, erdialdeko euskarak ez du inolako berezitasunik gainerako euskalkien aldean.

II. Ezezko perpausak

Aurreko puntuan esan dugunez, SOA da perpauseko osagaien egitura neutroa. Ezezko perpausen egitura, aldiz, egitura markatua da. *Ez*[91] adberbioa erabiltzen da ezezkotasuna adierazteko, eta perpausaren egitura aldatu egiten da: $S^{EZ}A^{JOK}O$.

Gainera, perpausak aditz perifrastikoa badu, ezezko partikulak aditz laguntzailearen ondoan joan behar du nahita ez, eta aditz-osagaien hurrenkera aldatu egiten da orduan. Hala, *partizipio/aditz-izena + laguntzailea* hurrenkeratik *EZ + laguntzailea + partizipioa/aditz-izena* hurrenkerara pasatzen gara. Adib.:

Etorri dira, ez dira etorri.

Beste berezitasun aipagarri bat aipatu behar dugu hemen: ezezko perpaus baten objektu gisa jarduten duten sintagmek partitiboan (*-rik(an)*) atzizkia hartu behar dutela gehienetan. Adib.:

Orio, …*eskobik guk ez gendun*…[92]

Aipatu ditugun berezitasun hauek guztiak euskararen hedadura osoan agertzen dira, ez erdialdeko euskalkian bakarrik. Sintaxi-mailan, erdialdeko euskarak ez du inolako ezaugarri berezirik, baina mendebaldeko blokean, ezezko konpletiboetan aditz-atzizki bat erabiltzen da. Adib.:

Oiartzun, …*eztut uste egwaldi txarra zenik*…[93]

---

88. Agirretxe 2000:232.
89. 09EL, in Sagarzazu.
90. Agirretxe 2000:228.
91. 4.1.1. puntuan aipatu ditugu ezezko adberdioak eragiten dituen fenomeno fonologikoak.
92. Iturain 1995:196.
93. Fraile 1996:148, hemen aipatua: Zuazo 2003:185.

III. Galde-perpausak

Galde-perpaus zuzenek ez dute inolako morfema bereizgarririk hartzen. Adib.:

Orio, *…nungua aiz?*[94]

Zehar-galderek, aldiz, *-(e)n* aditz-atzizkia hartu behar dute. Adib.:

Orio, *…Bakizu zer da<u>n</u>, arbiya?*[95]

Zehar-galderen eta galdera zuzenen arteko bereizketa hori euskara osoan agertzen da, baina, horrez gain, erdialdeko euskarako bai-ez erako galde-perpausak zuzen bereizten dituen beste ezaugarri bat dago. Halako galderetan bai-ez erako izaera azpimarratzen duten morfema batzuk erabiltzen dira euskalki batzuetan. Nafar-lapurteran eta ekialdeko zenbait hizkeratan, *-a* aditz-atzizkia erabiltzen dute, esate baterako. Adib.:

Kùsizín → kùsizína<u>a</u>?[96]
baiezkoa galderazkoa

Mendebaldeko euskarak ere partikula bat dauka erabateko galde-perpausak indartzeko, *ala* galderazko juntagailu hautakaritik sortua izan litekeena. Aditzaren aurrean jartzen da eta zerbait baieztatzeko funtzio faktikoa betetzen du. Ikus dezagun mendebaldeko euskarako adibide bat:

Estakik ni nungua naisen, <u>ala</u>?[97]

Erdialdeko euskaran, *al* partikulak betetzen du funtzio hori, et adizki jokatuaren aurre-aurrean jartzen da.

Xebera igo <u>al</u> desute, ta… ikusten <u>al</u> dek?[98]

Aipatu ditugun forma eta funtzioen arteko antza ikusita, pentsatzekoa da guztiak ere euskara komuneko[99] partikula beretik datozela, eta bakoitza bere euskalkiko fonologia eta ohituretara egokitu ahala sortu zirela azken formak.

---

94. Iturain 1995:189.
95. Iturain 1995:196.
96. Salaberri, P. "Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan", in Zuazo 2000:242.
97. Zuazo, K. "Debabarreneko euskara", in Zuazo 2000:40.
98. Agirretxe 2000:233.
99. Euskara arruntari buruz ari garenean, Núñez Astrainek (2003:25) erabilitako zentzuan egiten dugu.

IV. Juntadura

Perpausak juntagailuen bidez koordinatzen edo elkartzen dira. Euskaraz erabiltzen diren juntagailuak modu metodikoan azaldu ahal izateko, erabiltzen direneko perpaus koordinatuen arabera sailkatuko ditugu.

• **Emendiozkoa:** Hauek dira emendiozko juntagailu arruntenak: *(e)ta,* koordinatzen dituen osagaien artean jarrita; *(er)e bai*, *baita/ezta* *(er)e* bigarren osagaiaren ondoren jarrita.

• **Hautakaria:** *Edo* da gehien erabiltzen dena, eta ahoskera desberdinak ditu, eremuaren arabera: [‘eo/o/’ero/ro].

• **Aurkaritzakoak:** Hauek dira aurkaritza-balioa duten juntagailuak: *baña/baño/biño/miño*, *bestela*, *berriz*, *baizik(an)*, etab.

• **Banatzaileak:** Banatzaileen artean hauek aipatuko ditugu: *bat… bestea/batzuk… besteak.*

• **Ilatiboak:** *Bada* da arruntena, baina gehiago ere badaude: *be(r)az*, *alabada*, etab.

V. Menderakuntza

Euskaraz, aditz-hizki batzuk erabiltzen dira perpausak menderatzeko. Aurreko puntuan egin dugun bezala, haiek erabilita osatzen diren perpausaren arabera banatuko ditugu aditz-hizki horiek.

• **Perpaus konpletiboak:** Perpaus konpletiboetan perpausaren modalitatea hartzen da kontuan. Adierazpen-perpausetan *-(e)la* atzizkia erabiltzen da, perpaus nagusia baiezkoa bada. Adib.:

…nik esatet Oriyoko erriya mundun etzala izango e![100]

Perpaus nagusia ezezkoa bada, berriz, *-(e)nik(an)* atzizkia erabiltzen da. Adib.:

…eztut uste egwaldi txarra zenik[101].

Bestalde, perpaus konpletibo batzuek ez dute aditz jokaturik behar. Aginteperpaus konpletiboek, adibidez, aditz jokatuari morfema eranskaria gehitu beharrean, *-ko* morfema gehitzen diote aditz-izenari:

100. Iturain 1995:200.
101. Fraile 1996:148.

... Ezetz esateko esan ez du, ba?[102]

• **Perpaus erlatiboak:** Hizkuntza indoeuropar gehienetan *ez* bezala, euskaraz *ez* dago izenordain erlatiborik, eta mendeko perpaus adjektiboak eratzeko *-(e) n* aditz-atzizkia gehitzen zaio mendeko perpauseko aditzari. Bi perpausok (IO+I egiturakoak, noski) hurrenkera hau dute: Mend. P + P Nag. Hala, perpaus adjektiboan erreferentzia egiten zaion osagaia mendeko perpausaren atzean agertzen da. Adib.:

... Musikik etzan egunian[103].

• **Perpaus adberbialak:**

- Perpaus kontzesiboak: Hainbat modutara adieraz daiteke kontzesioa. Batetik, *arren* morfema erabil dezakegu, mendeko aditzaren atzean. Aditz hori jokatuta erabil daiteke edo partizipioan. Halere, forma hau *ez* da batere arrunta Pasaian, *ezta* Beterrin *ere*, Uroraldean eta mendebaldeko euskalkian erabiltzen baita gehienbat. Adib.:

...Aduanan ofizinan iñ arren...[104]

Gero eta gehiago erabiltzen den beste forma bat dago: *naiz*[105]. Normalean aditz-partizipioarekin erabiltzen da, eta hainbat aldaera ditu: *naiz eta*, *naiz ... ere*. Perpaus kontzesiboak eratzeko beste bide bat partizipioari *-ta* morfema eta atzetik *ere* partikula gehitzea da. Hurrengo adibidean aipatu ditugun bi bide agertzen dira, batera. Adib.:

...berua izaten da lañua izan<u>da</u> <u>re</u>, <u>naiz</u> ola lañua eon<u>da</u> <u>re</u>...[106]

- Baldintzazko perpausak: Baldintzazko perpausak *baldin ba-* erabiliz osa daitezke (aldaera fonetiko guztiekin), edo *ba-* gehituta, aditz jokatuaren aurrean. Adib.:

...ta launa ber baldin baek, Gorriya or tzeok...[107]

Baldintza adierazteko beste modu bat aditz-partizipioa erabiltzea da, aditza jokatu gabe beraz. *Ezkero* eta *ezik* partikulak erabiltzen dira horretarako, aditzaren atzean. Azkenekoa ezezko baldintzak adierazteko erabiltzen da.

---

102. Alzaga 1994:68.
103. Elortegi 1997:54.
104. Elortegi 1997:54.
105. *Nahiz*, euskara batuko ortografian.
106. Fraile 1996:140.
107. Iturain 1995:190.

- Konparazio-perpausak:

-Berdintasunezkoak: *Bezelako* eta *bez(a)in* partikulen bidez osatzen dira, kalitate aldeko berdintasuna adierazten duten konparatiboetan; eta *a(d)ina* eta *hainbeste*, berriz, kantitate aldeko berdintasuna adierazten duten konparazio-perpausetan.

-Nagusitasun edo gutxiagotasuna: "Y *baino* (eta aldagaiak)…X *-(ag)o*" da formularik arruntena eta euskalki guztietan gehien erabiltzen dena. Hurrenkera alda daiteke: "X *-(ag)o*… Y *baino*". Adib.:

> *Eskabet*xeruak *nayo zuten ua arrayura bestia bañon*[108].

Beste egitura hau ere erabiltzen da: "*hain/hainbeste X nola Y*".

- Perpaus modalak: Erdialdeko euskaran erabiltzen diren egitura modalen artean *bezela* juntagailua daukagu. Mendean hartzen den aditzari gehitzen zaio, atzetik. Adib.:

> *Len esan degun bezela, izena onekin, iriki zituan bere eskolak Bergarako Seminario-ak 1766-garren urtean*[109].

Beste egitura batzuk: *-(e)nez* eta *-(e)la* gehitzea aditz jokatuei, *-ta* eta *-z* gehitzea partizipioei, edota *-n modu(a)n, -(e)n gisan* egiturak. Adib.:

> *…emen sartzeko zutik ibiltzen dela ber du…*[110]
>
> *…far pixka batzuek iñez…*[111]
>
> *…ta, taberna guztik danak beteta ta, taberna artu zuen…*[112]

- Kausazko perpausak: Mendeko perpausetan, hainbat modutara adieraz daitezke kausak. Batetik, kausazko atzizkiak erabil daitezke: *-(e)lako* eta *-la (e)ta* adizki jokatuekin eta *-gatik* adizki ez jokatuekin. Adib.:

> *…gu oso lotua egondu gea arraunean ibiltze giñalako…*[113]

Bestetik, *bait-* aurrizki kausala erabil daiteke. Adib.:

> *…Nik ezpaitiet erderaz eiten beai…*[114]

---

108. Elortegi 1997:55.
109. Euskaracorpusa, E. Urroz 0311.
110. Fraile 1996:141.
111. Elortegi 1997:55.
112. Iturain 1995:190.
113. Agirretxe 2000:242.
114. Elortegi 1997:54.

Egitura erromanikoa kalkatuz, kausazko juntagailu gisa erabiltzen diren galdeadberbioak ere badaude, *zergatik(an)*, adibidez. Eredu horri jarraiki osatu da honako esaldi hau, esate baterako:

> *…Gipuskuan bertan ere bazegoen, zergatikan Lesaka eta Oyartzunen arteko eman da [kontrabandoa]…*[115]

Aditza + *eta* da mendeko perpaus kausalak osatzeko beste bide bat. Mendebaldeko talde osoan agertzen da berrikuntza hori eta *-(e)la* adberbio-atzizkiarekin indar daiteke, kausazko atzizkiak aurkeztu ditugunean esan dugun bezala: *-(e)la eta*. Adib.:

> *… egaluxetan ta denian ibiltze giñan ta*[116].

- Denborazko perpausak: Erdialdeko euskarak atzizki eta egitura batzuk dauzka denbora-aspektu desberdinak adierazteko. Atzizkiei dagokienez, *-(e)nean*, *-(e)la*, *-(e)n arte* eta *-(e)n bitartean* erabiltzen dira denbora-ñabardura desberdinak adierazteko; bai eta *-ta*, *baino lehen(ag)o/lehenagoztik, arte, (e)ta ge(r)o* gehi partizipioa; eta *-(r)ako, -ean* gehi aditz-izena ere. Adib.:

> *…gero lanian ari naizenian, nere gisa ekiten diot…*[117]
>
> *…aita il tzan nik zazpi urte nitula…*[118]
>
> *…natorren arte…*[119]

- Helburuzko perpausak: Gainerako mendeko perpausak bezalaxe, helburuzko mendeko perpausak adierazteko hainbat bide dauzkagu aukeran: atzizkidun adizki jokatuak, aurretik aurrizkia edo mendeko juntagailu gisako bat dutenak, adizki ez nominal jokatuak eta mendeko osagairen baten eragina jasotzen dutenak.

Erdialdeko euskaran, adizki jokatuekin osatutako helburuzko perpausak subjuntiboan egiten dira. Halere, helburua adierazteko arruntagoa izaten da adizki ez nominalak erabiltzea. *-Ko, -(r)a* eta *-agatik(an)* morfemak eransten zaizkio aditz-izenari.

> *…familiya etorri zai neon Ernania eo orrea juteko*[120].
>
> *…ta joaten giñan deskargatzea Sampedroa…*[121]

---

115. C-07-VII-09, II:2. Ik. 6.1.2., 89. or.
116. Agirretxe 2000:165.
117. Alzaga 1994:24.
118. Iturain 1995:189.
119. Etxabe 2003:112.
120. Iturain 1995:189.
121. Agirretxe 2000:151.

4.1.4. Lexikoa

Erdialdeko euskarako lexikoa bost talde handitan sailka daiteke, oro har. Batetik, euskara osoan agertzen diren izenak daude, euskalki guztietan erabiltzen direnak, alegia: *aita, ama, ur, su, lur, beso, eztul, orratz, arrano, aker, edan*[122], etab.

Mendebaldeko blokea osatzen duten euskalkietako hitzak aurkitzen ditugu bigarren taldean: *agindu, alkandora, asko, baso, ezer, kale, hobeto, saguzar*[123], etab.

Euskal Herri erdialdeko euskalkietan erabiltzen badira ere, euskalki jakin batekoak (nafarrerakoak, nafar-lapurterakoak nahiz gipuzkerakoak) ez diren hitzek osatzen dute hirugarren blokea. Adibidez: *a(d)itu* "entzun", *atera* "irten", *bota* (Zuazo 2003:174), etab.

Laugarren blokean erdialdeko euskalkian bakarrik erabiltzen diren hitzak jasotzen dira, hau da, beren eremuan bakarrik erabiltzen direnak eta, beste hizkera batzuetara zabaldu arren, beste hizkera haietan orokortu egin ez direnak. Adibidez: *agertu*, *aitona* eta *amona*, *erromako zubi*, *eskum(u)in*, *esnai*, *esnatu*, *faborez*, *galde*, *ilbeltz*, *isats*, *kai*, *korrika*, *laga/laja*, *mami*, *mingain*, *triku*[124], etab.

Azkenik, erdialdeko euskararen hedadura osoan ez baizik eta azpi-euskalkian bakarrik edo herri jakin batean bakarrik erabiltzen diren hitzek osatzen duten bosgarren blokea. Hortxe kokatzen dira hitz hauek: *ausi*, *galein*, *baltzen in*[125], *bebarro*[126], etab.

4.2. Erdialdeko euskarako tarteko hizkerak: Irunaldeko kasua

Erdialdeko euskaratik nafarrerako euskararako iragaitean aurkitzen ditugun hizkerak –berez Gipuzkoako lurralde administratiboaren barruan egon arren– batzuetan erdialdeko euskararen eta bestetan nafarreraren nahiz nafar-lapurteraren barruan kokatzen dituzten isoglosen artean daude.

Oiartzunen, Irunen, Hondarribian eta Aranon erabiltzen dira hizkera horiek. Dena den, ikerlari guztiek ez dute hori modu berean interpretatzen. Bonaparteren lanean oinarrituta, iraganean egindako sailkapen guztiek ipar-nafarreran kokatzen zituzten hizkerok, Irungo aldaeraren barruan hain zuzen ere. Gainera, aurreko sailkapenei begiratuz gero, ikusiko dugu Bonapartek (Pagola 1991:148 eta 150) talde horretan sartzen zituela Lezoko, Aranoko eta Goizuetako hizkerak eta Yrizarrek

122. Zerrenda luzeagoa lortzeko, ikus Zuazo 2003:161-164.
123. Zerrenda luzeagoa lortzeko, ikus Zuazo 2003:186-187.
124. Hitz-zerrenda hemendik atera dugu: Zuazo 2003:127, baina Bonaparteren testuetako hitz batzuk ere gehitu ditugu.
125. Iturain 1995:95.
126. Del castillo 2001:36-37.

(1992, II. libk.:367) eta Mitxelenak (1950:94)[127] Errenteriako hizkera ere hortxe sartzen zuten.

Guk, ordea, gorago esan dugunez, Koldo Zuazoren sailkapena erabiltzen jarraituko dugu eta, ondorioz, hizkera horiek (Oiartzungoa, Irungoa, Hondarribikoa eta Aranokoa) erdialdeko euskararen barruan sartuko ditugu, nafarreraranzko tarteko hizkeren ezaugarriak izan arren, eta Errenteriako eta Lezoko hizkerek erdialdeko euskararen eta erdiguneko azpi-euskalkiaren berezitasunak ere izan arren. Hurrengo kapituluan aztertuko dugu azken puntu hori.

Nabarmentzekoa da, bestalde, hizkerak gero eta gehiago homogeneizatzen ari direla azken urteotan, euskara batuaren eraginez beharbada, eta, horren ondorioz, edozein azterketaren emaitzak aldatu egingo lirateke berriemaileak gazteak ala adinekoak diren arabera (Zuazo 2003:131). Izan ere, gazte gehienak euskara batuan daude alfabetatuta, eta hizkeren homogeneizazioa dakar horrek, argi eta garbi ikusten den moduan.

Hemen erabiliko ditugun materialak hainbat iturritatik hartu ditugu. Bibliografiara ere jo dugu (Sagarzazu 2005, Fraile 1996, Yrizar 1992 eta Zubiri 1998) eta Mikel Lersundik Oiartzunen eta Hondarribian egindako grabazioak ere erabili ditugu, azkenik.

Grabazioei dagokienez, Koldo Zuazok grabatutako Oiartzungo Mari Karmen Iraztortza eta Hondarribiko Ana Ribaguda Egurrola berriemaileen grabazioak erabili ditugu.

4.2.1. Tarteko hizkeren ezaugarri orokorrak: hedadura geografikoa eta sailkapena

Gipuzkoako Oiartzungo, Irungo eta Hondarribiko hizkerak eta Nafarroako Aranoko hizkera sartzen dira Irunaldeko hizkeren barruan. Erdialdeko euskararen ekialdeko aldaera osatzen dute hizkera horiek, Basaburuko, Larraungo eta Imotzeko hizkerekin batera. Denen artean erdialdeko euskaratik nafarreraranzko joera markatzen dute hizkera horiek.

Aipatu ditugun hizkeren *tarteko* izaera kontuan hartuta, hizkera horien ezaugarriak bildu ditugu hemen, bakoitzaren joeraren arabera. Dena den, guztiek ere erdialdeko euskararekin bat egiteko joera dutenez, gure sailkapenean aurrera egiten laguntzen diguna baino ez dugu aipatuko hemen.

127. Ikus 2. kapitulua.



12. mapa

I. Azpi-euskalki hau nafar hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:

a) Bokal-erortzea, ahultzearen ondorioz: Aferesia oso ohiko prozesua da, eta nafar hizkeretan ere askotan gertatzen da. Hala, askotan agertzen zaizkigu forma hauek: *(e)kárri, (e)kúxi, (e)sagútu, (i)sándu*[128], etab.

Sagarzazuren arabera (2005:63), Hondarribiko eta Irungo hizkeretan edozein bokal eror daiteke aferesiaren eraginez, */a-e-i/* bereziki. Sinkopa horiek silaba azentudunaren aurreko nahiz ondorengo silaba azentugabeetan gertatzen dira bereziki: *(e)tórri, Ondárr(i)biya, arráya(ga)tik*, etab.

Oiartzunen ere indar handia dauka ezaugarri horrek eta askotan agertzen da. Geroaldiko aditzetan, adibidez, */i/* bokala galtzea oso arrunta da: *karko, ekarriko*ren ordez (Zuazo 2003:409). Aranon ere gauza bera gertatzen da: *akórtu*, *akordatu*ren ordez; *bedétzi*, *bederatzi*ren ordez, etab.

Ikusi dugun bezala, ezaugarri honek aztergai ditugun hiztunen artean indar handia badu ere, ez da arrunta erdialdeko hizkeretan. Nafarreran, aldiz, oso arrunta da joera hori. Arantzako nafarrerako forma sinkopatuak aipatuko ditugu, adibide gisa: *akáwtu, akabatu*ren ordez; *arráwtu*, *arrapatu*ren ordez; *eskáwtu*, *eskapatu*ren ordez; *illáwte*, *hilabete*ren ordez; *iráwzi*, *irabaxi*ren ordez… (Zuazo 1997:410).

128. Sagarzazu 2005:63.

Kontsonante-galeraren beste kasu bat lehenaldiko *-/n/* sudurkariarena dugu. Baina galera hori *ez* da aipatu berri duguna bezain orokor edo sistematikoa, eta kasu gehienetan, *ez* da galtzen sudurkaria. Halere, nafarreran *ere* agertzen den ezaugarria delako erabaki dugu hemen aipatzea.

b) Bokal batzuen tinbrea aldatzea: Aditz-erroetako amaierako */u/* eta */i/* bokalek batzuetan izaten duten irekitzeari helduko diogu orain. Hala, *diru* beharrean *diro* esaten da batzuetan. Nafarroa mendebaldeko hizkerek *ere* ezaugarri fonetiko hori bera dute (Zuazo 1997:410). Dena den, ezaugarri horrek oso indar gutxi du Irunaldean eta gutxi samarretan agertzen da. Adib.:

Hond., *... artō kotxjak...*[129]

Irun, *... arron farola...*[130]

c) Goranzko diptongoak: Irunen eta Hondarribian oso arruntak dira goranzko diptongoak. Sistematikoki agertzen dira *-e* edo *-o* bokaletan amaitutako erroekin edota kontsonantez bukatutako erroak inesibo-marka jasotzean. Bi kasuetan *ere*, [ja] eta [wa] goranzko diptongoak sortzen dira silaba azentugabeetan, bai eta silaba azentudunetan *ere*, diptongoa lexeman gertatuz gero. Adib.:

Hond., *...kamíywa besela...*[131]

Hond., *...iru autobus Donostikwak jwáten txjuken...*[132]

d) *Deus* izenordaina: Izenordain negatibo hori ekialdeko hizkera guztietan erabiltzen da, eta mendebaldeko euskalkien blokeko *ezer*en parekoa da. Hemen aztergai ditugun hizkeretan, zenbait ingurunetan *deus* eta *ezer* batera erabiltzen dira eta *ez* dirudi bata eta bestea noiz erabili behar den erabakitzeko araurik dagoenik. Hala, bi formak batera ager daitezke esaldi berean. Adib.:

Oiartz., *...guk eztugu sekulan pentsatu deus e guri ingo igutenik ta ezer e*[133]*...*

e) *Arrunt/arront* adberbioa: Irunen, Hondarribian, Oiartzunen eta Aranon *arrunt* erabiltzen dute *oso* adberbioarekin batera, eta askotan bokala ireki eta *arront* esaten dute. Dena den, *arrunt/arront* adberbioaren erabilera galtzen ari da, eta gazteek *ez* dute askorik erabiltzen. Adib.:

Oiartz., *...gañekun arrunt ona da*[134]*...*

---

129. 14GO, in Sagarzazu.
130. 07IG, in Sagarzazu.
131. 15UL, in Sagarzazu.
132. 15UL, in Sagarzazu.
133. Fraile 1996:180.
134. Faile 1996:88.

f) Etorri / heldu*:* Gauza jakina da nafar hizkeretan *heldu* aditza erabiltzen dela *etorri* aditz trinkoaren ordez (Sagarzazu 2005:79). Aztertzen ari garen hizkeretan aditz trinko hori nola erabiltzen den aztertuz gero, nafarreraren eredua nagusitzen dela ikusiko dugu, salbuespenak salbuespen. Adib.:

Oiartz., …*Goizutatik eldu nitzan*…[135]

Hond., … *ta leorrjan e bai aurrerapena se eldu den*…[136]

g) Lehenaldi trinkoak: Mendebaldeko blokean, lehenaldi trinkoen erroan */e/* bokala erabiltzen da: orainaldian *dabil* esaten da, eta lehenaldian *zebilen*. Ekialdeko blokean, aitzitik, lehenaldia ere */a/*-rekin osatzen dute: *zabilen*. Irunaldeko tarteko hizkeretan bi aditz-jokoak tartekatzen dira, nahiz eta bai Irunen bai Hondarribian joko trinkoa galtzen ari den eta oso gutxi erabiltzen den, joko perifrastikoaren mesedetan[137].

Nolanahi ere, Oiartzunen *zebillen/zabillen* aurkitzen ditugu, eta Irunen eta Hondarribian, *zabillen*, *zagon*, baina */a/*-rekin osatutakoak dira gehien-gehien erabiltzen direnak. Adib.:

Oiartz., …*nakan*… (*neukan*en ordez).

h) *edun laguntzaile iragankorra: Euskalkien sailkapen tradizionalaren arabera, Nor-Nork motako aditz laguntzaile iragankorrak (subjektua eta objektu zuzena dutenak) */e/* erroarekin osatzen baziren, erdialdeko euskalkien artean sailkatzen ziren, eta */u/* erroarekin osatzen zirenak, berriz, ekialdekoen artean.

Irunaldeko tarteko hizkeren artean */u/*-z osatutako formak dira nagusi. Dena den, Sagarzazuk (2005) azpimarratzen duenez, hiztunek */e/*-z osatutako formak erabiltzen dituzte, elkarrizketari formaltasun handiagoa eman nahi diotenean.

Guk hemen Nor-Nork laguntzaile iragankorra jaso dugu ondorengo taulan, orainaldian eta lehenaldian eta objektu zuzen singular eta pluralarekin. Morfologian batasun handia dagoenez, hizkera guztietan erabiltzen ez diren formen kasuan bakarrik zehaztu dugu forma horiek zein herritan erabiltzen diren: I. = Irun, H. = Hondarribia, O. = Oiartzun, eta A. = Arano.

135. Fraile 1996:127.
136. 02JLA, in Sagarzazu.
137. Sagarzazu 2005:78.

NOR-NORK		
	Orainaldia	***Lehenaldia***
1. sg.	*Dut // ttut*	*nuen // nittuen* *O., nu(e)n // O., nittu(e)n* *A., nun // A., nittun*
2. sg. ***hika***	*Duk/dun // ttuk/ttun*	*ni(k)en/niñen// nittien/nittiñen* *A., nin/niñen // A., nizkin/ nizkiñen*
3. sg.	*du // ttu*	*zuen // zittuen* *O., zu(e)n // O., zittu(e)n* *A., zun // A., zittun*
1. pl.	*du(g)u // ttugu* *A., gu // A., ttu(u)*	*genuen // genittuen* *O., genun // O., genittun* *A., giñu(e)n // A., gin(i)ttun*
2. sg. ***zuka***	*duzu // ttuzu*	*zenuen // zenittuen* *O., zenun // O., zenittun* *A., ziñun // A., zin(i)ttun*
2. pl.	*duzute/duzue // ttuzute* *H., duzia/duzute // H., ttuzia/ ttuzie* *A., zue/duzue // A., ttuzue*	*zenuten //zenittuzten (H.O., ziñusten)* *A., zinuen/ziñuen // A., zin(i)ttuen*
3. pl.	*dute // ttu(z)te* *A., due // A., ttue*	*zuten // zittuzten* *A., zuen // A., zittuen*

Ikusten denez, goiko taulako adizkiak oso homogeneoak dira eta, oro har, ekialdeko ezaugarriak dituzte, */u/* erroa, esate baterako.

Nor-Nori-Nork paradigmari dagokionez, objektu zuzen pluralaren marka aipatuko dugu bakarrik. Nafarreran, Nor-Nori-Nork erako laguntzaileen objektu zuzenaren pluralgilea Nor-Nork paradigmako berdina da, hau da, *-it-*, eta askotan [c]. Nafarreraren ezaugarri hori adizki hauetan agertzen da, adibidez: *nittion*[138], *nizkion*en ordez; *ttiozu*, *dizkiozu*en ordez eta *ttiozube*, *dizkiozue*en ordez.

i) <u>*-ketari* eratorpen-atzizkia</u>: Hizkera honetako izen-atzizki gehienak gainerako euskalkietan erabiltzen diren berdinak dira. Baina Irunaldean eta Nafarroa Garaian *-keta(r)i* atzizkia aurkitzen dugu, hitz jakin batzuen atzean jarrita, *zer-*

138. Adizki hauek hemendik atera ditugu: Yirizar 1992, IV. eta VI. koadroak Uharte-Arakileko aldaerakoak dira.

baiten saltzailea adierazteko[139]. Adib.: *arraiketa(r)ya, ogiketa(r)ya* (Oiartzun), *esnekatari* (Irun eta Hondarribia), etab.

j) Bait- morfema: *Bait-* aurrizkiaren erabilera nabarmendu behar dugu hemen. Irunen, Hondarribian eta Oiartzunen kausazko perpaus adberbialak osatzeko erabiltzen da, eta Oiartzunen horixe da kausazko perpausetan gehien erabiltzen den forma (Fraile 1996:132*).*

Gainera, ekialdeko hizkeretan, erlatibozko esplikatzaile gisa ere erabiltzen da *bait-* hori. Seguruenik kausazko esplikatzaile gisa erabiltzetik iritsiko zen perpaus adjektibo esplikatzaile gisa erabiltzera. Adib.:

…Patxo Rodrigez, Irunen, Alardjan jwaten bajta jeneral, …[140]

k) Lexikoa: Ekialdeko lexikoa, nafarrerakoa bereziki, galtzen ari da, eta erabiltzen diren hitzak mendebaldeko hitzekin batera agertzen dira, normalean: *arrunt/arront* erabiltzen dira mendebaldeko *oso*rekin batera; *azkar, indartsu* adieran (O.); *betti* eta *gotti* (H., I.); *deus,* mendebaldeko *ezer*ekin batera; *konten(t), paratu* eta *jarri* (H., I.), *solasian* (O.), etab.

II. Azpi-euskalki hau erdialdeko euskarako hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak

a) Mendebaldeko joerako zenbatzaileak: Mendebaldeko zenbatzaileak erabiltzen dira: *bi*, *hiru*, *lau*, *bost*, *hamaika…*

b) Adlatiboa: Adlatibo mugagabeak eta mugatu pluralak bat egiten dute *-(e)tara* forman, eta mugatu singularrean, berriz, *-(e)ra* erabiltzen da. Amaiera horiek mendebaldeko taldekoak dira berez eta, hortaz, tarteko hizkera hauek hortxe egiten dute bat.

Irun, … *dendara etortzen sen…*[141]

Oiartz., … *kompaaziyo batea joten…*[142]

Hondarribian, eta bereziki Irunen, *-era* markaren ondoan *-ara* erabiltzen dute.

Irun, … *onara etortzen…*[143]

139. Fraile 1996:98; Camino, in Zuazo 2000:72; Sagarzazu 2005:73.
140. Zuazo 1997:401.
141. 11EL, in Sagarzazu.
142. Fraile 1996:177.
143. 05EL, in Sagarzazu.

c) Izan laguntzaile iragangaitza: Laguntzaile iragangaitza mendebaldeko blokean txertatzen da batzuetan, eta ekialdekoan beste batzuetan. Argi eta garbi ikusten da, beraz, Erdialdeko euskaratik nafarreranzko zubi-lana egiten dutela hizkera hauek, pluraleko adizkietan */a/* eta */e/* erroen arteko lehiak ederki erakusten duenez: *gera*, *zera* / *gara*, *zara*.

Hizkera bakoitzeko adizki iragangaitzak jaso ditugu beheko taulan[144]. Mendebaldeko adizkiak azpimarratu egin ditugu bertan, ekialdeko adizkietatik bereizteko. Euskara osoan agertzen diren adizkiak, berriz, azpimarratu gabe utzi ditugu.

NOR		
	Orainaldia	***Lehenaldia***
1. sg.	*I., H., naiz;* *O., A., na(i)z*	*I., ni(n)tzen/nitzan* *H., nitzen/nisen* *O., A., nitzan*
2. sg. ***hika***	*I., yaiz/aiz* *H., O., A., ya(i)z*	*I., (y)itzen/itzan* *H., yitzen* *O., A., yitzan*
3. sg.	*I., H., O., A., da*	*I., O., zen/zan* *H., A., zen*
1. pl.	*I., H., O., gara/gera* *A., ge(ra).*	*I., H., giñen* *O., A., giñan*
2. sg. ***zuka***	*I., H., O., A., zara/zera*[145]	*I., ziñen/ziñan* *H., ziñen* *O., A., ziñan*
2. pl.	*I., A., zara(z)te/zerate.* *H., zara(z)te* *O., zarazte/zerazte*	*I., ziñe(z)ten/ziñaten* *H., ziñe(z)ten* *O., ziña(z)ten* *A., ziñaten*
3. pl.	*I., dira/dire* *H., dire* *O., A., dira*	*I., A., ziren/ziran* *H., ziren* *O., zi(ra)n*

Taula aztertuta badirudi adizki desberdinak elkarren ondoan erabiltzen direla, baina askotan ez da halakorik gertatzen. *Zara/zera* adizkiak, adibidez, Irungo udalean erabiltzen dira, baina oso banaketa zehatzarekin: Irun erdialdean *zara* erabiltzen da; Olaberrian eta Bentasen, *zera*; eta *zea*, azkenik, Bidasoan, Meakan eta

144. Yrizarrek (1992) jasotako formak aipatu eta 4.2. puntuan aipatu ditugun materialekin alderatu ditugu.
145. 07EL, in Sagarzazu: "*su gastia sera*".

Lapitzen. Adizki bakoitzaren erabilera-eremua zehatz-mehatz aztertuko bagenu, isoglosa-mapa bat osatu ahal izango genuke adizki bakoitzaren erabilerarekin. Horrek azterketa honen asmoak eta hedadura gainditzen dituenez, har bedi eman dugun adibidea adizkien hedaduraren eta konplexutasunaren adierazgarritzat.

d) -go geroaldiko morfema: Irunaldeko hizkeretan *-go* atzizkia erabiltzen dute geroaldi hurbila osatzeko (Zuazo 1997:400). Halaxe egiten dute Oiartzunen, Irunen eta Hondarribian, baina Aranoren kasua berezi samarra da.

Garai batean geroaldiko bi atzizkiak erabiltzen zituzten (mendebaldeko *-go* eta ekaildeko *-en*), baina gaur egun *-go* morfema nagusitu da, eta *-en* gutxi erabiltzen dute gaur, gero eta gutxiago, gainera.

e) *-teko/-tekotz, -lako/-lakotz* kausazko aditz-morfemak: *-lako/lako(t)z* da aintzakotzat hartu beharreko beste hizkia. *-lako(t)z, -teko(t)z* eta *-ko(t)z* ekialdeko hizkeretan erabiltzen dela esaten da eta *-lako, teko* eta *-ko,* berriz, mendebaldeko taldean. Aztergai dauzkagun hizkeretan *-lako* atzizkia erabiltzen da gehien-gehienetan. Horixe gertatzen da, behintzat, Oiartzunen, Aranon, Irunen eta Hondarribiko zati gehienetan, baina ez portu-aldean, han *-kotz, -lakotz* eta *-tekotz* erabiltzen baitira (Sagarzazu 2005:104). Dena den, horrek ez du esan nahi Oiartzunen, Aranon eta Irunen beste formak erabiltzen ez dituztenik, egitekotan oso gutxitan erabiltzen dituztela baizik.

f) *Lexikoa:* Euskara osoan erabiltzen den lexikoa alde batera utzi eta euskalkibloke bakoitzeko lexikoari erreparatuko diogu jarraian. Mendebaldeko lexikoa da nagusi eta bi formak (mendebaldekoak eta ekialdekoak) agertzen diren kasuetan, bigarren multzokoak gero eta gutxiago erabiltzen dira.

Mendebaldeko lexikoaren adibide gutxi batzuk aipatuko ditugu hemen: *arrautza, asko, esan, ezer*, *far/par, gora eta bera* (O., A.)*, gutxi, mingain*, *oso*, *pake*, *triku*, *eskumuñak/eskumiñak*, etab.

III. Ezaugarri lokalak

a) Tinbreak nahastu eta aldatzea: Gauza arrunta izaten da *e/i* tinbreak nahastea, analogiaren ondorioz, eta *a/o* nahastea, asimilazioaren eraginez. Hala, askotan entzuten da *esan, izan*en ordez; *epurdi, ipurdi*ren ordez; *ibili nitzéloko*, *ibili nitzélakoren* ordez, etab.

Mendebaldean gertatzen den ezaugarri bat aipatu behar dugu fenomeno honen barruan, hizkera hauetan ere agertzen baita, nahiz eta sistematikoa ez izan: */a/* bokala */e/*-n ixtea, */i/* bokalaren atzean.

Hala, *bíyek* esaten da *biak*en ordez edota *zietén, zidaten*en ordez. Dena den, esan dugun bezala, fenomeno honek ez du indar handirik, eta Oiartzunen eta Aranon ez da gertatzen, bai, ordea, Hondarribian eta Irunen, nahiz eta tarteka-

marteka, bakarrik. Tinbre-aldaketarekin jarraituz, [χw] taldea aipatu behar dugu. Hizkera guztiek *ez* dute berdin jokatzen fonema horiekin. Irungo eta Hondarribiko euskaran talde horren ahoskunea aldatu eta [f] ahoskatzen da, hitz gutxi batzuetan. Adibidez, *[χw]an*en lekuan *fan* esaten dute zenbait tokitan (Sagarzazu 2005:68). Dena den, *ez* dirudi bilakaera hori Oiartzuna eta Aranora iritsi denik. Ezaugarri horren adibide bat emango dugu jarraian, aztertzen ari garen ezaugarriak duen indar erlatiboaren erakusgarri. Hiztunak [χ]uan/fan aditza erabiltzen du hirutan, baina kasu horietako bakarrean darabil forma berritua:

Irun, *…jwaten giñenin, gutxi faten giñen, biño jwaten giñenin…*[146]

Txistukariena da neutralizazioaren beste adibide bat, normala izaten baita, *s/z* eta *ts/tz* nahastea. Hala, *zari ortan* aurkitzen dugu *sare ortan*en ordez; *utsiko dut, utziko dut*en ordez (Sagarzazu 2005:67), etab.

b) <u>*-xko* kuantitatiboa</u>: Kuantitatiboei dagokienez ere *ez* dago berrikuntza handirik, erdialdeko euskararen aldean. Halere, *nahiko, aski* eta antzeko kuantitatiboen parekoa den *-xko* atzizkiaren erabilera nabarmendu behar dugu, bizirik jarraitzen baitu Irungo eta Hondarribiko hizkeretan. Adib.: *aundixko*, *beranduxko*[147], etab.

c) <u>Pertsona-izenordainak</u>: Pertsona izenordainak gorago azaldu ditugunen berdinak dira. Baina badaude beste izenordain indartu batzuk, erdialdeko gainerako hizkeretan erabiltzen direnen desberdinak. Hala, *eak/beak* izenordainarekin batera beste forma batzuk aurkitzen ditugu hemen. Hondarribian, adibidez, *beudek* eta *eudek* erabiltzen dute (Sagarzazu 2005:72) eta Irunen, *beurek* eta *beudek*. Oiartzunen, berriz, *beak* formari eusten diote (Fraile 1996:92).

Hond. *… beti <u>beudek</u> dutela kulpa…*[148]

d) <u>Ablatiboa</u>: *-tik/tikan* da ablatiboko posposizioa mugatu singularrean, eta *-tatik/tatikan* mugagabean eta mugatu pluralean.

Oiatz., *…ta oan<u>dikan</u> soldauxka allatu gabia nitzan…*[149]

Irun, *…Bartzelonatik Gerona…*[150]

Irunen eta Hondarribian ablatiboko forma pleaonastiko bat ere badute: *-tikan, -tikanen*. Adib.: *Bentatikanen*, *Bentatikan*en ordez[151].

146. 03EB, in Sagarzazu.
147. Sagarzazu 2006:75.
148. 09EL, in Sagarzazu.
149. Fraile 1996:159.
150. 08IG, in Sagarzazu.
151. Sagarzazu 2005:70.

e) /z/ morfema pluralgilea: Aditz trinkoek /z/ pluraleko morfema hartzen dute Donostiako Antigua auzoko, Pasai Donibaneko, Errenteriako, Lezoko, Oiartzungo, Irungo eta Hondarribiko hizkeretan[152]. Ez dirudi ezaugarri hori Aranoraino iritsi denik, han *ga/gea, zate, zete* formak erabiltzen dituzte eta (Yrizar 1992:588).

Hala, Oiartzunen ohikoa da *dauzte/dozte* erabiltzea, *dauderen* ordez, eta *dagoste, gaudesen* (Sagarzazu 2005:77) *daude* eta *geundenen* ordez, Irunen eta Hondarribian.

/z/ morfema hori aipatzean pluralarekin lotu dugu, halere, berez baldintza gramatikal horietan agertzen baita. Harrigarria da, beraz, Oiartzunen *noz* eta *yoz* formak aurkitzea (Fraile 1996:126) singularreko 1. eta 2. pertsonetako *nago* eta *hago* formak adierazteko.

f) Lexiko lokala: Herri-mailan, hitz hauek aurkitzen ditugu Oiartzunen: *eskuara, euskara/euskeraren* ordez; *eskumiñak, gorantziaken* ordez; *kallatua*, *mamiaren* ordez; *tenoria, garaiaren* ordez eta *zapiñak, galtzerdiaken* ordez (ik. Fraile 1996). Irunen eta Hondarribian: *attatto* eta *amatxo, aitona* eta *amonaren* ordez; *eskumuñak, gorantziaken* ordez; *laja, utziren* ordez; *mingain*, *mihiaren* ordez; *miño, bainaren* ordez; *oria*, *zutiken* ordez (bakarrik Hond.); *pake, bakeren* ordez (ik. Sagarzazu 2005). Azkenik, Aranoren kasuan *mami/gaztanbera* bikotea aipatuko dugu, datu gehiagorik ezean (ik. Zubiri, in Zuazo 2000).

5. Ukipenaren eragina tarteko hizkeren mugako zonetan

Aurreko puntuan azaldu dugunez, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko zerrenda batean erdialdeko ekialdeko euskara erabiltzen da, nafarreranzko trantsizioko erdialdeko hizkerak, alegia. Oraintxe hasi dugun kapitulu honetan zerrenda horretako mugan erabiltzen diren erdiguneko hizkerak aztertuko ditugu, hain zuzen ere.

Eta horretarako, aipatutako bibliografiaz gain, K. Zuazok Astigarragan egindako grabazio bat erabili dugu. Juani Garmendia da hiztuna, eta 68 urte zituen grabazioa egin zenean (2003). JG1 siglak erabiliko ditugu hiztun hori identifikatzeko. M. Lersundik Pasaian egindako grabazioak ere erabili ditugu. Azken grabazio horretako berriemaileei buruz ez dugu datu askorik: grabazioa egin zen urtea (1996) eta berriemaileen izena (Xipriano Mancisidor eta Florentino Legorburu), besterik ez. Material hori aipatzeko 1XM1 eta 2FL1 siglak erabiliko ditugu.

Azkenik, bosgarren kapituluan ez dugu Errenteriako hizkerari buruz hitz egingo, hurrengo kapitulu osoa eskainiko baitiogu, hizkera hori eta bere kokapen dialektala dira eta gure ikerketaren aztergai nagusiak.

152. Ikus Camino, in Zuazo 2000:76-77.

5.1. Sortaldeko erdialdeko azpi-euskalkiaren mugakide diren hizkerak. Ezaugarri orokorrak. Hedadura geografikoa eta sailkapena

Orain aztertuko ditugun erdiguneko azpi-euskalkiko hizkerak Oiartzualdean (Pasai San Pedro, Pasai Donibane, Lezo eta Errenteria[153]) eta Astigarragan erabiltzen dira. Mendebaldean, 5-10 km-ra, Donostia dago ber-bertan, eta sortaldean, berriz, Irun.



13. mapa

Koldo Zuazok erdialdeko euskarako erdiguneko azpi-euskalkian sartu ditu hizkera horiek guztiak, baina, halere, guztiak ere ez dira beti erdiguneko hizkeratzat edo gipuzkeratzat jo izan. Zuazoren sailkapenaren aurretik, Lezoko eta Errenteriako hizkera iparraldeko goi-nafarreraren barruan sailkatzen zen, Irungo, Oiartzungo, Hondarribiko eta Aranoko aldaeren ondoan, beraz. Horixe egin zuten Yrizarek (1992:367) eta Mitxelenak, esate baterako. Azkenak hauxe esan zuen (1950:94):

> "*Errenterian erabiltzen den goi-nafarreraren eta gipuzkeraren arteko nahasketa gipuzkoako formak antzinako forma nafarreretan etengabe txertatzen joan izateari zor zitzaiola uste izan dut beti, eta kosta egiten zait ikuspegi hori baztertzea*" .

Errenteriako eta Lezoko hizkeraren substratua nafarra edo erdialdekoa den inguruan Mitxelenaren eta besteren eztabaidan ez gara sartuko azterlan honetan. Horren ordez, gorago aipatu ditugun herrietako euskararen deskribapen sinkronikoa egingo dugu (Errenteriakoa alde batera utzita) eta hizkera horien berezitasunak inguruko herrietan erabiltzen diren hizkerek dituztenekin erlazionatuko ditugu. Bestela esanda, bi azpi-euskalkiren mugan dauden hizkera horiek erdialdeko euskararen erdialdeko

153. Ez dugu Oiartzun aipatu (Oiartzualdean), hemen erdialdeko azpi-euskalkiari buruz ari garelako bakarrik.

azpi-euskalkira hurbiltzen diren ala ekialdeko azpi-euskalkirantz hurbiltzen dituen indar homogeneizatzaile bat ote dagoen argitzen saiatuko gara. Jakin badakigu berriemaileen adinak zeharo baldintzatzen dituela gure azterketaren emaitzak.

5.1.1. Azpi-euskalki hau nafar hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak

I. Bokal-erortzea, ahultzearen ondorioz: Dauzkagun datuen arabera, aferesia ez da batere ohikoa Pasai Donibaneko, Pasai San Pedroko eta Astigarragako hizkeretan. Lezon, halere, badago adibideren bat edo beste: *san*, *esan*en ordez; *men*, *omen*en ordez; *torri*, *etorri*ren ordez, etab. (Elortegi 1997:62).

II. Goranzko diptongoak: Erdialdeko euskaran askotan gertatzen da bokalak elkarren ondoan gelditzea ahultze fonetikoaren ondorioz soinuren bat galdu delako edota erroari bokal bat gehitu zaiolako. Batzuetan tinbrea aldatu eta diptongo eta hiato berriak sortzen dira, gorago ikusi dugunez. Besta batzuetan, bokal-multzoa murriztu edo betazismoa gertatzen da (Agirretxe 2000:49). Aurrekoaz gain, ohikoak dira goranzko diptongoak (*ja, je, jo, wa, we, ju)* nahiz beheranzkoak (*aj, ej, oj, aw, ew, wi*), eta euskaraz azkar eta bizi hitz egitean diptongo horiek murriztu egiten dira askotan. Goranzko diptongoak ekialdeko ezaugarrien artean aipatu ditugu gorago, eta aztergai ditugun hizkeretan agertzen dira halakoak. Adib.:

Astig., …*asko kanb*[*ja*]*tu da*[154]…

III. Ekialdeko lexikoa: Nahiz eta oso ale gutxi egon, dagoen ekialdeko lexiko urria galtzen ari da. Adibide batzuk: *betti* eta *gotti* (Lezon bakarrik), *obeki*, *paratu* (*jarri*rekin batera), etab.

5.1.2. Azpi-euskalki hau erdialdeko euskarako hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak

I. Bokal batzuen tinbrea aldatzea: Aurreko kapituluan esan dugunez, erro amaierako */i/* eta */u/* bokalen tinbrea irekitzea nafarreraren ezaugarria da eta ez da gertakari sistematikoa Irunaldeko hizkeretan. Hemen aztergai ditugun hizkerek jatorrizko tinbreari eusten diote.

Bestalde, */e/* bokala dardarkari bakunen ondoan irekitzea da bokalen tinbreak duen beste ezaugarri bat. Mendebaldeko ezaugarri horrek indar handia dauka Bizkai, Araba eta Gipuzkoa osoan. Laudion mendebaldeko euskaraz hitz egiten da eta herri horretan *bardin*[155], *barri*, *barriro*, *barriz*, etab. esaten dute *berdin*, *berri*, *berriro*, *berriz*en ordez (Urkijo 1994:160). Halako adibiderik ere aurkitzen dugu Lezon, Pasai Donibanen eta, tarte-marteka, Errenterian eta Astigarragan ere. Dena

154. JG1 grabazioa.
155. Zuberoan ere erabiltzen da *bardin*.

den, hitz gutxi-gutxi batzuetan bakarrik gertatzen da aldaketa hori: *eguardi*, *eguerdi*ren ordez, *edarra*, *ederra*ren ordez, etab.

II. Ezer izenordaina: Ekialderanzko trantsizioan dagoen erdialdeko euskarari buruz jardun dugunean, *deus* eta *ezer* erabiltzen zirela esan dugu. Tarteko hizkeren mugan dauden hizkeretan, aldiz, mendebaldeko blokeko *ezer/eser* erabiltzen da bakarrik. Adib.:

P. San P., ...*etzenun eser ber*...[156]

III. Izan laguntzaile iragangaitza: Laguntzaile iragangaitza homogeneo samarra da hizkera hauetan. Gorago egin dugun bezala, hemen ere taula bat osatu dugu adizki guztiak jasota. Dena den, taulari heldu aurretik ohartxo bat egin beharra dagoela iruditu zaigu: Yrizarrek (1991 eta 1992) Lezoko eta Errenteriako hizkerak bereizi zituen eta goi-nafarreran sailkatu zituen, Oiartzungo euskaratik eta aztergai dauzkagun gainerako hizkeretatik oso gertu, beraz.

Taula errazago irakurtzeko, Irunaldeko hizkerekin bezala jardungo dugu hemen, eta ereduarekin bat ez datozen hizkerak markatuko ditugu bakarrik. Hala, SP. = Pasai San Pedro, A. = Astigarraga; D. = Pasai Donibane eta L. = Lezo.

NOR		
	Orainaldiat	***Lehenaldia***
1. sg.	SP., *naiz/nais* A., *nais* D., *na(i)s* L., *naz*	*nitzan*
2. sg. ***hika***	A., *aiz* SP., D., *aiz/ais* L., *yaz*	*itzan* L., *(y)itzan*
3. sg.	*da*	SP., *zan* D., *san* L, *zen*
1. pl.	*gea*	*giñan* SP., *giñan/giñen*
2. sg. ***zuka***	*zea/sea*	*ziñan* SP., D., *siñan*
2. pl.	L., D., *zeazte* A., SP., *zeate*	L., D., *ziñazten* A., SP., *ziñaten*
3. pl.	*dia*	*zian* D., SP, *sian*

156. Agirretxe 2000:234.

Txistukari apikari-hobikariaren eta hobikariaren artean Pasai San Pedron eta Pasai Donibanen bereziki egon litezkeen nahasketak kenduta, Lezoko hizkerak berez erdialdeko eredua izan arren, batzuetan ekialdeko formak erabiltzen ditu hikako bigarren pertsona singularrerako (*yaz, yitzan*) eta lehenaldiko hirugarren pertsona singularrerako (*zen*).

Nabarmendu beharreko beste kasu aipagarri bat bigarren pertsona pluralari dagokio, zenbait hizkeratan (L., D.) *-z-* morfema pluralgilea erabiltzen baita. Sortaldeko azpi-euskalkiko hizkera guztiek dute ezaugarri hori. Lezon eta Pasai Donibanen aurkitzen dugun *naiz/naz* bikoteari dagokionez, *naz* forma galtzen ari da pixkanaka, gazte-jendeak *naiz* erabiltzen baitu *naz* beharrean (Yrizar 1992:546).

Aipatu ditugun adizkiak izan ezik, gainerako forma guztiak berdinak dira hizkera guztietan.

IV. Lehenaldi trinkoak: Erdialdeko euskara deskribatu dugunean aipatu ditugun aditz trinko berberak dira arruntenak hizkera honetan ere. Gainera, aditz-jokoak ere erdialdeko euskarak dituen ezaugarri berberak ditu hemen ere. Hala, lehenaldiak */e/* erroa dauka, ekialdeko aditzek izan ohi duten */a/* erroaren ordez. Tarteko hizkeretan bi aukerak tartekatzen direla ikusi dugu, baina hemen aztertzen ari garen mugako hizkeretan beti aukeratzen dute */e/* erroa. Adib.:

Astig., … *goizian dana leorra zegoen*…[157]

V. *Etorri* aditzaren joko trinkoa: Mendebaldeko beste ezaugarri bat aurkitzen dugu hizkera honetan: *etorri* aditzaren joko trinkoa. Gorago esan dugunez, nafar hizkeretan *heldu da* esaten dute *dator*en ordez, eta tarteko hizkeretan ere ezaugarri hori bera aurkitu dugu. Orain aztertzen ari garen hizkeretan, aldiz, *etorri*ren forma jokatua erabiltzen dute gehinbat, nahiz eta bestea ere tarteka erabili.

VI. **edun* laguntzaile iragankorra */e/* erroarekin: Aurreko tauletan bezala, ereduarekin bat ez datozen adizkien ondoan, adizki horiek zein herritan erabiltzen diren adierazi dugu.

157. JG1.

NOR-NORK		
	Orainaldia	***Lehenaldia***
1. sg.	L., *dut// ttut* *A., det //dittut* SP., D., *det// ditut*	L., A., , *nun// nittun* SP., D., *núen // nituen*
2. sg. ***hika***	L., *duk-dun//ttuk-ttun* A., *dek-den //dittuk-dittun* SP., D., *dek-den// dituk-ditun*	L., *yun-yunen// ttuken-ttunen* SP., D., *uen // ituken-itunan*
3. sg.	*du // dittu* SP., D., *du // ditu* L., *du // ttu*	L., A., *zun// zittun* SP., D., *súen //sitúen*
1. pl.	L., *dugu // ttugu* A., *de(g)u// dittu(g)u* SP., D., *degu// ditugu*	L., *genun// genittun-geinttun* A., *gen(d)un// genittun* SP., D., *genuen // genitúen*
2. sg. ***zuka***	L., *(t)zu // ttuzu* A., *dezu // dittuzu* SP., D., *desu // ditusu*	L., *zenun// zenittun* *A., zen(d)un // zenittu(u)n* SP., D., *senúen // senitúen*
2. pl.	L., *(t)zute// ttuzute* A., *dezute // dittuzute* SP., D., *desute// ditusute*	L., *zenuten// zenittuzten* A., *zen(d)uten// zenittuzten* SP., D., *senuten // senituzten*
3. pl.	L., *(du)te //ttuzte* A., *du(t)e // dittuzte* SP., D., *dute // dituste*	*zuten // zittuzten* SP., D., *suten // situsten*

Taula ondo aztertuz gero, Pasai San Pedron, Pasai Donibanen eta Astigarragan erabiltzen den forma bakarra */e/* erroko laguntzaile iragankorra dela ikusiko dugu eta Lezon, aldiz, */u/* erroko adizkiak bakarrik aurkitu ditugu.

Adizkiak ekialdeko blokera hurbiltzen eta bloke horretatik aldentzen dituen nolabaiteko mailakatze bat ere ikusten da. */u/* eta */e/* erroekin gertatzen den bezala, Lezoko hizkeran erabiltzen diren adizkiak Oiartzunen erabiltzen direnen oso antzekoak dira jeneralean, eta berdinak ere badira kasu askotan. Azkenik, Astigarragak, Pasai San Pedrok eta Pasai Donibanek aditz-joko berbera dute, maila fonologikoko berezitasunak alde batera utziz gero: Astigarragako bustidura sistematikoa eta Pasai Donibanen eta Pasai San Pedron */z/* [s]-n neutralizatzeko joera dira berezitasun horiek.

Aditz-markei dagokienez, erdialdeko euskaran erabiltzen diren berdinak aurkitzen ditugu hemen. Halere, Lezon 3. pertsona pluraleko datiborako erabiltzen duten marka nabarmendu behar dugu. Laguntzaile datiboa normalean *-e-* bada ere, Lezon *-ote-* morfema erabiltzen dute. Adib.:

Lezo, … *yotet*[158]…

VII. -*go* geroaldiko morfema: Geroaldia mendebaldeko ereduari jarraiki osatzen da. Lezon geroaldia osatzeko darabilten egitura berezia aipatuko dugu halere, nahiz eta egitura hori erabat galtzen ari den gaur egun. -*go*rekin eratutakoa da forma arruntena, baina *-en>-in* motako ekialdeko formak ere entzuten dira. Adib.:

Lezo, … *esaintzut*[159] (**esaen'tzut<esanen dizut*)

VIII. *Bait-* aurrizkia: Sortaldeko hizkeretan gertatzen denaz bestela, aztertzen ari garen hizkeretan *bait-* aurrizkiak ez du erlatibozko funtziorik betetzen, eta kausazko balio sintaktikoak dauzka bakarrik.

IX. -*lako/lakotz* kausazko atzizkia: Erdialdeko euskarari buruz jardun dugunean aipatu ditugun kausazko hizki berberak erabiltzen dira hemen. Halere, Agirretxeren arabera (2000:165), Pasai San Pedron eta Lezon *-lakos* forma erabiltzen da *-lako* atzizkiarekin batera. Esan dugun bezala, *-lakos/lako(t)z* atzizkia ia erabat galduta dago Oiartzunen, Aranon, Irunen eta Hondarribiko alderdi gehienetan, herriotan *-lako* erabiltzen baita gehienbat. Adib.:

P. San P., …*ta deitze sioten andriorrei Sipiton, ean ite sulakos*…[160]

X. Mendebaldeko lexikoa: Bi euskalki-blokeak bereizteko erabiltzen den lexikoari dagokionez, mendebaldean hitz hauek aurkitzen ditugu: *agindu*, *aitona* eta *amona, asko, esan, esnatu, ezer, gogoratu, kale, obeto, par/far*, etab.

5.1.3. Ezaugarri lokalak

I. Tinbrea aldatzea: Bokalismoari dagokionez, sortaldeko azpi-euskalkitik aztertu ditugun hizkeretan */i/* bokal sabaikariaren eraginez */a/* bokala */e/*-n ixtea fenomeno sistematikoa ez dela esan dugu gorago.

Dakigunez, isoglosa horrek Bizkai osoa, Gipuzkoa erdialdea eta hegoaldea eta Nafarroa mendebaldea hartzen du, eta hegoaldeko ezaugarritzat hartzen da[161], baina aztergai ditugun mugako hizkerek jeneralean ez dute ezaugarri horren eraginik. Halere, asimilazio hori honaino iritsi ez izanak ez du esan nahi bestelako asimilazio batzuk gertatzen ez direnik. Horren adibide dugu Pasaian aurkitu dugun fenomeno bitxi samar bat: */a/*-n bukatutako hitzetan soinu hori [ɛ]-n ixteko joera baitute bertan, Agirretxeren arabera (2007:37). Fenomeno hori ulertzen lagunduko digun adibide bat emango dugu jarraian: P. Don., *bakallu*[ɛ], *kordeley*[ɛ], etab.

158. Elortegi 1979:66.
159. Elortegi 1997:67.
160. Agirretxe 2000:234.
161. "Nafarroako euskal hizkerak", in Camino (1998:17).

Pasaiako hizkerarekin eta asimilazioekin jarraituz (Agirretxe 2000:40-41), e_a> e_e (*eraman*>*e*(*r*)*eman*) motako aurreranzko asimilazioak eta a_e> e_e (*atera*> *ete*(*r*)*a*) motako atzeranzko asimilazioak egiten dira herri horretan. Irunaldean ere aurkitu dugu gertakari berari jarraiki eratutako adibiderik: *ho(ne)lako*ren ordez, *oloko*, esate baterako.

Normala izaten da artikulua jasotzen duten amaierako bokalak nahastu eta tinbrea aldatzea eta ezaugarri hori oso hedatuta dago euskalki guztietan. Aurreko kapituluan, *4.1.* eta 4.2. puntuetan (erdialdeko hizkerei eta Irunaldeko hizkerei buruzkoak, hurrenez hurren) esan dugunez, erroaren azken fonematzat */e/* eta */i/* duten hitzek artikulua jasotzen dutenean, itxi eta */i/* eta */u/* bokalak ematen dituzte. Adib.:

P. Don., … *barriyuan bizi zana*…[162]

P. San P., … *Sampedrotik Trintxerpea bitartian*…[163]

Erroa */i/*-n amaitzen denean, aldiz, <y> erdi-kontsonantea sortzen da. Erroa */u/*-n amaitzen denean, azkenik, bi joera daude. Batetik, */u/*-k eta artikuluak bat egitean diptongorik ez sortzeko, */b/* kontsonaten hiatikoa tartekatzen da. Adib.: *negu*+a> *neguba*.

/u/-k eta */a/*-k bat egitean inolako aldaketa fonologikorik ez gertatzea da bigarren aukera. Hala, *negu*tik *negua* izango genuke. Hemen aztergai ditugun hizkerek (Irunaldekoek bezalaxe) azken eredu horri jarraitzen diote.

Bestalde, */a/* + */a/* daukagunean gertatzen denari dagokionez, aztertzen ari garen hizkeretan, Irunaldeko hizkeretan bezalaxe, ez da */ae/-/ia/-/ie/* motako disimilaziorik gertatzen, eta emaitza */a/* da beti.

Halere, Mitxelenak dioenez (1950:93) eta guk geuk egiaztatu dugunez, bokal horien disimilazioak ez du beti emaitza hori izaten. Adibide batzuk ematen ditu Mitxelenak: *ate(r)a, bota, laja, pasa, ti(r)a* motako partizipioen absolutibo singular eta pluralak, *ateria, botia, lajia, pasiak, tiriak* dira hemen. Adib.:

Lezo, … *kanpoa ateria*…[164]

Tinbreari buruzko aipamenekin bukatzeko, zenbait bikotetan nahasketa sortzen duten txistukariei helduko diegu orain. <z> grafiaz idazten den igurzkari apikari-hobikari ahoskabea eta igurzkari hobikari ahoskabea [s]-n nahiz <z>-n neutralizatzen dira, hiztun zaharrenen artean bereziki. Irunaldeko hizkeretan ere agertzen zaigu ezaugarri hori. Gertakari horren hedaduraz jabetzeko, esan beharra dago

162. Elortegi 1997:56.
163. Elortegi 1997:57.
164. Elortegi 1997:57.

neutralizaizo hori (bai hobikarira jotzen duena, bai apikari-hobikarira jotzen duena) mendebaldera hedatzen dela (Camino, in Zuazo 2000:69) eta Donostian (*sokaren* ordez *zoka*), eta Pasai Donibanen ere (*esaten diogu*ren ordez *ezateyou*, baina *ondo bizi*ren ordez *ondo bisi*[165]) agertzen dela. Bi fonema horien arteko nahasketari dagokionez, Mitxelenak jasotzen du (1977:288) eta herri handietan areago hedatuta dagoela esaten du. Mitxelenak dioenez, <s> eta <z> duten hitzetan bi txistukarietako bat neutralizatzeko joera dago eta horren ondorioz hitz berean bi <s> edo bi <z> agertzen dira. Ahoskunearen asimilazioei buruz Mitxelenak eman zituen zenbait adibide jaso ditugu hemen: *itzasi*> *itzautzi*, **zinetsi*> *sinetsi*, etab.

II. -*z*- morfema pluralgilea: Laguntzaile iragangaitzaren jokoan bezala, -*z*- morfema pluralgilea duten adizki jokatuak aurkitzen ditugu hemen ere. Mendebaldeko euskarako aditzean ere fenomeno bera gertatzen da, eta hizkera batzuetan morfema hori erabiltzen da subjektu nahiz objektu zuzen plurala markatzeko. Adib.:

P. Don., …*ba an dosten etxiak*…[166]

III. -*ketari* eta -*yera* (<-*era*) izen-atzizkiak: Euskalki osoan erabiltzen diren izen-atzizkien ondoan, beste hizkera batzuetan bai baina leku guztietan erabiltzen ez diren atzizki batzuk dauzkagu hemen. Aztergai ditugun hizkeretako batzuetan erabiltzen diren bi atzizkiei erreparatuko diegu: -*keta(r)i* eta -*yera* (-*era* atzizkitik eratorria).

Lehenbizikoa ogibideak adierazteko erabiltzen da. -*keta(r)i* atzizkiaren isoglosek erdialdeko azpi-euskalkian kokatzen dituzte Lezoko herria (Elortegi 1997:70) eta bi Pasaiak[167] gutxienez, eta ekialdeko azpi-euskalkietan, berriz, Oiartzun, Irun eta Hondarribia.

-*yera*ri dagokionez, Mitxelenak dioenez (1950:91), mendebaldeko hizkera guztietan erabiltzen den -*(k)era*tik dator atzizki hori, eta partizipioa -*n*-n osatzen duten aditz-oinekin erabiltzen omen da. Halere, aurretik <y> kontsonante hiatikoa duen -*era* atzizkitik datorrela ematen du gehiago. Hala, *e(g)oyera, esayera, izayera, jarduyera, juayera*… aurkitzen ditugu, baina egokiagoa iruditzen zaigu -*era* atzizki komunetik datorrela pentsatzea. Irunaldean ere fenomeno bera gertatzen da.

IV. Lexiko lokala: Azkenik, lexiko lokalari dagokionez[168], Astigarragan *kontentu* esaten da *pozik*en ordez, esate baterako. Lezon, *alde* eta *ayeka*, *arraiketai arrantzale*ren ordez, *biño baina*ren ordez, *ibilttu ibili*ren ordez, *lintzura padura*ren ordez, *kamiyo bide*ren ordez eta *perril/pirril gurpil*en ordez (ik. Elortegi

165. 2FL1.
166. Agirretxe 2000:221.
167. Agirretxek (2000:193) *arraiketai* adibidea ematen digu.
168. Herri bakoitzeko hizkerei buruzko bibliografiaz gain, Caminok (Zuazo 2000) emandako adibideak ere hartu ditugu.

1979). Pasai Donibanen *attu, arraiketai, eriyo, ibildu, itzuli, kamiño, laja/laga, nor* eta *zein, orma* eta *jela, sos, ttotta, txerri* eta *urde, xarde, xebera* eta *udatzen* eta *udazken* erabiltzen dira *entzun*, *arrantzale*, *heriotza*, *ibili*, *ihes egin*, *bidea*, *utzi*, *nor, izotz*, *diru*, *likore*, *zerri*, *sardexka*, *zebadera* eta *udazken*en ordez, hurrenez hurren (ik. Agirretxe 2000). Pasai San Pedron, azkenik, *kamiño* esaten dute *bidea*ren ordez.

C ZATIA: ERRENTERIAKO KASUA. METODOLOGIA ETA DESKRIBAPENA

6. Ukipenaren eragina tarteko hizkeren mugako zonetan: Errenteriako kasua

6.1. Metodologia

6.1.1. Dialektologia klasikoa eta soziolinguistika

Tradizionalki G. Wenker-en (1852-1911) lanak jo izan dira dialektoei buruzko ikaskuntzen jatorritzat, baina dialektologiak ez zuen izaera zientifikorik izan harik eta J. Gilliéron-ek (1852-1911) jakintza-alor horren oinarriak finkatu zituen arte[169]. Geolinguistikaren sortzaile ere izan zen Gilliéron.

Dialektologiak hasiera-hasieratik finkatu zituen datuak biltzeko prozedurak eta jardunbideak eta, aurrerapen teknologikoak alde batera utzita, gaur egunera arte iraun du orduan finkatutako bideak aldaketa nabarmenik gabe.

Inkestagile batek galdera-sorta bat hartu eta aurretik aukeratutako berriemaile batzuei galderak egitea zen lan egiteko modua. Inkestagile bat baino gehiago aritzeak emaitzetan eraginik ez zuela ikusi zen geroago, eta inkestagileen kopurua handitzea erabaki zen (Veny 1984:12-13).

Berriemaileak aukeratzeko baldintza batzuk bete behar ziren, hala nola, hiztuna adinekoa izatea, ordurako galdutako formen berri edo beste hizkera batzuetan galtzen ari ziren formen berri eman zezan; burua ondo edukitzea, harekin elkarrizketa arina izateko moduan; hortz guztiak edo gehien-gehienak izatea, hortzik ez edukitzeak zaildu egiten duelako esandakoa ulertzea eta testuak aztertzea; bere herritik edo ingurutik oso gutxi aterea izatea, beste hizkera batzuen eraginik ez izateko, etab.

Inkestei dagokienez, aldaera estandarrean edo hizkuntza ofizialean (lurraldean ofizialaz bestelako hizkuntzaren bat hitz egiten bazen) idatzitako hitz eta esaldiekin osatutako zerrendak erabiltzen ziren. Metodo horrekin itzulpen zuzenera jotzen zen, beraz. Inkestak egiteko teknika hori baztertu egin zen gerora, ematen zituen

169. Informazio zabalagoa eta zehatzagoa lortzeko ikus Chamber 1980.

emaitzak ez zirelako oso zehatzak izaten, eta okerrak ere izaten ziren askotan. Gaur egun, elkarrizketa gidatuak nahiz libreak erabiltzen dira.

Metodologia alde batera utzita, dialektologia oso hiztun mota zehatzetan oinarritzen zen bakarrik eta haiengandik jasotako informazioak ez zuen aztertutako lurraldeko hizkera osoa islatzen, gazte-jendea beren aiton-amonek ezagutu ez zituzten eta hizkera aldarazten zuten errealitateekin (eskola, beste inora joateko aukerak, etab.) erlazionatzen hasita bazegoen bereziki.

Dakigunez, gizateria aldatuz doa eta aurrerapenak bizkortu egiten ditu aldaketok, jendeari bizi-baldintza hobeak eskaintzeko. Duela berrogeita hamar urteko errealitateak zaharkituta gelditu dira berrikuntza teknologikoaren ondorioz eta, hori dela eta, dialektoei buruzko datuak jasotzean erabilitako metodologia ere aldatu egin behar dugu.

Inork ez du auzitan jartzen gizartea aldatu egin dela eta XXI. mende hasierako gazteen eta haien aiton-amonen bizimodua ez direla berdinak. XXI. mende honetan, beste dialekto batzuetako hizkerekiko nahiz beste hizkuntza batzuekiko erlazioa askoz errazagoa da teknologiari eta telekomunikazioen garapenari esker eta, hortaz, iraganeko belaunaldiek bizi zuten nolabaiteko isolamendua ezabatu egin du globalizazioak.

Faktore berriok interpretatzen laguntzen diguten tresna teorikoak erabili behar ditugu eta, hala, dialektologia lantzeko soziolinguistikaz baliatu behar dugu, dagokion neurrian.

Horrek ez du esan nahi dialektologia desagertuko denik edo soziolinguistiikaren barruan txertatuko denik, inondik ere, justu kontrakoa baizik. Tesi honen aztergaiak dialektologiaren kezkei erantzuten die, ederki baitakigu gure garaiko hizkuntz gertakarien berri eman ezin duela-eta dialektologia ez desagertzeko bermerik onena jakintza-arloak uztartzen dituen metodoa erabiltzea dela.

6.1.2. Elkarrizketa

Azterketa honetan elkarrizketa ireki eta arautu gabea erabili dugu, honelako prozeduretan ez duelako garrantzi handirik inkestagilearen jardunak eta, gainera, hiztunak erosoago sentitzen direlako elkarrizketa-modu horrekin. Hizketaldiaren erritmoa naturalagoa izaten da eta, gaien aldetik dagoen askatasunari esker, elkarrizketa ez da galdera sorta hotz bat, lagunarteko edo senideen arteko elkarrizketen tankerako hizketaldi erosoa baizik.

Lagunarteko elkarrizketetako ohiko baldintzak errepikatu nahian, elkarrizketak egiteko garaian taldetxoak eratzen saiatu gara, ahal izan dugun guztietan. Taldeok bizpahiru berriemailez osatuta zeuden, eta inkestagileak hasiera batean egindako galdera bati erantzunez hasten ziren berriketan.

Inkestagileak berriemaileen ezagunak izatea bilatu dugu ahal izan dugun guztietan, konfiantza eta patxada ematen duelako horrek. Horrela jardunda, inkestagileak ez ditu berriemaileak bere hizketa-moldearekin baldintzatzen, edo egitekotan oso gutxi, biek ere aldaera bera erabiltzen dutelako. Inkestagileak *Lau Haizetara* elkarteko boluntarioak izan dira. Errenterian euskara sustatzeko lan egiten duen elkartea da *Lau Haizetara*.

Berriemaileen artean mesfidantza sor zezakeen gauza bakarra ikerlariak bertan egotea zen. Inkestagileek ikerlariak aurkeztu zituzten lanari ekin aurretik, eta haiek hitza hartzen zuten tarteka, interesa erakusteko eta errezelorik ez sortzeko. Kasu bakanen batean, antolakuntza arazoak zirela eta, ikerlaria bera izan da inkestagilea, baina ez dirudi horrek aldaketa nabarmenik eragin duenik inkestatuen hizkeran.

Guztira, 11 talde eta 31 elkarrizketa (E/H) grabatu dira:

-A-07-VII-11, I: Maialen Dorador, Maitane Lirazasoro eta Maialen Viaña (4 E/H).

-A-07-VII-11, II: Garbiñe Erriondo eta Edurne Erriondo (3 E/H).

-A-07-VII-12,III: Agustin Maritxalar, Maite Urretabizkaia eta Nekane Urretabizkaia (4 E/H)

-A-07-VII-16, I: Amets Badiola eta Ibon Toledo (3 E/H).

-B-07-VII-12, III: Mañoli Bautista (E/H 1).

-B-07-VII-13, I: Erdoitza Ayestarán eta Borja Arbelaitz (4 E/H).

-B-07-VII-09, II: Mari Jose Arizmendi, Loreto Salaberria eta José Luis Maritxalar (2 E/H).

-C-07-VII-10, III: Mikel Erriondo (3 E/H).

-C-07-VII-13, III: Maria Luisa Zabala (1 E/H).

-C-07-VII-13, I-III: Xixilio Maritxalar eta Haizea Maritxalar (3 E/H).

-C-07-VII-16, II-III: Jon Gaztelumendi eta Martin Gaztelumendi (3 E/H).

Jeneralean, hiru elkarrizketa grabatu genituen talde bakoitzeko. Lehenbizikoan galdera bat egiten zuen inkestagileak: herriko festen berri galdetzen zien edo umetan herria nolakoa zen, eskolarekin nolako txangoak egiten zituzten… guztia ere, berriemaileen adin-tartea kontuan hartuta. Gai horiek berriemaileak beren diskurtsoa lehenaldian osatzen hasteko aitzakia besterik ez ziren.

Bigarren elkarrizketan herriko festei buruz galdetzen zitzaien, grabazioak orduantxe egiten ari ziren, gainera. Bestela, euskal pilotaren joko-arauen berri galdetzen zitzaien, edo beste edozein gairi buruz, baina azalpenak orainaldian emateko moduko galderak eginez betiere.

Hirugarren elkarrizketak asmo zehatzagoa zuen, eta Errenteriako hizkerari buruz galdetzen zitzaien berriemaileei, beren esperientziatik hitz egiteko eskatuz, herriko hizkerari buruz zuten iritzia jasotzeko.

Noiz edo noiz laugarren elkarrizketa bat ere egin zitzaien hizketarako oso prest zeuden edo elkarrizketekin aspertuta ez egoteko itxura zuten berriemaileei. Azken elkarrizketa hori aurrekoak ez bezalakoa zen. Berriemaileei irudi batzuk erakutsi zitzaizkien. Bertan frutak, objektuak, panpinak ekintza batzuk egiten… agertzen ziren, eta berriemaileek istorio bat asmatu behar zuten irudi horietan oinarrituta.

6.1.3. Berriemaileen adin-tarteak eta aldaketa linguistikoa

Aurreko puntuan azaldu dugunez, berriemaileak hiru adin-taldetan banatu ditugu. Lehen taldean 57 urtetik gorakoak bildu ditugu; bigarren taldean, 26-56 urte bitartekoak; eta hirugarrenean, berriz, 17-25 urte bitartekoak.

Errenteriako hizkeran egondako hizkuntz aldaketa islatu nahian egin dugu banaketa hori. Agerikoa denez, aztergai hartutako hiru belaunaldi hauek oso erlazio desberdinak izan dituzte hizkuntzarekin. Diktadura garaian euskaraz jarduteko debekuak, euskara batuaren sorrerak eta euskararen koofizialtasunak, adibidez, hizkuntzara aldaketak ekarri dituzten egoera soziolinguistiko berriak eragin dituzte adin-talde bakoitzaren kasuan. Gorago azaldu dugunez, azterketa honen helburua Errenteriako hizkera inguruko hizkerekin genetikoki erlazionatzea eta sailkatzea denez gero, hiru belaunaldi horietan oinarritutako deskribapena egin beharko dugu, Errenteriako euskara erdiguneko hizkeretarantz jotzen ari den ala, aldiz, nafarreraranzko tarteko hizkeretara jotzen duen ikusteko. Gainera, hiztun gazteen hizkera aztertuta, biharko euskararen arrastoak aurkituko ditugu.

6.2. Errenteriako udalerriaren ezaugarri orokorrak: historia laburra eta hedadura geografikoa

Errenteriako udala Gipuzkoa ipar-ekialdean dago, Donostiatik hamar kilometro eskasera. Iparraldean Lezo, ekialdean Oiartzun, ipar-mendebaldean Pasaia, mendebaldean Astigarraga, Hernani eta Donostiako Altza auzoa eta hegoaldean Nafarroako Arano eta Goizueta herriak ditu mugakide.

Bere kokapen geografikoaren, lurralde-hedaduraren eta historia industrial eta ekonomikoaren ondorioz, Euskal Herriko udalerririk populatuenetako bat da Errenteria. INEren arabera[170], 38.505 biztanle zituen 2008an.

170. *Instituto Nacional de Estadística de España* [Espainiako Estatistika Institutua]. Datu gehiago eskuratzeko, jo webgune honetara: http: //www.ine.es/.

Errenteriako historia garaikidea XIX. mende amaieran hasitako industrializazioak markatu du, funtsean. Ekoizpen-ereduan egondako aldaketen ondorioz, lehen sektorean ziharduten asko hirigunera jaitsi ziren, industria sortu berrian lan egiteko. Horrekin batera, jende asko eta asko etorri zen Errenteriara bizitzera, bai Euskal Herriko beste lurralde batzuetatik, bai Espainiatik.

Adin-talde zaharrenekoekin egindako elkarrizketetan maiz aipatu da gai hori: herriak alor guztietan –hirigintzan, demografian, hizkuntzan– bizi izandako aldaketa sakona aipatzen dute denek. Adibide gisa, berriemaile zaharrenek kontatu ziguten, artean umeak zirela, beren senide batzuek gaztelaniaz jakin ez eta komunikatzeko arazoak izaten zituztela, ordurako gaztelania beharrezkoa baitzen herrian, immigrazioaren pisu handiaren eta euskara erabiltzeko debekuaren ondorioz. Berriemaile zaharrenek bizi izandako egoera soziolinguistikoak zeharo markatu zuen Errenteriako herria, berriemaile haien haurtzaro eta gaztaroan.

Errenteriak izandako immigrazio handiak oraindik ere sumatzen diren ondorioak izan zituen bertako hizkuntz egoeran: herritarren ehuneko handi-handia erdaldundu egin zen, garaiko egoera politikoak ere bultzatuta. Hori ikusita, ez da harritzekoa Errenteria izatea, hain zuzen, Gipuzkoan euskaldunen ehunekorik txikiena duen herria[171].

Egoera horri aurre egiteko, irabazi asmorik gabeko hainbat elkarte eta ekimen sortu dira herrian[172], euskararen erabilera bultzatu eta sustatzeko.

6.3. Errenteriako hizkeraren ezaugarri orokorrak

6.3.1. Azpi-euskalki hau nafar hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak

I. Bokal-erortzea, ahultzearen ondorioz: Aferesia galtzen ari da eta hiztun zaharrek noizean behin baino ez dute erabiltzen gaur egun. Adib.:

> *... edoziñ 'tortze zitzaizun...*[173] beste honen ordez: *...etortzen zitzaizun...*
>
> *...'kartzen digute...*[174] beste honen ordez: *... ekartzen digute...*
>
> *...denak 'sagut'ira...*[175] beste honen ordez: *... denak ezagutu dira...*

171. Eustaten arabera (EAEko Estatistika Erakundea), 2006an 4.333 euskal hiztun zeuden herrian, eta 28.801 erdaldun. Horietatik 3.850k bakarrik erabiltzen dituzte hizkuntza biak etxean. Ikus Eustaten webgunea, datu zehatzagoak lortzeko.

172. Euskara sustatzen diharduen *Lau Haizetara* elkarteak egindako lan bikaina nabarmendu behar dugu hemen.

173. C-07-VII-10, III:1.

174. B-07-VII-13, I:1.

175. C-07-VII-16, II-III:2.

II. Deus izenordaina: Hiztun zaharrek *deus* eta *ezer* erabiltzen dituzte, berdin-berdin.

c. Arrunt modifikatzailea: Hiztun zaharrenek ekialdeko *arrunt* eta mendebaldeko *oso* formak tartekatzen dituzte, baina *arrunt* forma gero eta gutxiago erabiltzen dute.

6.3.2. Azpi-euskalki hau erdialdeko euskarako hizkeretara hurbiltzen duten ezaugarriak:

I. Bokal-erortzea, ahultzearen ondorioz: Aferesia ez da ohiko gertakaria Errenteriako hizkeran, ez eta tarteko hizkeren mugakide diren hizkeretan ere. Gorago ikusi dugunez, aferesien adibiderik aurkitu dugu, baina ezin da hizkera honetako ohiko ezaugarritzat hartu, inola ere. Grabazioetatik ateratako datuetan, aferesiaren erabilera mailakatu egiten da: zaharrenen artean agertzen da, gutxituz doa helduen artean eta ia guztiz galduta dago gazteen artean. Adib.:

> *... edoziñ 'tortze zitzaizun...*[176] beste honen ordez: *...etortzen zitzaizun...*
>
> *...'kartzen digute...*[177] beste honen ordez: *... ekartzen digute...*
>
> *...denak 'sagut'ira...*[178] beste honen ordez: *... denak ezagutu dira...*

II. Amaierako /i/ eta /u/ tinbreei eustea: Aldaketa erregular samar horrez gain, Errenteria inguruko hizkeretan /i/ eta /u/ fonemak hitz-amaieran gelditzean jasaten duten aldaketa aipatu dugu gorago. Ikusi dugunez, beren tinbreari eusten diotenez, amaierako bokal horiek ez dute nafar hizkeretan agertzen zaigun irekitzeko joerarik. Dena den, kontsonante epentetikoei buruz aipatu dugun joera bera aurkitzen dugu Errenteriako hizkeran.

Egia da /i/-ren tinbrea ez dela aldatzen, mugakide diren gainerako hizkera guztietan eta tarteko hizkeretan bezalaxe, baina /u/-n amaitutako hitzetan ez da gauza bera gertatzen. Ezaugarri hori lehen taldean aurkitzen dugu bakarrik, eta galtzeko joera nabarmenarekin, gainera. Horrela ulertzen dira elkarrizketetan entzun ditugun *diro*[179], *kato* eta antzeko formak (euskara batuko *diru* eta *katu* formei dagozkienak, hurrenez hurren). Beste bi adin-taldeei dagokienez, amaierako bokalak irekitzeko joera galdu egin da eta erdialdeko euskararen ereduari jarraitzen zaio, euskara batuarekin bat eginez.

---

176. C-07-VII-10, III:1.
177. B-07-VII-13, I:1.
178. C-07-VII-16, II-III:2.
179. C-07-VII-13, III:1, "*... ordun jarri nitzan aparatu bat, diro pilla bat kostata...*".

III. Ezer izenordaina: *Deus* eta *ezer* formekin, aldiz, ez da gauza bera gertatzen. Bi formak entzun ditugu gure grabazioetan, baina batzuen eta besteen erabilera berriemaileen adin-taldeen arabera banatzen da.

Lehen adin-taldekoek bi izenordainak erabiltzen dituzte, bereizketarik egin gabe. Ezaugarri aipagarri eta interesgarria da hori, oro har, *deus* hartzen baita ekialdeko euskalkietako formatzat, eta *ezer* mendebaldeko izenordaintzat. Baina gorago ikusi dugunez, sortaldeko tarteko hizkera guztietan biak erabiltzen dira, eta esaldi berean biak nahastuta ere agertzen dira, inolako ñabardura bereizgarririk gabe. Geografikoki hizkera horien mugakide diren hizkeretan, aldiz, *ezer* bakarrik erabiltzen dela esan dugu. Hori guztia azaldu eta gero, lehen taldean ekialdeko forma mendebaldekoarekin lehian erabiltzen dela ikusi dugu. Adib.:

> *… uañ deus es, deus es* [*da Errenteriako hizkera*]…[180]
>
> *… ematen baldin badiot esertarako…*[181]

Era berean, bigarren adin-taldeko emaitzak aztertuz gero, *deus* forma ia desagertuta dagoela ikusten da. Talde horretan erabiltzen da oraindik tarteka-marteka[182], baina *ezerek* ia erabat ordezkatu du forma hori, eta gauza bera gertatzen da hirugarren taldeko berriemaileen hizkeran ere. Aztertu ditugun hiru belaunaldietan, ekialdeko ezaugarriak galtzeko joera berretsi dugu hemen ere.

IV. Oso modifikatzailearen erabilera: Lehenago aipatu ditugu mendebaldeko *oso* eta ekialdeko *arrunt* modifikatzaileak, eta Irunen, Hondarribian, Oiartzunen eta Aranon oraindik *arrunt* erabiltzen dela esan dugu, nahiz eta forma hori galtzen ari den mendebaldeko *oso*ren eraginez. Errenterian ere tarteko hizkeretan ikusi dugun joera bera agertzen zaigu. Hiztun zaharren artean *arrunt* forma entzuten da oraindik, baina *oso* da forma guztien artean gehien erabiltzen dena. Adib.:

> *… baño seon industri pilla't ta gañia arrunt esberdiña…*[183]
>
> *… oso aberatxa sen erriya…*[184]

Bigarren eta hirugarren taldeetan, gorago azaldu dugun joera jarraitzen du ekialdeko formak, eta mendebaldekoa forma zeharo baztertzen ari da ekialdekoa. Adib.:

> *… malla oso altua zan…*[185]
>
> *… Euskal erriak oso txoko polittak ditu…*[186]

---

180. C-07-VII-13, III:1.
181. C-07-VII-13, I-III:3.
182. A-07-VII-11, II:3.
183. C-07-VII-10, III:1.
184. C-07-VII-10, III:1.
185. C-07-VII-09, II:1.
186. B-07-VII-13, I:2.

V. *Izan* laguntzaile iragangaitza: Laguntzaile iragangaitzak *ez* du forma desberdin askorik Errenterian, kontrakoa baizik. Belaunaldi guztietan aurkitzen dugu homogeneotasuna eta, gure datuen arabera, egon diren aldaketak oso urriak izan dira.

	NOR orainaldia			**NOR lehenaldia**		
	1. taldea	**2. taldea**	**3. taldea**	**1. taldea**	**2. taldea**	**3. taldea**
1. sg.	*nais, nas*	*nais/naiz, nas*	*naiz, nas*	*nitzan, nintzan, nitzen*	*nintzen, nintzan, nitzen, nitzan*	*nintzen, nintzan, nitzen, nitzan*
2. sg.	*sea, sera*	*sea/zea, zera*	*zera, zea, zara*	*siñen*	*ziñen*	*ziñen, ziñan*
3. sg.	*da*	*da*	*da*	*sen, san*	*zen, zan*	*zen, zan*
1. pl.	*gea*	*gea, gera*	*gera, gea, gara*	*giñen, giñan*	*giñen, giñan*	*giñen, giñan*
2. pl.	*seate, seaste*	-----	*zeaste/seaste*	----	*ziñaten, ziñeten*	*ziñaten*
3. pl.	*dia, dira*	*dira, dia*	*dira, dia*	*sien/siren, sian*	*zien/ziren, zian*	*zian, zien*

Taula aztertuta, badirudi laguntzaileak aldaketa handirik gabe eutsi diola hiru belaunaldietan. Orainaldiko adizki gehienetan, adibidez Donostialdean erabiltzen den eredutik ia batere aldatzen *ez* den erdialdeko adizkera ikusten dugu. Horrela interpretatu behar ditugu *sea-zera* eta *gea-gera* formak, behintzat, horiek izanik gehien erabiltzen direnak. Adizki horien ondoan *zara* eta *gara* aurkitzen ditugu hirugarren adin-taldean. Forma horiek *ez* dira erdialdekoak, eta erabiltzen badira *ez* dira nafarreraren edo ekialdeko hizkeren eraginez erabiltzen. *Zara* eta *gara* adizkiak (*zera* eta *gera*rekin lehian) *ez* dira inondik ere gazteek gehien erabiltzen dituztenak. Adizki horiek hiztun-talde horrengan jaso ditugu bakarrik, baina gazteek irakaskuntzaren bidez jasotako euskara batuaren eragina zor zaio hori, zalantzarik gabe.

*Nais-naiz/naz*i dagokionez, Yrizarrek (1992:546) aipatua zuen bikote hori eta Errenterian, Lezon eta Pasai Donibanen erabiltzen zela esaten duen, *nas* forma galtzen ari zela nabarmenduz. Gure datuek berretsi egiten dute Errenterian bi forma horiek erabiltzen direla eta *naiz*ek lehentasuna duela *nas*en aurretik. *Nas*en desagertzeko joera hori askoz nabarmenagoa da, gainera, belaunaldi gazteen artean.

… ta jubilatu in nas…[187]
…enaiz goatzen nola zen…[188]
…ni jun naiz…[189]

187. C-07-VII-10, III:2.
188. A-07-VII-11, II:1.
189. A-07-VII-11, I:2.

Seaste/zeaste adizkiek bestela jokatzen dute. Bigarren adin-taldeen artean nola erabiltzen diren erakusten duten daturik ez badugu ere, *seaste/zeaste* forma hori bizirik dago lehen eta hirugarren taldeetan, *seate/zerate* adizkiekin lehian. *-z-* morfema pluralgileari dagokionez ([s] ahoskera duena hemen) ikus 4.1.2. atala.

Laguntzaile honek lehenaldian dituen formak aztertuz gero, forma arruntenak *-en* atzizkia dutenak direla ikusi dugu, eta ezaugarri hori hiru taldeetan agertzen da. Hortan bat datoz euskara batuko formekin, eta beharbada horrek eragina izan du forma horiei eusteko garaian. Dena den, ez dugu ahaztu behar *-an* atzizkian bukatzen diren formak ere ezagunak direla Errenterian eta askotan erabiltzen direla.

Azkenik, aurreko taulan ikusten denez, Errenteriako hizkeran zukaren aditz-jokoa jaso dugu bakarrik, Yrizarrek hikari dagozkion adizkiak jaso bazituen ere, hikako hizkera zeharo galdua baitago hiztun askoren artean, hirigunean bereziki.

VI. /e/ erroarekin eratutako aditz trinkoak: Oso interesgarria da lehenaldiko formekin gertatzen dena ikustea, forma horiek ekialdeko eta mendebaldeko hizkeren arteko isoglosa finkatzeko erabili izan baitira tradizionalki. Errenteriako hizkerak ohiko bideari jarraitzen dio hemen ere, hau da, mendebaldeko ereduarekin bat egiteko joera dauka. Lehen adin-taldean bereziki /a/-dun formei eutsi egiten zaie mendebaldeko /e/-dun formekin batera. Hala, *saon* aurkitzen dugu, *seon*en ondoan, esate baterako. Dena den, aipatu dugun joera lehen taldean ere somatzen hasia dago, ekialdeko adizkiak galtzen ari baitira mendebaldekoen eraginez. Hala eta guztiz ere, bigarren taldean eta, oso noizean behin, hirugarren taldean ere *zagon* entzun dugu, nahiz eta *zegon* izan gehien-gehienetan erabiltzen dena.

Ekialdeko formen indarra eta eragina gainbehera nabarmenean dago hiru adin-taldeetan oro har, eta bigarren eta hirugarrenean bereziki, eta azken bi talde horietan /a/-dun lehenaldiak oso oso gutxitan erabiltzen dira. Adin-talde bakoitzeko adibide bana emango dugu:

> … *Gure osabak ere etzakien, gure amak ere gaiski sakien erdaras*…[190]
>
> … *baserrian piszina-eta zakatela*…[191]
>
> … *nik ez nauken gogo geyagorik baña juan giñen*…[192]

Esan bezala, /e/-dun formak dira ohikoenak. Adibide batzuk:

> … *eta nik banekin*…[193]
>
> … *ta ordun ez genekien nun*…[194]

190. B-07-VII-12, III:1.
191. A-07-VII-11, II:1.
192. A-07-VII-26, I:1.
193. C-07-VII-09, II:1.
194. B-07-VII-13, I:2.

Nabarmentzekoa da, halere, lehen taldeak mendebaldeko formak ezagutu eta erabili arren, gure grabazioetan ekialdekoak erabili dituela gehienbat: *nakien*[195], *naukan*[196] eta antzeko formak entzun dizkiegu adin-talde horretako hiztunei.

VII. **edun* laguntzaile iragankorra */e/* erroarekin: Euskal dialektologiaren historian hizkerak sailkatzeko erabili izan den beste ezaugarri klasiko bat laguntzaile iragankorra izan da. Nafarreran eta ekialdeko hizkerek laguntzailea */u/* erroarekin osatzen zutela pentsatu izan da tradizionalki eta, hortaz, *dut, duzu, dugu…* formak partekatzen zituzten. Mendebaldeko blokeko euskalkiak izango genituzke beste muturrean.

Errenterian erro bat nahiz beste erabiltzeari buruz Mitxelenak esandakoa jaso zuen Yrizarrek (1992:555):

> "*Nire ustez,* dut*, etab. dira formak.* Deti *dagokionez, sexuan datza aldea. Ez diot inoiz emakume bati forma hori erabiltzen entzun (Mitxelenak nabarmenduta). Gure garaian, bi sexuetako umeak* dut *erabiltzen hasten ziren eta gero pasatzen ziren* det *formara, gizon helduen eraginez. Irudipena daukat forma trinkoetan, gizonek* eitteut, -euk, -euzu, *etab. esaten dutela oraindik".*

Mitxelenaren iritziz, beraz, forma bakoitza sexu bati lotuta zegoen, nahiz eta hasi denak hasten ziren *dut* erabiltzen, emakumeek haurren heziketan zuten eragin izugarriaren ondorioz, seguruenik. Zuazok (2003:129) erantsi zuenez, sexuaz gain komunikazio-testuinguruak ere eragina zuen horretan, eta komunikaizo-egoera lasaietan (lagunartean, adibidez), */u/* errodun formak gehiago erabiltzen omen ziren.

Gure grabazioetan bildutako datuen arabera, ezin dezakegu esan forma bat ala beste erabiltzeko garaian hiztunaren sexuak eragina duenik, guk elkarrizketatu ditugun hiztunek bi formak erabiltzen baitzituzten, gizon nahiz emakume izan. Hortaz, badirudi Mitxelenak aipatutako bereizketa zeharo galdua dagoela gaur egun gure datuen arabera. Gainera, lehen taldeko hiztunen artean ere ez dugu bereizketa haren arrastorik aurkitu. Oraintxe esan duguna berresteko, emakumezko hiztunek *det* erabiltzen duteneko hiru adibide jaso ditugu hemen:

> *…baña nik buruan baldin badet kolore bat edo figura bat…*[197]
>
> *…nik ezagutu det beranduago Landarrekiñ-eta…*[198]
>
> *…esdet disfrutatzen emen…*[199]

195. C-07-VII-13, I-III:2.
196. C-07-VII-10, III:1.
197. C-07-VII-13, III:1.
198. A-07-VII-11, II:1.
199. A-07-VII-11, I:1.

Gaur egun badirudi forma bat nahiz beste erabiltzea gauza arrunta dela bi sexuen artean, eta ezin dela iragarri forma bakoitza noiz erabiliko den.

Ikusi dugunez, Pasaian eta Astigarragan */e/* erroko formak erabiltzen dira bakarrik eta Lezon */u/*-dun formak dira unibertsalak. Errenteriako hizkerak erdialdeko euskararanzko joera izan arren biak erabiltzen dituenez, ezaugarri horretan ere *dute*tik *det*erako aldaketa leunki prestatzen duen hizkera bihurtzen da.

	NOR orainaldia			**NOR lehenaldia**		
	1. taldea	**2. taldea**	**3. taldea**	**1. taldea**	**2. taldea**	**3. taldea**
1. sg.	*det, dut // ditut, dittut, ttut*	*dut, det // ditut*	*det, dut // ditut, dittut*	*nun, nuen // nittun*	*nun, nuen // nitun*	*nun //nitun, nittun*
2. sg.	*dusu, desu // ?*	*dusu, desu // dituzu*	*duzu, dezu //?*	*senun //?*	*zenun // zenitun, zen'tun*	*zenun //?*
3. sg.	*du //dittu, ditu*	*du // ditu*	*du // ditu, dittu*	*sun, suen // sittun*	*zun, zuen // zitun, zituen*	*zun, zuen // zitun*
1. pl.	*dugu, degu //dittugu, ditugu*	*dugu, degu // ditugu*	*degu, dugu // ditugu*	*genun, ginun //genittun, genitun*	*genuen, genun // genitun, genituen*	*genun, genuen // genitun, genittun, genituen*
2. pl.	*desue, desute // dittusute*	*duzue // dituzue*	*dezute*	*?*	*zenuten //?*	*zenuten*
3. pl.	*dute //dituste*	*dute // dituzte, dituste*	*dute // dituzte, dittuzte*	*suten // sittusten, situsten*	*zuten // zitusten*	*zuten // zituzten*

Datu aipagarri bat ikusten dugu taulan: lehen eta hirugarren multzoko adizkiek bat egiten dute askotan, eta bigarren multzokoek */u/* erroa hartzen duten gehienetan. Hori ez da harritzekoa, adin-tarte horretako hiztunak izanik herriko gaztelaniaratze-prozesua gehien jasan duena. Hiztun horietako askok zalantzak zeuzkaten etxean ikasitako euskararekin eta sozializatzeko hizkuntza hori erabiltzerik izan ez dutenez, euskaraz alfabetizatzeko ikastaroak egin dituzte, baina halakoetan euskara batua eredu egoki gisa irakatsi diete, etxean ikasitako euskararekin kontrajarrita. Beharbada azalpen bera izango du objektu pluralari dagozkion forma bustian lehen eta hirugarren taldeetan bakarrik agertzea, busti gabeko formen ondoan, eta bigarren taldeak, aldiz, busti gabeko formak erabiltzea, hori baita euskara batuaren eredua eta Donostian erabiltzen dena[200].

200. Ik. Camino, in Zuazo (2000:68).

Azkenik, lehenaldiek eredu paneuskerikoa erabiltzen da lehenaldietan -(*a/e)n*, nahiz eta kasuren batean (hiztun bakarrean aurkitu dugu) /n/ erortzen den, nafar ereduari jarraiki. Adib.:

> *... ta illak e asko ikus'nitu...* baina *... amabi nittun, amabi urte...*[201]

VIII. -*te/tze* aditz-izena: Aditz-izenetan erdialdeko euskaren eredua erabiltzen da bete-betean. Halere, Mitxelenak jasotako forma batzuk aipatu behar ditugu hemen (1950:92). *Bazkaitten*, *afaittea*, etab. moduko formez ari gara, aditz-izen horien -*itte* amaiera ikusita (guztiz irregularra eta kasu gutxi batzuetan baino agertzen ez dena), badirudi hitzon erroa ez dela bazkal- eta afal-, bazkari eta afari izenak baizik. Mitxelenak dioenez, mendebaldeko aditz-izenen osaerari buruz jardun dugunean aipatu ditugun egiturekin du zerikusia. Izen-oinari -*(k)eta* atzizkia gehituta eratzen ziren aditz-izen haiek.

Dena den, -*itte* aditz-izena guk ez dugu gure grabazioetan entzun, eta pentsatzekoa da sistema -*ite/itze* formen alde erregularizatzeak ekarriko zuela Mitxelenak aipatutako -*itte* morfemaren kasu bakanak galtzea.

IX. Kausazko morfemak: Puntu honetan ere hizkeraren mendebalderanzko joera nola sakontzen ari den ikusi dugu. Hala, *bait-* kausazko atzizkia oso gutxitan entzun dugu lehen taldean, are gutxiago bigarrenean, eta hirugarrenean zeharo galduta dagoela ematen du. Gainera, atzizki hori kausak adierazteko erabiltzen da bakarrik eta, beraz, ez du erlatibozko atzizki gisa jarduten. Adib.:

> *...orduan kostumbre aundia zeon-ta ta z'arrun e asko baizeon irekita...*[202]

Zentzu berean ulertu behar dugu -*lakos* kausazko atzizkiaren atzerakada -*lako*ren mesedetan. Gorago aipatu dugunez, -*lakos* hori tarteko hizkeretan eta are Pasai San Pedroko eta Lezoko hizkeretan ere erabiltzen zen. Errenterian atzeraka doa atzizki horren erabilera eta hiztunek esaldi berean nahastuta erabiltzen dute batzuetan -*lako* formarekin batera. Ez dugu ekialdeok atzizki horren adibide askorik aurkitu, eta agertu den kasu gutxietan lehen taldeko hiztunen ahotan agertu da. Hona hemen talde bakoitzeko adibide bana:

---

201. Biak ere C-07-VII-16, II-III:1 grabaziotik atereak.

202. C-07-VII-16, II-III:2. "*Nola sartu zen orduan, ola?*" galderaren erantzuna da adibide hau. Jendea pilotan jokatzen nola hasten zen galdetzen zen, eta hori horrela zergatik zen azaltzen du gure berriemaileak, horretarako arrazoiak azalduz.

... oittuta saudelakos egiya dela...[203] baina *... pues beti eondu delako...*[204]

...zuek ikasten ai ziñelako...[205]

...belarria jarri zigulako...[206]

X. Mendebaldeko lexikoaren nagusitasuna: Lehenik eta behin esan behar dugu gaur egun Errenterian erabiltzen den lexiko gehiena paneuskerikoa eta giputza dela. Halere, horrekin batera mendebaldeko hitz asko aurkitzen ditugu, hala nola, *elkar* beharrean *alkar*, *erdara* eta *euskara* beharrean *erdera* eta *euskera*, *guti* beharrean *gutxi*, *oroitu* beharrean *go(gor)atu*, *erran* beharrean *esan*, *guzi* beharrean *guzti*, *bezala* beharrean *bezela*, *hetsi/hertsi* beharrean itxi eta *aiton* eta amona, etab. Aztertutako hiru hiztun-belaunaldietan aurkitu ditugu halakoak. Eta hitzon ondoan ekialdeko formak ere entzun ditugu, haiekin lehian.

Baina forma horiekin batera, Errenteriako hizkera mugakide dituen ekialdeko herrietako hizkerekin lotzen dituzten formak aurkitzen ditugu (iraganean gehiago, forma horietako asko galtzen ari dira eta). Lexiko horrek lehen taldean jarraitzen du bizirik, baina gero eta hedatuago dauden mendebaldeko formekin lehian. Hori ikusita ez da harritzekoa ekialdeko forma horiek galduz joatea hurrengo belaunaldien hizkeran. *Entzun*en ordez *aittu*, *diru*ren ordez *xoxa*, *ezer*en ordez *deus*, *oso*ren ordez *arrun*, *pozik*en ordez *konten* dira aipatu berri ditugun forma horietako batzuk.

Azkenik, herriko bertako formei dagokienez, adibide hauek aurkitzen ditugu: *ibai* beharrean *erriyo/irriyo*, *agur* beharrean *ayo*, etab. Mitxelenak (1950) aipatutako *okondo (okalondo)* eta *laga/laja (utzi)* formak ez ditugu hemen jaso, guk bildutako datuetan ez delako halakorik agertu.

6.3.3. Ezaugarri lokalak

I. *Tinbreak nahastu eta aldatzea:* Jarraian beste bokal bat izanez gero, /e/tik /i/ra eta /o/tik /u/ra egiten den aldaketa aipatu behar dugu hemen, oso hedatuta dagoen fenomeno hori Errenteriako hizkeran ere agertzen delako. Hiru taldeetan berdin azaltzen zaigu, 2. eta 3. taldeetan sistematikoa ez izan arren, seguruenik euskara batuaren eraginez.

203. C-07-VII-13, I-III:2.
204. A-07-VII-12, III:2.
205. A-07-VII-11, II:1.
206. A-07-VII-16, I:1.

... bi Galizikuak...[207]

... geo kalian...[208]

... aste osúan...[209]

Atzetik bokal bat dutenean, /i/ eta /u/ bokalen ondoan agertzen diren kontsonante eta erdi-kontsonante epentetikoak ere aipatu ditugu lehenago. Aztergai dugun kasuan, berriemaile zaharrenen artean guztiz erregularra da /i/ bokalaren atzean /j/ bat sartzea. Hona hemen gure grabazioetatik ateratako adibide batzuk: *gustiya, erriya, berriya, jatorriya, aulkiya, garbiya, biyurtu, memoriya...* Bestalde, /u/ bokalak ez du /b/ kontsonanterik sortzen normalean, baina bokalartean gelditzean /b/ bihurtzen da zuzenean. Adib.: *abek*[210] < *hauek*.

Ezaugarri hori bizi-bizi dago hiztun zaharren artean, baina galtzen ari da beste bi taldeetan. Azken bi taldeotan 1. taldean entzun ditugun forma "tradizionalak" euskara batuko formen ondoan agertzen dira. Hemen jasotako adibideak, 2. eta 3. taldeekin egindako grabazioetatik atera ditugu: *gustia/gustiya*, *distantzia, marrubiyak, biyar, ilusio*, etab. Hiztun berak bi formak erabiltzen ditu berdin-berdin, baina badirudi euskara batukoa dela nagusi.

Kontsonantismoari dagokionez, tinbre-aldaketa txistukari jakin batzuen neutralizaziora mugatzen da, inguruko hizkeretan ez bezala, dauzkagun datuen arabera, errotazismoak eragina baitauka hemen.

Lehenago esan dugun bezala, Errenteriako hizkeran (inguruko hizkera gehienetan bezala) nahastu egiten dira igurzkari hobikari ahoskabea (<*s*>) eta igurzkari apikari-hobikari ahoskabea (<*z*>)[211]. Bi fonema horien neutralizazioak indartsu jarraitzen du Errenteriako hizkeran, eta lehen taldeko hiztun guztiengan behintzat agertzen da, bai eta bigarren taldeko gehienengan ere, nahiz eta indar gutxiagoz. Hemen jasotako adibideak, 1. eta 2. taldeenak dira:

... Oriok isan sun indarr'aundia...[212]

... Gero ere isaten da ikusgarria bakoitzak arropa eramaten dun bere kolorea...[213]

Gazteen hizkerara gerturatu ahala, hau da, euskara idatzian eta euskara batuarekin ohituago dauden hiztunekin jardutean, ezaugarri hori ahuldu egiten dela ikusi dugu.

---

207. A-07-VII-12, III:2.
208. A-07-VII-11, II:2.
209. B-07-VII-13, I:1.
210. C-07-VII-10, I:2.
211. <*ts*> eta <*tz*> nahastu egiten dira tarteka-marteka: *arratzaldea*, adibidez, *arratsaldea*ren ordez.
212. A-07-VII-12, III:2
213. Bi adibideak ere grabazio honetatik atera ditugu: A-07-VII-12, III:2.

Txistukarien neutralizazioarekin jarraituz, <*ts*>/<*tx*> bikotea aipatu behar dugu. Bi fonema horiek bat egiten dute <*tx*> forman hiru taldeetan, eta, gorago aipatu dugunez, joera hori oso hedatuta dago euskara osoan. Adib.:

...es disu onek erakutxi?...[214]

...frantxesez abesten...[215]

Bustidurari dagokionez, Errenterian erabiltzen da, baina ezaugarri hori ez da beste herri batzuetan bezain sistematiko eta indartsua hemen. /*t*/ kontsontatea bustitzen da normalean, eta /*s*/ ere, oso kasu zehatzetan. Hala, lehen taldean forma hauek entzun ditugu: *ekusko'ixkisut*[216], *oittuta saudelakos*[217], *ta primera itte'ute*[218], etab. Kasu zehatz batzuetan, bustidura areagotu eta afrikari sabaikari ahoskabea ere eman dezake. Adib.: *oitxurak*[219], *o(h)itturak*[220] beharrean.

/nd/>[ɲ] bustidura aipatuko dugu, bestalde, labur bada ere. Bibliografian haren berri ematen bada ere, gure grabazioetan ez dugu halakorik entzun[221].

Bigarren taldean, maitasunezko hipokoristikoetara mugatzen da erabilera hori, eta testuinguru fonetikoak ez du eragin handirik hortan. Adibide batzuk: *oso politta da*, *ordun sufrittu dugu*. Talde honetan, halere, ez da lehen taldean bezain erregularra. Adib.:

nere attai [...] deitzen tzioten naparra

beste honen ondoan:

aitak orain izango lituske larogeitamabost urte[222]

Azkenik, hirugarren taldean testuinguru fonetikoak eragindako bustidura galtzen ari da:

an artzak ikusi genitun[223]

---

214. C-07-VII-13, III:1.
215. A-07-VII-16, I:1.
216. C-07-VII-10, III:2.
217. C-07-VII-13, I-III:2.
218. B-07-VII-12, III:1.
219. C-07-VII-13, I-III:1.
220. Fenomeno hori ez da ezohikoa. *Gutti* eta *ttiki*tik eratorritako *gutxi* eta *txiki* formak, adibidez, oso hedatuta daude eta horren adibide garbia dira. Fonema hori oso gutxi erabiltzen da funtzio hipokoristikorako ez bada, eta horregatik gertatzen da [tʃ]-rekiko bat-egitea.
221. I. Caminok (in Zuazo 2000:69) *izandu*tik datorren *izañu* forma jasotzen du, esate baterako.
222. Adibide hauek guztiak hemendik atera ditugu: C-07-VII-09, II:2.
223. A-07-VII-11, I:2.

baina,

poteak artu genittun[224]

Maitasun-ñabardura adierazteko, halere, erabiltzen da oraindik. Adib.: *nere kuttuna*[225], *goxo-goxo*[226].

Nolanahi ere, ezin aipatu gabe utzi Lezo eta Errenteria Pasai Donibanetik eta Pasai San Pedrotik banatzen dituen isoglosa, /t/-ren bustidurari dagokionez besterik ez bada ere.

II. Tinbreari eustea: Puntu honekin amaitzeko, diogun Errenteriako hizkeran (eta inguruko gainerako hizkeretan) /a/ berezkoari -*a* artikulua gehitzen zaionean ez dela inolako disimilaziorik edo luzapenik egiten. Bi fornema horiek bat egitean /a/ da emaitza komun eta bakarra. Adib.:

…Ainara neska da…[227]

Bestalde, Mitxelenaren arabera (1950:93), *atera, bota, laja, pasa, tira* motako partizipioen absolutibo singular eta pluraletan -*a* bokalaren disimilazioa gertatu eta *ateria*, *botia*, *lajia*, *pasiak*, *tiriak*[228] esaten omen zen, baina guk behintzat ez dugu horren adibiderik aurkitu.

III. /z/ aditz-morfema pluralgilea: Errenteria inguruko hizkerak aztertu ditugunean eta laguntzaile iragangaitzeko adizkiez jardun dugunean aipatu dugu berrikuntza hau, dagoeneko. Errenteriako hizkeran beste adibide bat aurkitzen dugu gainera: *dagoste*, *dauderekin* lehian. Berez, antzeko formak ikusi ditugu lehenago, inguruko hizkerez aritu garenean, eta Pasai Donibaneko *doste* adizkia aipatu dugu, adibide gisa. Bi joerak erlazionatuta, harritzekoa da bokal arteko /g/ eta guzti gordetzen duen halako forma arkaizante bati eustea.

IV. *Zergatik* menpeko kausazko perpausetako lehen hitza gisa: Kausazko menderakuntzak berezkoa duen eransketarekin batera, galderak egiteko perpaus hasieran *zergatik* erabiltzen duen egitura analitiko bat erabiltzen da. *Zergatik* hori ez da Errenteriako ezaugarria bakarrik, baina oso hedatuta dagoenez ezin aipatu gabe utzi. Gaztelaniak euskaran duen eraginaren ondorioz sortua da egitura hori, zalantzarik gabe, erromanikoaren kalko garbia baita. Hala, *zergatik*en erabilera oso arrunta da juntagailu gisa, lehen taldean bereziki. Euskaraz eskolatu eta alfabetizatuta egoteak egitura hori gutxiago erabiltzea dakar, bigarren eta hirugarren taldeetan ikusi dugunez. Adib.:

224. B-07-VII-13, I:2.
225. B-07-VII-13, I:4.
226. A-07-VII-11, I:4.
227. C-07-VII-13:I-III:1.
228. Agirretxek (2000:238) hau aurkitu zuen Lezon: "… *kanpoa ateria*…".

…biño eskondu san con un carabinero, sergatikan orduan Jaiskibel era muy…[229]

…ta jende asko etortzen dala-eta, seatik erromeria esda bakarrikan emen egiten…[230]

D ZATIA: ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

7. Ondorioak

Dakigunez, dialektoek eta hizkuntzek hizkuntz *continuum* bat osatzen dute geolinguistikarentzat, eta *continuum* horren arabera ulertzen dira dialekto eta hizkuntza bakoitzeko eraikuntzak, egiturak, fonologia-arauak, etab. Inguruko herrietako hiztunekin izandako harreman kulturalek, komertzialek, etab. beren aztarna uzten dute hizkuntzan. Hori dela eta, Nafarroako Erresumak Gipuzkoarekin zeuzkan harremanak azaldu ditugu hemen. Hala, Hondarribia Nafarroako Erresumako portua zen, eta hemen aztergai hartu ditugun Gipuzkoako ipar-ekialdeko herriak Baionako elizbarrutiaren barruan zeuden. Geroago, Nafarroako Erresuma desagertu eta gure herria administratiboki zatikatzean, herri horiek Gipuzkoara begira jarri eta bertako herriekiko loturak sendotu behar izan zituzten.

Ikusi dugunez, harreman horiek guztiek beren eragina izan zuten hizkuntzaren esparru guztietan. Hori kontuan izanda, eta trantsiziozkotzat jotzen diren hizkeren erabilera-eremua zedarritu eta gero, bi helburu genituen lan honetan: batetik, hizkuntza aldetik ekialdeko talderanzko trantsitzioko erdiguneko hizkeren "mugakide" ziren herrien berezitasun linguistikoak deskribatzea, eta, bestetik, Errenteriako hizkera sakonean aztertzea, hiru adin-talde kontuan hartuta, gaur egungo hizkera dagokion euskalkian sailkatzeko.

Jorratu ditugun alor linguistikoak (fonetika, morfologia, hitz-elkarketa eta eratorketa, sintaxia eta lexikoa) banan-banan azalduko ditugu:

7.1. Fonologia

- Hizkera hauen sistema fonologikoa aztertuz gero, jeneralean erdialdeko euskararen kasuan aipatu dugun hasierako eskemarekin bat datorrela ikusiko dugu. Hizkera hauetan antzinako /j/ fonema [χ] ahoskatzen da. Zenbait kasutan, berrikuntza hori areago garatu da Hondarribian eta Irunen, eta hitz gutxi batzuetan [f] ahoskatzen da /j/ hori. Aipatutako berrikuntza gorabehera, erdialdekotzat jotzen ditugun isoglosen barruan mantentzen dira.

229. B-07-VII-12, III:1.
230. A-07-VII-11, II:2.

Halere, mugaren alde bietako zenbait herritan murriztu egiten dute txistukarien sistema. Horixe gertatzen da Irunen eta Hondarribian (sortaldeko azpi-euskalkian) eta Pasai Donibanen eta Pasai San Pedron (erdialdeko azpi-euskalkian). Errenterian gorabeherak ikusten ditugu, eta <*z*> eta <*s*> bereizteko garaian, eta hiztunaren adinak eta euskaraz alfabetatua egoteak dute eragina hor.

Gainerako herrietan, berriz, ondo-ondo bereizten dira bi fonema horiek.

- Aferesiak azpi-euskalkien arteko mugaren arabera bereizten ditu bi hizkera-multzoak, eta erdialdeko azpi-euskalkiak ez du nafarreraren ezaugarri hori. Halere, joera hori ez da uniformea Errenteria osoan, azterketa honetan zehar aipatu dugun aldaketa linguistikoak erakutsi digunez, mendebalderako joera baitu bertako hizkerak. Hiztun zaharrek aferesia egiten dute eta beste bi adin-tartekoek, berriz, gainditua dute.
- *-i/-u*-n amaitutako izen-enborren atzean kontsonanteak edo erdi-kontsonanteak sortzea eta *-e/-o*-n amaitzen direnak ixtea modu berean egiten da mugaren alde bietan. Errenterian aipatutako joera bera aurkitzen dugu hemen ere: zaharrek erabilitako hitz batzuetan agertzen da ezaugarri hori, baina ez, aldiz, heldu eta gazteen hizkeran.
- Errotazismoak ere indar handi samarra du bi azpi-euskalkietan.
- Bustidura ohiko fenomenoa da.
- Herskari ahostunak ahultzea ere bi aldeetan gertatzen da, bai eta */t-k/* fonemak */n/* eta */l/* atzean ahostun bihurtzea ere.

7.2. Morfosintaxia

- Izenen morfologia oso homogeneoa da ingurune honetan. Mugagabea eta mugatu plurala forma bakarrean nahasten dira hemen. Dena den, prosodiaren bidez bereizi egiten dira bi formak eta, hortaz, azentuari esker dakigu bi formetako zein daukagun kasu bakoitzean. Hori esanda, halere, gutxi-asko hedatutako zenbait berrikuntza aipatu behar ditugu. Irunen eta Hondarribian erabiltzen duten *-ake(r)i* datiboa, adibidez, ez dago herri horietatik kanpo hedatuta, eta singularrean *-an* eta pluralean eta mugagabean *-i/ri* duten aldaerak aurkitzen dira nonahi.

  Desberdintasun eta berrikuntza txiki horiek alde batera utzita, aztergai hartutako bi azpi-euskalkietako hizkeretan erdialdeko euskarak darabiltzan bukaera berberak erabiltzen dira, eta ekialdeko joeretatik aldentzen dira, beraz.

- Aditzen morfologiari dagokionez, adizkiak oso homogeneizatuta badaude ere, hizkera hauek hiru berezitasun dituzte. Batetik, hemen aztertu ditugun sortaldeko azpi-euskalkiko hizkerek erdialdeko eta ekialdeko adizkiak txan-

dakatzen dituzte, bai aditz trinkoetan, bai aditz perifrastikoetan, eta hizkerak bi aukera horietako bat ala beste erabiltzen dute, pertsona gramatikalaren arabera. Bestalde, erdialdeko azpi-euskalkiko hizkerek joera desberdinak dituzte. Batzuek erdialdeko adizkiak erabiltzen dituzte gehienbat, beti-beti ez bada ere. Hala gertatzen da Astigarragako, Pasai Donibaneko eta Pasai San Pedroko hizkerekin, adibidez. Beste hizkera batzuek, berriz, sortaldeko azpi-euskalkirako joera dute, Lezokoak, adibidez. Beste kasu batzuetan, erdialdeko eta ekialdeko adizkiak erabili arren, ekialdeko formekin bat egiteko joera agertzen da, Errenteriako hizkera erdialdeko azpi-euskalkian agertzen diren bi joeren erdibidean dago. Badirudi bi joeren arteko bateragunea dela Errenteriako hizkera eta, hortaz, hizkera horrek, bere zubi-lanari esker, leundu egiten du forma batzuetatik besteetarako aldaketa, nolabait ere.

Azkenik, inguru honetako bertako berrikuntza batzuk aipatuko ditugu, ez mendebaldekoak, ez ekialdekoak, ez erdialdekoak, ez nafarrerakoak ez direnak. Sortaldeko (Hondarribian eta Oiartzunen) nahiz erdialdeko (Pasai Donibanen, Pasai San Pedron, Lezon eta Errenterian) azpi-euskalkietako zenbait adizkitako pluraleko *-z* morfema dugu horren adibide bat. Isoglosek ezaugarri horren barruan biltzen dituzte herri horiek guztiak.

- Elkarketari eta eratorpenari dagokienez, ez dugu aldaketa handirik aurkitzen, eta bi azpi-euskalkietako hizkerek eratorpen-bide eta -atzizki berberak erabiltzen dituzte.

  Dena den, bi eratorpen-atzizki nabarmendu behar ditugu: *-ketari* atzizkia, batetik, Irungo, Oiartzungo eta Hondarribiko hizkeretan eta, bestetik, Lezoko, Pasai Donibaneko eta Pasai San Pedroko hizkeretan erabiltzen dena, hau da, erdialdeko azpi-euskalkiaren ekialdeko muturrean dauden herrietako hizkeretan (nahiz eta gure datuetan halakorik jaso ez dugun).

  -yera dugu nabarmendu beharreko beste atzizkia, eta hori Irunaldeko herri guztietan eta Errenterian erabiltzen da[231].

- Sintaxian sartuta, hemen ere oso txikiak dira hizkera hauen berezitasunak baina, zenbait kasutan, berezitasun horiek funtsezkoak dira hizkerak azpi-euskalkietan banatzeko garaian.

  Bait- aditz-atzizkiak erlatibozko esplikatzaile gisa duen erabilerari helduko diogu orain. Erlatibozko *bait-* atzizkia ohikoa da Irunaldean (nahiz eta gaur egun hiztun zaharren artean baino ez, seguruenera). Erdialdeko azpi-euskalkiko hizkeretan, berriz, kausazko adberbial gisa baino ez da erabiltzen *bait-* eta, hortaz, alderdi horretan erdialdeko euskararekin bat egiten du hizkera horrek.

231. Gure datuetan *-yera* atzizkirik agertzen ez bada ere, aipatutako bibliografian agertzen da.

Atzizki honi buruz ari garela, azpi-euskalkiaren alde bietara erabiltzen diren atzizki menderatzaileak aztertu eta alderatuko ditugu. Hala, ikusi dugunez, *-elarik* atzizkia balio modalarekin Irunaldean erabiltzen da bakarrik eta ez da erdialdeko azpi-euskalkiko beste hizkera batzuetara zabaldu.

-lako/lakoz kausazko atzizkiaren kasuan, emaitza bitxiak aurkitu ditugu. Gorago azaldu dugunez, mendebaldeko blokean *-ko(t)z, -lako(t)z,* etab. erabiltzen dira kausazko perpausak eratzeko, eta erdialdeko euskaran (eta mendebaldeko talde osoan, oro har), aldiz, *-ko, -lako* erabiltzen dira. Hemen aztergai ditugun hizkeretan atzizki horiek nola erabiltzen diren aztertuz gero, hizkera guztiek mendebaldeko formak erabiltzen dituztela ikusiko dugu, Hondarribian, Lezon eta Errenteriako adineko zenbait hiztunen artean izan ezik.

7.3. Lexikoa

Azkenik, lexikoari dagokionez, erdialdeko azpi-euskalkiko hizkerek (Errenteriako eta Lezoko hizkeretako salbuespen gutxi batzuekin) mendebaldeko hitzak erabiltzeko joera dutela ikusi dugu. Irunaldeko hizkeren artean bi joerak agertzen zaizkigu askotan, baina ekialdekoa galtzen ari da, Errenterian eta Lezon bezalaxe. Nolanahi ere, hizkera horietan ekialdeko hitz asko erabiltzen dira oraindik (*arrunt, kontent, deus, paratu*, etab).

Aurreko guztia laburbiltzen saiatuz gero, hemen aztertu ditugun kasu gehienak ulertzen lagunduko digun ikuspegi orokorra aurkituko dugu. Erdialdeko eta sortaldeko erdialdeko euskaretan elkarren arteko desberdintasunak dituzten zenbait ezaugarri aurkitzen ditugu. Sortaldeko azpi-euskalkiko hizkerek erdialdeko euskaratik aldendu eta ekialdeko formak hartzen dituzte batzuetan, tarteko hizkeretan gertatu ohi denez. Dena den, batetik erdialdeko azpi-euskalkiko hizkerak eta bestetik sortaldeko azpi-euskalkikoak multzokatzen lagunduko ligukeen isoglosa-multzoa zehatz eta argia finkatzen saiatuz gero, ez da hain erraza gertatzen bereizketa hori egitea. Beste hizkuntzetan ere maiz gertatzen den moduan, azpi-euskalki batetik besterako aldaketa oso lausoa eta leuna izaten da.

Egia da Astigarragako, Pasai Donibaneko eta Pasai San Pedroko hizkerek erdialdeko formak erabiltzen dituztela ia sistematikoki eta, haien ondoan, bi azpi-euskalkien arteko zubia osatzen duten hizkerak aurkitzen ditugula. Horixe gertatzen da Errenteriako hizkerarekin, esaterako. Hizkera hori bi azpi-euskalkietako formak tartekatzen ditu, hiztunen bereizgarriak (adina, adibidez) izanik aukera bat ala beste erabiltzea baldintzatzen dutenak. Hirugarren jokamolde bat aurkitzen dugu Lezon. Eskueran ditugun datuen arabera, Lezoko hizkerak sortaldeko azpi-euskalkiko ezaugarriak ditu hizkuntza eremu gehien-gehienetan. Hori ikusita, eta datu berriek besterik adierazten ez duten bitartean, Lezoko hizkera askoz gertuago dago sortaldeko azpi-euskalkitik aztertu dugun beste edozein hizkera baino, eta sortaldeko azpi-euskalkiko hizkeratzat hartu beharko litzateke beharbada.

Azkenik, hemen atera ditugun ondorioetan ikusi dugunez, ekialdeko euskararen eragin-eremua ahulduz doa Gipuzkoako euskalkietan barneratu ahala eta euskaraz alfabetatu gabeko belaunaldiak desagertu ahala. Erdialdeko formen lehia handiari aurre eginez, sortaldeko hiztunetan eta are erdialdeko azpi-euskalkia darabilten Lezoko eta Errenteriako herrietan ere eutsi egiten zaio oraindik hizkera horri. Azken kasu horretan, ekialdeko hizkeren eragina moteltzen ari da mendebaldeko formen eraginez eta, nahiz eta gaur egun Errenteriako hizkera erdialdeko azpi-euskalkiaren eta sortaldeko azpi-euskalkiaren arteko zubitzat har daitekeen oraindik, mendebalderanzko joera erabatekoa da hirurogeita bost urtetik beherako hiztunen artean. Bitariko joera horren ondorioz, Errenteriako hiztun askok bertako hizkera gutxietsi eta Oiartzungoa goretsi egiten dute askotan. Seguruenik, diglosia-egoera handiaren eta belaunaldien arteko transmisio-ezaren eraginez zabaldu da beren hizkera hizkera nahasia eta mordoiloa deneko ideia. Izan ere, etxetik kanpoko euskara batuaren bidez gainditu izan da askotan etxe barruko transmisiorik eza, eta aurreiritzi horren ondorioz, hiztun batzuek hizkera bereizia dutenik ere ez dute onartzen batzuetan.

Hiztunen beraien ikuspegi horiek gorabehera, garbi gelditu dira gaur egungo Errenteriako hizkeran bizirik dauden ezaugarriak eta hizkera horrek dituen joerak. Bi belaunaldiren buruan, Errenteriako euskarak erdiguneko azpi-euskalkiaren ezaugarri guztiak izango ditu, beharbada, eta Lezoko euskara bi azpi-euskalkien arteko zubi-hizkera bihurtuko da. Azken batean, berezitasun lokalen galerak beti markatu izan du euskara, bere historia osoan zehar, eta orain bizitzea egokitu zaion globalizazio-aro berrian, erdialdeko euskara edo euskara batua lehenesten da, horixe delako oraingo eredu handi, indartsu eta prestigioduna.

8. Etorkizunerako proposamenak

Seigarren kapitulua metodologiari buruzko atal batekin hasi dugu eta dialektologia klasikoaz jardun dugu, jakintza-alor horrek zaharkitu eta desagertu nahi ez badu, beste esparru batzuetako teknika eta teoriak ere erabili behar dituela esanez. Soziolinguistikak dialektologia parametro eta ideia berriez horni dezakeela ikusi dugu, horiei esker aldaketa linguistikoaren deskribapen zehatzagoak egiteko. Gure metodologiatik abiatuta, hizkerak deskribatu eta interpretatzeko garaian dialektologiak adin-tarte desberdinak aintzat hartu behar dituela esan dugu, aldaketa linguistikoak hizkera baten berezko ezaugarriak baztertu eta inguruko hizkeretakoak hartzea eragiten ote duen jakiteko, bereziki.

Erdialdeko euskarako erdialdeko eta sortaldeko azpi-euskalkietako hizkeren hiztun heldu eta gazteen hizkera marraztuko luketen material gutxi-gutxi izan ditugu eskueran. Berez, Errenteriari buruzko datuak izan ditugu bakarrik, guk geuk egindako grabazioei esker. Hala, bi azpi-euskalkiotako gainerako hizkeren joera azaltzen duen bibliografiarik ez dagoenez, adinekoen hizkeren deskribapenera mugatu behar izan dugu.

Bestalde, ikerketa egiteko denbora mugatua izan dugula eta, gure grabazioetan ez dugu herriaren aniztasun potentzial guztia jaso, hiriguneko hiztunei bakarrik egin baitizkiegu elkarrizketak. Hala, baserrietan, hirigunetik kanpo, Errenteriako udal-barrutiaren mugaldeko zonetara hedatu beharko litzateke ikerketa hau. Balio handiko informazioa eskainiko liguke horrek eta hirigunetik kanpoko hizkerak eta aldaketa linguistikoaren abiadura askoz zehaztasun handiagoz azaldu ahal izango genuke.

Errenteriako kasua liluragarria da inondik ere, hizkuntzaz gain, eta askotan harekin batera, azken hirurogehi urtean herria eta bertako hizkera aldarazi duten aldaketa orokorrak iker daitezke eta.

Azkenik, erdialdeko euskaratik nafarrerako eta mendebaldeko euskararako trantsizioan dauden azpi-euskalkien mugakide diren gainerako hizkeren gaineko ikerketa egiteke gelditu da. Oso interesgarria litzateke ikustea hizkera horiek Errenterian izandako eboluzio edo bilakaera bera izan duten eta mendebaldeko ezaugarriak indartu dituzten ala, aitziztik, trantsizioko ezaugarriak bereganatu dituzten.

Gehigarriak

Adibide gisa hiru elkarrizketen transkribaketa agertzen da gehigarrietan. Gainontzeko elkarrizketak kontsultatu nahi izanez gero, Errenteriako Udaletxean, euskara sailan aurki daitezke.

A.1. Mikel Erriondo (C-07-VII-10, III:1)

Buah! Kontuan har zázu ni jaio nintzan hogeitabatian, mila bederatzi eun hogeitabatian. Bah! Nere... oroitzapenak orduakoak erdian urte (???)... Klaro, nea... neen... nee lendabiziko orretapena dia gudakiñ ikusi biar dut eta emendik igesita egin genun, Ondarrura jun giñan. Nere lendabiziko oroitzapenak anguak dia. Ta an egondu giñan, ba eztait pa, sei illabete olakon bat, geo bueltatu giñen baño attak nunbait bezela lan eondu zan... Gu etorri giñan nere etxea, taberna genun orduan. Eta...

-Nun bizi ziñen, zu?

Emen kali ontan bertan, Santxoene kalian, bai. Bueno, ta ya ordun gañea Frankok agintzentzun, euskera galazita zeon. Eskolan asi giñen. Eskolan, noski, erderaz dena, euskera galaziya. ??? baserritar gixajuak etortze ziela, etzaiten erderik bat ere, baté-baté. Hor nere attona beak, naiz eta Errenteiko udaletxeko ??? negoziya izan, ta oso gizona ezauna baña etzakin erdera, etzakin, erderaz jakin gabe.

-Oi normala zan, e?

Bai, bai, normala zan, garai ortan normala zan. Errin ez, erri barruan ez ainbeste baño inguruko baserri guztietan bai, e? Beno, orduan ya galaziya zeonik, ze pasa genittun! Ba suposa bear du... tranbia hartu Donostira juteko arrébakin, eta kobradoreak "*¡Qué coño euskera! ¡Habla cristiano, hijo puta*!" olako gauzak aittu bear genittun egunero, orduan orrekiñ kendu preziyoa ikaragarriya izan dan izkuntza aldetik, eskerrak etxian oso gogorrik etzigutela bestela edade enun, zorionez etxian oso gogorrik etziguten, etziguten, eztait, erderaz esaten. Oaiñ, zokoa pasá ondoren, ya derrígorrez dena erderaz bear izan bear dugu. Beno, dena, e! *Es que* naiko ??? kalian aitzia e uskeraz iñ ala edoziñ tortze zitzaizun, sartzen tzen "*Habla cristiano*" eo *hijoputa* geyoik ez. Arrigarri izantzen inmigrantian aktítudia. Lantegiyan ez, lantegiyan oso apala, oso jende jatorra zen. Kalian ez, ez. Kalian da euskeraren aoskera baño ikaragarri; baño ezta emengo gauz bakarra, baño leku guztietan gertatzen da ori. ??? Madrilan bizitzea, ??? harrittu zidan gauz bat, astian beiñ edo euskaldun batzuk elkartzen giñen. Taberna batian baldin bageuden berriketan, bueno, pentsatzen bazuten estranjeria giñala, etzeon iñolako ostoporik baña, bein igerri ezkeo euskaldunak giñala, andik pixka batean "*Hable usted en cristiano porque a los que yo no entiendo*"... baño ??? kulturan arloan sartua egondu da. Españi osoko kultura arloan. Españian, izkuntza española da ta kitto, e! Orduan giro ta ??? lanian ??? asi amalau urtekiñ eta giroa erderaz toa, naiz eta euskaldun ???

-Nun?

Ofizina batian, bai. Eta ola umen intzala, ba, eskolako giroa erdalduna ???. Ta ze esango'izut garai artakoa!

-Txikiya zan herriya, orduan?

Ez, izango zittun garai artan amar milla biztanle edo izango zittun.

-Lantegi asko?

Bai, egiya. Errenteari esatentzioketen, *Perfecta* esatentzioten *La*... Inglaterrako... uri aundi baten izena... Liverpool ez, *La*... baño zeon industri pilla't ta gañia arrunt ezberdiña denak, denetatik ??? baño denetatik, e! Nai'zun ???, nai'zun lanak, galletan fabrikak, tejídoanak, pinturának, material eléktrikoa,... bua! Zen... oso aberatxa zen herriya. Lantegi pilla'at zeuden. Eta orduan asi zen inmigraziyo fuerte. Inmigrazíyuak iñ lantokitan iñolako problemarik ez, o sea, arremanak on egotentzien, ez ainbeste kalian... Kalian, euskeraz nabaritzen bazittuzten, ya mutur oker...

-Gero txarra zeon?

Bai, euskeraren aurka bai, euskeraren aurrera 're. Esan dizut, autobusa hartú, aittu kobradore... autobusan kobradoreak arrebakiñ euskeraz iñ ola ta "*Habla cristiano, chaval*". Oi normala zala... Kobrádorea! Bai, bai, girun, momentu artan giroa arrun...

-Ta euskaldunon artian etzegoen arazorik?

Gue artian ez, oaiñ bakarrik kalian alegíñ itten ??? eitteko euskeraz lendabiziko urtian biñipiñ. Lendabiziko urteotan asi giñen ta nola baita erderaz denak. Presiyua ???. Ezin nezake sinistatu baña presiyua izugarriya zan eta presiyo orren bitartez ??? polikika-polikika joera erdera gaitela. Nai edo ez, azkenian alde erdera, eskolan erdera, kalean derrigorrez erdera ta polikika-polikika-polikika norbekaratzen asten zea erdera zur'izkuntza bezela nai ta ez izan, ez? oiñ ala izan zen. Gero urte astean, gauzak aldatu zitziren baño urte oyetan nere oroitzapenak nei mingotx oi dia ???

A.2. Jon eta Martin Gaztelumendi (C-07-VII-16, II-III:3)

Martin: Tolósakua o ola... ne ingúrukuà da... seena... Geo ya Naparróan asko aldátzen dà... desbérdiñà, desbérdiña dà... geo beste... geyo badakisù...

Jon: ...eméngo euskera... klaro, gu gea ikástolakò seméak... baña... gurea da bigarren beláunaldià ta ... ni goatzen naiz gu... ba... nola itz egíten genùn lén... ta nere euskákià nik beintzàt, ezágutze'enùn ta gaur egùn erè ezagutzen dèt... oso nabármena dà. Emén zetà Oyártzun gu alde egón eta ezautzà Astígarragà ta òr... bazitùn bere ezáugarriàk... aditzetàn... "det" esáten genùn...

Martin: Oyártzunen esáten dà...

Jon: Ba Oyártzunen esáten dà... ba.... "duk"!

Martin: o "duk"...

Jon: "Esán dèt"... askótan erè Xempélarrek... bertsotan Xempelar ba, bueno, au dà... or daóna ta gure bertsólarià ta... eta... bazuèn... gure erríak bazuèn... basérritarrarèn... inflúentzià... zeátik etortzen zirén landa mundutík, e? onéa merkàtua dà eta, bueno... eta erá bereàn indústria sartu zèn gure errían, ba... aspádiàn... zuáztà ta basérritàrrak etorri zirèn erríra lan egíteà, ta Xempelar bera basérria, Xempélarrarèn basérrikuà, eta fábrika-manta lan íten tzùn. Ta or dauzkà Muxarrokin bértsu erosketxu oyek: "Aizaki, mutil mayontzia"

Martin: Antxe gu oixe da *fábrica de mantas*... ???

Jon: Ori da. Eméntxe bèrtan dà... ba... guk, béintzat, txikítan estakìt zé itz eíngo genùn, bañan ikástolaèkin asi eta euskera batúaren etoibelaren ba... sorkuntza eta bultatzen asi zeniàn, au guretzát sókuako aldáketa izán tzèn...

Martin: Aloita aundíya dò.

Jon: Eta or azíyan galtzen erríkoa eta, erá bereàn, biltzen edo ba berría, euskára batùaren eta adítzen... e... zera ba... aóskerà, osótasunà, batek... bujana ite'itugù aditza askò... eta ordúan... dugù. Bai, bai... estakit zer jan... "dugú" esáteà... joder! Ez, ba? Indiáo... indiáo...

Martin: ???

Jon: Bueno, ba ori danà... ba guk itzan beláunaldi bàt, ba, *osea*, aldáketà... jaso genúenà, *osea*, aldáketa àrtu genúenà ta ordún gure erreferéntziak erè, gure euskálkiak defenditzen galtzen juan giñelà...

Martin: ... *el académico*...

Jon: Ori da... ta bagénun sensazio oyek... oi da...bazèn akademiatík zetorren izkuntza... eta bueno... eta gero ba ika... itz egíten genùn ta asten genuèn. Emén ikaz itz egiten tzen erè, ez aimbestè ??? baña itz iten tzen.

Martin: Bai.

Jon: Ordúan euskálkia... eta ni guatzen naz, adíbidèz, guk ayó esáte genùn. Gure agúrtzekò era zen "Bueno, ayó!", beti "ayó".

Martin: Uáñ...

Jon: ??? ereintzan txikitan, ereintzan ??? sartu 'lako áurrak eta... aitak etortzen giñàn ta... ??? eta ordúan alako batean goátzen naiz Anjel Marík esán tzialà "Agur Jon!" ta nik ettakit nor, buelta emán ta "Ayó!" ta ??? esán tziàn "es san ??? alaba?" ta...

Martin: Ta don Juan... Juanito... geo...

Jon: ... Agur, klaro, agur! Agur, kasu ontan, nétzat itz berría bezela zèn, e?

Martin: ...oáñ badía, *pues*, Jon...

Jon: Ez da... agur, agur, agur... ez da... enion ulertzen ??? nola iten tzùn "agúr" esáten, ta guk "ayó" esaten genùn...

Martin: Bai.

Jon: Olako... olako ??? da, e?

J: Eta Lezokoa emengoa bezala da?

Jon: Ez, ez. Ez, ez. Diferéntzia da. Dóñuan. Doñu diferéntzia dauka e... baita... doñuan eta nik usté't e... aóskera diferéntea dauka... mintzatu... *osea*, nik dauzkat lagunak lezuar ta... diférente itz íten degù eta geo Doníbane dagò pixkat alduntzago erá beràn eta diférente egíten dà, dóñuà... ta emén ba... bueno, emén násketa zuka, ika eta... oráindik erè Zumailekútan basérritàn íten dà. O "íten dà" esaten degù... ta ikástolàko balitzà, egingo banukè "egíten dà"... ta guk... berréskuratù degù... ba basérritarrekìn ízketàn ta au... ta au dà... berréskuratzèn ta or iruitzen daláko numbait eta or atératzen dà. Ez, osaba?

J: Eta Oiartzungoa?

Jon: Oyártzungoà... bueno, Oyártzungoàk doñua dáuka, doñu beréziyà... azkarro... azkárragò itz eíten dà, ika géyenèz... ika gañéra oso markátua: "duk"... e... ta gero Zumai formak erè nor-nork aldátu "iten nau", e?... ori oso berézin tzalà, obesna, osea, baule akak gramátikalekìn. guk e bài, e! Guk e bài ite'itugù betezko akatxik gramátikàlak onártuak dáudenàk, ondo bezelà, olá itz eíten dàlako emén. Ta orí bildúa daude libúrutàn ???... náskete'ittugu nor-nori o, bueno, índa oláko euskera bat, bueno, násketen dà eta euskalki onén ezaugarrí bat omén da, gure ingúrukoàn. Eta klaro pentsatu bear duzù beláuni àsko eméngo zenén Oréetako ikástolatìk pasa diàla. Au Oréetako ikástolàn da iru urtè, lau urtétakìn or eta... zembat giñàn bi... irúgarren beláunaldià zèn [...].

A.3. Borja Arbelaiz eta Erdoitza Ayestaran (B-07-VII-13, III:3)

E: Asi zu.

B: Ni? Bueno, ba emén dén au ni náiz, ??? goizían, ló seko... Bai. Eta... ordún... ai nintzán amésten txikítako jolásekìn eta nola iyótzen níntzen arbóletarà... ta kontúa dà nik zorrúnka àsko egíten dudalà ta au nere bizilagúna dà ta... entzúten ari dalà nola egíten dudàn zorrúnka, ??? dutè... jarraitzen dunà amétxetàn ta txikítakò leitzate enekìn-età ta ikástolàn baitte uáin iruítzen ??? aríketàk età... mm... em... uo... farola báten aspìan dagóna yatarín niotela in sèn... espero dùt ezètz. mmm... kaléan dagóen gixájoà... ua.. gaix... gaixúa gerátua zàn ta etzayóla etzetzki azaldú, eo etzayóla azaldù, etortzen dà nere maitía, nere kúttunà... eta... au, igual, ni... lo gútxitàn edo ya ia galtzen ari naizèla eta olá geldítu nàiz seinsuela...tataro, óla gerátutà, ba orre ??? jakíngo dutè ta esango tára attón tzárra... eeee...

J: Ordena es da importa, e?

B: Bai... e... mm... arrántzan egíten ari dèna... au émendikàn artu dù ixéra au-edò... samárra oi, ya bueno... txapela erè badù eta... oi... nere laugárrenekò izena lagúna dà, zezília aundíya bákalà dantza eítekò, bakútan eta Idóyetàn età emén Oyártzun ibáyan... eta krakoya ??? gustíak arrapátzen baña bueno... eta nik jarraitzen dùt lótan eta amétxetan txikítakò oi izátenekìn eta nóla dà... gose nintzánìan eta nola... negárres amorru egiten nùn, ez? E... zure tzánda dà... bai.

E: Uain ni? Bueno... oi ni nàiz, korríka, beti bezèla... leku guztíetarà berándu irísten naizèla... ta itxároten daukàt or mutíkoà orrégatikàn korríka egíten dèt ta asi zeà ??? juten naizálakò... bañan bidéan topátu dùt gizóntxo àu loréa ekàrtzen eta... ba... ba ori, esán diòt ezín dudàla geldítu, *porke* nere zai daudè eta korríka jun bar dùt bañan Borjari deítu beár diòt erè, bañon Borjak lótan jarraitzen dù eta ez dégun Borja despértadóriarekìn sústo aundìa ártu duélakò, klaro, nerekín geldítua dagóelakò erè, eta... eta agertú... bidían erè mutiko batzùk aurkítu ditù or burrúketàn ta gelditu beár izán dèt *a ber zé* gertátzen zàn esátekò, ta atérki eskùan duéla ze enfadátzen sayátu nàiz bañan ezín izán dèt eta ordúan korrikan jarraitu dùt gixájonen día porke or zai dagò. Ta bidían zintúroya galdu dùt eta korrika jarraitze nùn, eta korrika jarraitze nù... eta ba... esdakít erè, bidéan, nola zínturoyà erorí egín tzait, bufándatxo bat aurkitu dèt nere gáltzak lórtzekò, béstela bídian galdi... galduko nitùn eta gizón... langille orrekìn tropézu egín dùt eta erori egín:àiz bañan bueno altxatu nàiz, korrika júan nàiz, Bórjai deitu diòt *a ber* esnátuko sàn ta ya korríka-korrìka berríz mutíkoarenganà irítzi geà eta... eta... ba bai. Ba bidéan ??? eta "O!" flipatzen gelditu naiz ??? gorpùtz bidáya ikusità báñan... klaro, nik pertsona bat neukán tzai ta korrika jarraitu beár nùn suáitzakìn jo dùt burúan bañan bueno ála erè ni aurréraka jarraitu dèt ta léngo balditxu naiz... kafí:artzéa lasái-tà.

Bibliografia

AGIRRETXE, J. L. & M. Lersundi & O. Olaetxea. 2000. *Pasaiako hizkera*: Pasaiako Udala.

ALBERDI, X. 1996. *Euskararen tratamenduak: Erabilera*. Bilbo: Iker-9, Euskaltzaindia.

ALZAGA, T. 1994. *Neskazar, Amantxi, Aterako gera, Biozberak*. Oiartzun: Auspoa liburutegia, 233.

ARTOLA, R. 1995. *Ipuiak edo kontutxoak*. Oairtzun: Auspoa liburutegia, 227.

AXULAR, P. 1643. *Guero*. Bordele: G. Milanges (inpr.). http: //www.vc.ehu.es/gordailua/Axular_1.htm [07/12/04].

AZKUE, R. M. 1969 (1905). *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

AZKUE, X. 2000. *Hitanoa Zumaian: egoera, erabilera, transmisioa eta formak*. Zumaia: Zumaiako Udala.

BASTARDAS, A. 1996. *Ecologia de les llengües*. Bartzelona: Edicions Proa.

BOIX, E. & F. X. Vila i Moreno. 1998. *Sociolingüística de la llengua catalana*. Bartzelona: Ariel Lingüística.

BONAPARTE, L. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bonaparteren bilduma osoaren edizio digitala.

— 1872[a]. *Études sur les trois dialectes basques des Valleés d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*. Londres.

— 1863. *Carte des sept provinces basques monstrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division, sous dialectes et varietés par le Prince Louis-Loucien Bonaparte*. Londres.

— 1877. *Observations sur le Basque de Fontarabie, d'Irun, etc*. Paris: Ernest Leroux.

CAMINO, I. (arg.) 1998. *Nafarroako hizkerak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

CAMPIÓN, A. 1884. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: Lz. Mendizabal.

DEL CASTILLO, V., J. A. Romo, & B. Giralt. 2001. *Azkoittiko euskerie*. Aizkibel beka. Barriketatik, 3.: Azkoitiako Udala.

ECHENIQUE, M. T. 1997. *Estudios lingüísticos vasco-románicos*. Madril: Biblioteca Española de Lingüística y Filología. Istmo.

ELORTEGI, A. M. & O. Olaetxea & J. L. Agirretxe & M. Lersundi. 1997. *Pasaia eta Lezo hizketan*. Pasaia-Lezo Lizeoa & Gipuzkoako Foru Aldundia & Ikastolen Elkartea. Kilometroak 97.

EUSKALTZAINDIA. 2005. *Euskal gramatika. Lehen urratsak-VI (mendeko perpusak-2)*: Bilbo.

EZEIZABARRENA, M. & B. Fernández. 2003. *Itsasaldeko solezismoa, datiboaren lekualdatzearen argipean;* dins *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*. Iker 14 (I). Bilbo: Euskaltzaindia.

ETXABE, K. & L. Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara: bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*. Zaldibia: Zaldibiko Udala.

FRAILE I. & A. Fraile. 1996. *Oiartzungo hizkera*. Oiartzungo Udala: Mugarri.

HUALDE J. I. & G. Elordieta & A. Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio.* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea & Gipuzkoako Foru Aldundia. ASJU, XXXIV.

HURTADO, I. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko ikerlan-sariketa.

ITURAIN, I & L. Loidi. 1995. *Orioko euskara.* Orioko Udala.

KAPANAGA, B. 2005. *Berria* egunkarian egindako elkarrizketa, 2005/10/30. http: // www.berria.info/elkarrizketak/azala.php?id=83 [2008/02/18]

LACOMBE, G. 1952 (1924). "La langue basque", *Les langues du monde.* Paris: Champion.

LAKA, I. (dig.) *A Brief grammar of Basque.* http: //www.ehu.es/grammar/index.htm [2009/10/05]

LEIZARRAGA, J. 1571. *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*. Arroxela: Pierre Hautin (inpr.) http: //www.vc.ehu.es/gordailua/leizarraga_1.htm [2007/01/30]

MACAULAY, D. (arg.) 1992. *The Celtic languages.* Cambridge: Press Syndicate of the University of Cambridge.

MACBAIN, A. 1982 (1896). *An etymological dictionary of the Gaelic language*. Glasgow: Gairm Publications.

MITXELENA, K. 1950. "En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)". Donostia: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*. VI. urtea. 1. libk. 1. koad.

— 1963. *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Acta salmanticensia. Ll. XVII. 2. zk.

— 1977. *Fonética histórica vasca.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. ASJU, IV.

— 1985. *Lengua e historia*. Madril: Colección filológica. Paraninfo.

— 1987. *Palabras y textos.* Gasteiz: Argitapen Zerbitzua. Euskal Herriko Unibertsitatea.

— 1990. *Textos arcaicos vascos.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. ASJU, XI.

— 2001. *Historia de la literatura vasca.* Donostia: Erein.

NÚÑEZ ASTRAIN, L. 2003. *El euskera arcaico: extensión y parentescos.* Tafalla: Txalaparta.

OLANO, M. 1998. *Areso eta Leitzako hizkerak. Donostia:* Nafarroako Gobernua, Aresoko eta Leitzako Udalak.

PAGOLA, R. M. 1991. *Dialektologiaren atarian (Euskal Dialektologiaren historiara hurbilketa).* Bilbo: Gero.

SAGARZAZU, T. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara.* Irun: Alberdania. Irungo Udala.

SALABERRIA, S. 1997, *Sagardotegiak*. Oiartzun: Auspoa liburutegia, 247.

TOVAR, A. 1997. *Estudios de tipología lingüística.* Madril: Biblioteca Española de Lingüística y Filología. Istmo.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA. 1983. *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Iruñea: UEU.

URKIJO, N. 1994. *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*. Udako Euskal Unibertsitatea.

VENY, J. 1984. *Estudis de geolingüística catalana.* Bartzelona: Llibres a l'abast: Edicions 62.

YRIZAR, P. 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico).* Bilbo: I. eta II. libk. Euskaltzaindia.

— 1992. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico).* Bilbo: I. eta II. libk. Euskaltzaindia.

ZUAZO, K. 1997. *Oiartzungo hizkeraren kokagunea*. FLV, 76, 397-425.

— (arg.) 2000. *Dialektologia gaiak.* Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

— 2003. *Euskalkiak. Herriaren lekukoak.* Donostia: Elkarlanean.

— 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak.* Donostia: Elkarlanean.

ZUBIRI, I. & E. Zubiri. 2000. *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.

ZUBIRI, J.J. & P. Perurena. 1998. *Goizueta eta Aranoko hizkerak.* Iruñea eta Leitza: Nafarroako Gobernua & Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara zerbitzua.